

I Oreka TX: "Txalaparta sinbolo bihurtu dugu"

LATTUN 105



# ARGIA

Xabier Sanchez  
Erauskin, ahotsik  
gabei ahotsa eman  
nahi zien gizona

2006ko abenduaren 24a | LXIX. urtea | 2.068-2069 zenbakia | 3,50 euro

**Gemma Zabaleta (PSE-EE)**

**"Nik ere Anoetako proposamenaren  
alde egiten dut"**

# informazioaren

# unibertsoa

## ■ SOLUZIOAK

Web/CD-Rom/papera formatuetan soluzioak ondoko alorretan:

- ▶ Berriak eta agendak
- ▶ Aldizkari eta egunkariak
- ▶ Liburutegi eta dokumentazio-zentroak
- ▶ Formazio eta autoformazioa
- ▶ Jolás interaktiboak
- ▶ Denda birtualak
- ▶ Bezeroentzako gune pribatuak
- ▶ Komunikazio korporatiboa

## ■ ZERBITZUAK

- ▶ Aholkularitza
- ▶ Ezarritako soluzioen eguneraketa jarraia
- ▶ Komunikazio zuzena
- ▶ Esperientzia

## ■ ERREMINTAK

Ingeniaritza linguistikoan dugun ikerketa + garapena + berrikuntzarako taldeak oinarrizko erremintak sortzen eta hobetzen dihardu. Oinarrizko erreminta hauek KAPSULA deituriko sistema teknologikoan biltzen dira. Hona hemen batzuk:

- ▶ Analizatzaile morfologikoa
- ▶ Euskararako lematizatzailea
- ▶ Espainolerako lematizatzailea
- ▶ Kwin: MS Word artxiboetako bilatzailea
- ▶ Testu alineatuak ikusteko prototipoa
- ▶ Itzulpenak baieztatzeke prototipoa
- ▶ Konkordantziak ikusteko prototipoa
- ▶ Batua/bizkaiera itzulpen laguntzailea

**Adur Software Productions, S. Koop (ASP)**

Industrialdea, 1 · 20160 Lasarte-Oria\_Gipuzkoa

adur@adur.com

© 943 371 849

**Adur** SOFTWARE  
PRODUCTIONS

[www.adur.com](http://www.adur.com)

## Gaiak

- 4 Bizitzarako bidaia.**  
Ander Altuna.
- 10 Oreka TX: "Musika hizkuntza unibertsala dela gezur hutsa da".**  
Ametz Arzallus.
- 16 Gaua lapurtu digute.** Unai Brea.



nómadak tx  
Oreka TX taldea.

## Iritziak

- 21 Asisko Urmeneta.**  
Gora Pro Nobis.
- 22 Inazio Mujika.** Ttakun (h)errenka.
- 23 Erramun Osa.** Zergatik egin behar dute gazteek euskaraz?
- 24 Iñaki Zubeldia.** Martineta.  
**Andoni Mujika.** Euskal ezkerrean tarareoa.
- 25 Iñaki Barcena.** Aldaketa klimatikoa, zor ekologikoa eta AHT.  
**Joxe Mari Ostolaza.** Kantuek.
- 26 Andoni Egaña.** Agenda 22.
- 28 Xebastian Lizaso.** Bertso berriak Abenduari jarriak.



Iban Zaldua.

## Erdiko kaiera

- 33 Bizkaiko Bertsolari Txapelketa: Etxahun Lekue eta Xabi Paya.**  
Estitxu Eizagirre.
- 36 Ezpalak.** Estitxu Eizagirre.
- 37 Argitalpenak.** Iker Barandiaran eta Pilar Iparragirre.
- 40 Denbora-pasak.**
- 42 Ihesi: Txokoz txoko lehengo Bilbo ezagutzen.**  
Unai Brea.
- 46 Makina bat kontu.**  
Jabier Agirre, Joxerra Aizpurua, Jakoba Errekondo eta Nagore Irazustabarrena.



Lekue eta Paya.

## Termometroa

- 54 Bero-beroa.** Xabier Letona, Onintza Irureta eta Juan Mari Arregi.
- 56 Net Hurbil. Kantzerrean aditu nagusia erosita zeukan industriari.** Pello Zubiria.

## 49 | Gemma Zabaleta (PSE-EE)



"Ahotsak-ek alderdiei aurrea hartu die".

PSE-EEko eta Ahotsak-eko kidea politikako bide berriak urratzearen azaldu zaigu. Bidez bidez, arriskuak hartu eta Batasunari joko politikoan egon dadin lagundu behar zaiola adierazi ere.

## 29 | Iban Zaldua Mikel Asurmendi

## 52 | Gregorio Biteri 58 | Azkena Miel A. Elustondo Nekane San Migel

## Oharra

Eguberri on! Ale honekin hurrengo urtera arte agurtzen gara. Gabonetako oporrak medio, abenduaren 31ko asteen ez duzu alerik jasoko, baina urtarrilaren 7ko data daramana bai. Ondo bukatu urtea eta hobe hasi bestea.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Erredakzioa: Urko Apaolaza, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia eta Onintza Irureta. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L. Sareko Argia: Eli Pombo, Jon Torner, Naiara Irureta eta Gorka Bereziartua.

Kudeatzailea: Beldaitz Goia. Salmenta Burua: Bego Zuza. Harpidetzak: Urtzi Azpiroz. Publizitatea: Igor Garmendia, Urko Vivar. Idazkaritza Teknikoa: Ixabel Bereziartua. Sustapena: Esti Parada. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde, Aloña Sorraluze. Bezeroen harrera: Olatz Korta.

Argitalpenak: Arantza Egaña. Zerbitzuak: Joxe Mari Irazusta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urnuña. Tel: 559 476000. Faxa: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: P.K. 140. 48.100 Mungia. POSTA ELEKTRONIKOA. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpide@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 127 euro. Ipar Euskal Herria: 155 euro. Espainia: 127 euro. Beste atzerriak: 160 euro. Airez: 252 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.

Azala: Antza. Azaleko argazkia: Dani Blanco.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundia

**kutxa**

# Afrikatik

## sendatzeko esperantzan

Hamarkada luzeak daramatzate Gobernu Kanpoko Erakundeek (GKEek) Hirugarren Munduan bizi den jendearen etorkizuna bermatzeko egitasmoak bultzatzen. Horietako bat da Gizakien Lurra GKEak abian jarritako *Bizitzarako bidaia*. Afrikan sendatu ezin diren patologiak dauzkaten haurrak ekartzen dituzte Europara, batzuk Euskal Herrira. Ebakuntza egiten zaie eta guztiz osatzen direnean sorlekura itzultzen dira. Gaixo horiek sendatzeko, eta hemen dauden bitartean, zaintzeko lan egiten dutenen esperientzia jaso dugu.

ANDER ALTUNA

**“ETORTZEN DIRENEAN EZ DUTE BEGIRADARIK.** Begiratuan antzematen zaie zein egoeratan dauden, begien mintzoak ez dakielako gezurretan. Etxera itzulitakoan, begiek dir-dir egiten diete, eta begiradan dakizu bizitzen hasiko direla, bizi-poza berreskuratu dutela”. Ines Artetxe Gizakien Lurrako boluntarioak horrela deskribatu du Afrikatik iristen diren haur gaixoen sentipena.

1960an Edmond Kaiserrek Terre des hommes sortu zuen Suitzian, pertsona babesgabe, zapaldu eta ahulen alde egiteko. Kaiser Aljeriako gerran izan zen berriemaile eta zuzenean ikusi eta sentitu zuen bertako umeen egoera lazgarria: kaleetan barrena harat eta honat, gaixotasun larriak jota kale erdian botata... Ekintzaile sena zuen eta bere jaioterrira itzulitakoan, laguntza eske hasi zen, *Bizitzarako bidaia* ekimena abian jartzeko asmoz. Medikuekin eta gobernuekin hitz egin zuen eta apurka-apurka aurreneko haurrak iristen hasi ziren. Urteen poderioz, egitasmoa Europako beste lurralde batzuetara hedatu da; hala nola, Euskal Herrira.

“Funtsean, ekimena haurrentzako elikadura eta osasun programa zabal baten azkeneko zatia da”, diosku Jon Olaizola Gizakien Lurrako EAEko arduradun nagusiak. “Osasun eta elikadura egitasmo horren barruan, muturreko elikadura urritasunak jota dauden familiak zaintzen dira. Ezer baino lehen, umearen larritasun egoera aztertzen da eta ondoren, lehenbailehen senda dadin saiatzeko gara, osaketa programen bitartez”. Baina horietako egoera larri ugari behar bezalako informazioa jasoz

gero saihestu zitezkeen. Horregatik, umea bere onera etortzen den bitartean, haurraren gurasoei jakin beharren berri ematen diete. “Informazio eza oso arriskutsua da eta gurasoak egin beharreko guztiaz ohartarazten ditugu, haurra kalera itzulitakoan berriro gaixotu ez dadin”.

### Lubna, hil ala biziko egoeran

Lubnari, adibidez, bi ebakuntza egin dizkiote. Zortzi urte egin berri dituen neskatok marokorra da eta bihotzeko arazoengatik etorri zen Euskal Herrira. Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzetako ospitalean egin zioten ebakuntza. Lehenengoa otsailean eta bigarrena orain hila-bete eskas. “Lehenengo aldian gorriak eta bi ikusi zituen ume gajoak. Hil ala biziko egoeran zegoen eta momentu batzuetan okerrena ere pentsatu genuen, hiltzeko arrisku bizian zegoelako. Hala ere, ezin hobeto osatu zen, nahiz eta izugarri kosta zitzaion”, kontatu du Petri San Miguel Lubnaren harrerako amak. Neskatoak bi hilabete eta erdi egin zituen Gurutzetan, horietatik hilabete baino gehiago AIGan. Hobekuntza nabarmena egin zuenez, denboraldi baterako etxera itzuli zitekeela ikusi zuten, gurasoekin egon zedin eta egonaldia horren luzea gerta ez ziezaion, nahiz eta bazekiten berriz ere operatu egin beharko zutela. “Zoritxarrez, udatik aurrera egoerak okerrera egin zuen, haurra likidoak atxikitzen hasi zen, puzten. Orduan, hemen geratzeko erabakia hartu genuen eta lehenbailehen egin zioten bigarren ebakuntza. Medikuek eta gu geu ere beldur



DANI BLANCO

Lubnak zortzi urte bete berri ditu. Bihotzeko arazoak zituelako etorri zen eta Barakaldoko (Bizkaia) Gurutzeta ospitalean bi ebakuntza egin dizkiote dagoeneko.

ginen, baina zorionez gauzak ezin hobeto irten ziren, ebakuntza arrakastatsua izan zen oso”.

Petri San Miguel gasteiztarra da eta zazpi urte daramatza Gizakien Lurrarekin harrera ama bezala kolaboratzen. Tarte horretan, lau neskatila hartu ditu etxean. “GKEa kate luze bat bezalako da, non lantalde luze baten beharra ezinbestekoa den katea hautsi ez dadin. Gu kate horren zati bat baino ez gara”. Boluntario honek argi dauka kate horretan noiz hasten den bere fun-

tzioa: “Behin umea hona etortzen denean, orduan hartzen dugu haren ardura gure gain”.

Ines Artetxe boluntarioak ere urtebete inguru darama egitasmo horrekin lanean eta dagoeneko sei ume zaindu ditu Gurutzetako ospitalean. “Umeak babesturik egon daitezen ahalegintzen gara, uneoro beraiekin egoten, ez daitezen inoiz bakarrik sentitu”. Boluntarioen lana eta harrerako gurasoena ez da bera; boluntarioak ospitalean baino ez dira egoten eta



**lurdes  
leria**  
ileapaindegia

La Salle, 8  
20140 ANDOAIN  
Telf.: 943 300 360



Petri San Miguelek jada lau neskatila hartu ditu etxean. Pena ematen dio Afrikara itzultzen direnean harremana guttiz galdu beharrak.

harrerako aita-amak ere joaten diren arren –medikuekin eta bertako jendearekin hitz egitera–, zaintza lanak ez dagozkie beraiei.

Oro har, umeak berehala egokitzen dira bizi-modu berrira. Zenbat eta txikiagoak izan orduan eta errazago egokitzen dira. Salbuespenak salbuespen, bizimodu guttiz normala egiten dute, beste umeen antzera. Hori bai, haur hauek ez doaz eskolara, denbora luzea ematen dute ospitalean eta zaila izango lukete eskolara maiztasunez joatea. Boluntarioek irakurtzen, zenbatzen eta halakoetan erakusten diete.

### Senegaldik Suitzara

Afrikako haur gaixo guztiek ez dute bidaiatzen. Duen arazoaren arabera, erabaki bat edo beste hartzen da: haurraren herrialdean bertan ebakuntza egiten saiatzen dira lehenik, baina ezinezkoa bada, gertu dagoen herrialde batera joaten dira ebakuntza egitera, Senegalera, adibidez. “Bertan kasua aztertzen dute, eta han ere ezinezkoa bada haurrak duen gaitz espezifiko hori

sendatzea, orduan hasten gara Europarako bidaia prestatzen”, adierazi du Jon Olaizolak.

Haurraren espedientea lehendabizi Suitzara bidaltzen da, bertan baitago Gizakien Lurraren egoitza nagusia. Han aztertu eta erabakitzen da haurrari non egingo zaion ebakuntza. Haurra-

ren patologia eta gaixotasun horri aurre egiteko ospitale aproposenak baldintzatu eta zehazten du nora eraman gaixoa. Behin erabakia hartu eta gero, dagokion herrialdeko GKEaren ordezkaritzarekin hitz egiten da. Leku aldatzea Suitzako fundaziok ordaintzen badu ere, ospitaletako lana doakoa da, bai ebakuntza eta baita egonaldia ere. Hala ere, GKEak zenbait gasturi aurre egin behar die eta horretarako diru laguntzak lortzen ahalegintzen dira modu batera edo bestera. Protesiren baten edo halako zerbaiten beharra izanez gero, GKEak berak egiten dio aurre gastu horri. Ekitaldiak ere antolatzen dira dirua lortzeko eta bazkideak emandako dirua ere lagungarria da.

## Umeen sostengu eta babes

*Bizitarako bidaia* egitasmoaren baitan, hiru kolaborazio maila daude. Batetik, elkartasun kideak bereizten dira. Kide hauen diru laguntzei esker fundazioaren egitasmoek behar adinako sostengua izaten dute aurrera egiteko. Bestetik, boluntarioek osatzen duten taldea dago. Hauek GKEaren euskarri sendoa dira eta ospitaleetara iristen diren haurren zaintzaz arduratzen dira, haurrak ez daitezkeen inoiz bakarrik sentitu. Txandakatze lanak egiten dituzte boluntarioen artean. Pilar Artetxe boluntarioarentzat, “harrerako ama izateko hainbat ezaugarri behar dira. Denbora, haurraz arduratuko den familia bat eta erabateko dedikazioa. Ni, esaterako, bakarrik bizi naiz eta jubilatua nago. Ezingo nuke haur baten ardura nire gain hartu eta horregatik boluntarioa naiz”. Hauena ez da soilik zaintze lana, baita haurraren euskarri izatea ere. Kontuan izan behar da ume hauek euren etxetik milaka kilometrora aurkitzen direla eta medikuen laguntzaz gain, babesa eman behar zaie uneoro, berotasuna. Kirurgia ebakuntza bat ez da samurra beraientzat.

Azkenik, familia edo harrerako aita-amak daude. Jende honek haurra zaintzeko ardura hartzen du ospitaletik ateratzeko moduan dagoenean. Umearen familia ordezkatzen du denboraldi baterako.



Garrantzitsua da seme-alabak berriz gaixotu ez daitezten gurasoek haurrak nola zaindu behar dituzten jakitea.

Hona iristen diren umeen osasun egoerak hiru mailatan ezartzen dituzte: larri, oso larri edo hil ala biziko egoeran. Familia oso pobreek eta Afrikan bertan sendatu ezin diren patologiak dituzten haurrek izan ohi dute lehentasuna. Nolanahi ere, egitasmoak ezin ditu denak lagundu. Ezinezkoa da, adibidez, transplantzea behar duen edo minbizia duen norbait ekartzea. Sendatzeko benetako aukerak izan behar ditu. Kasua oso kezagarria denean, haurra gune espezializatu batera eramaten dute, herrialde horretako Osasun Ministerioarekin hitz egin ostean. “Gobernuak haurrentzako zehazturiko azpiegiturak sortzearen beharraz konbentzitzen saiatzen gara”, azaldu du Olaizolak. Baina toki askotan ez dago haurrak bakarrik tratatuko dituen inor, batzuetan gune eta pertsona kualifikatuak helduentzako baino ez direlako. Hori dela medio, aldez aurretik sinatutako akordio baten bitartez, GKEak azpiegitura horiek sortuko

dituela adosten da. “Normalean, ospitale publikoetan garatzen dira haurrentzako azpiegitura horiek; umeentzako bereziki prestatzen diren oheak, esaterako. GKEko kideak baino ez dira egoten haurrekin eta hauen ardura bertako langileek hartzen dute. Horra joaten dira muturreko egoeran aurkitzen diren haurrak, lehenbailehen artatzeko premia dutenak.

### Batez ere, kardiologia arazoekin

EAEn, Eusko Jaurlaritzaren eta sare publikoaren kolaborazioarekin burutzen dira ebakuntzak. Batez ere, kardiologia arazoak dituztenak etortzen dira, Espainiako Estatuan Gurutzetako ospitaleak baino ez duelako Zainketa Intentsibotako Unitate pediatrikoa eta bihotzeko arazo larria duen oro bertara eramaten ohi da. Jaurlaritza, kasu bakoitza aztertu ostean, espezialista batekin jartzen da harremanetan. “Hark, zer egin daitekeen esaten digu. Ebakuntza eta ondorengo osa-

gure!  
arteak!  
euskaraz



BFA  
DFB  
Bizkaiko Foru  
Alkandia  
Diputación  
Foral de Bizkaia

## 52 haur gure ospitaleetan

- ✓ **Hartutako haur kopurua:** 1999az geroztik, 52 haur etorri dira guztira eta horietako zortziri bigarren ebakuntza egin zaie. Txagorritxuko ospitalera (Araba) guztira 16 iritsi dira; Gurutzetako ospitalera (Bizkaia) 33 eta aurten beste bi iristekoak dira; Basurtoko ospitalera (Bizkaia) beste 2; eta iaz proiektuarekin bat egin zuen Donostiakora bakarra, baina urtea amaitu aurretik beste bat iritsiko da.
- ✓ **Patologia ohikoenak:** kardiopatiak, erredurak, traumatologiak, sexu anbiguotasuna, uzki malformazioak, masail aurpegietako arazoak.
- ✓ **Zerbitzuak:** Txagorritxun traumatologia arazoak artatzen dira; Donostian, masail aurpegietako arazoak; eta Gurutzetan, kardiopatiak eta gainontzeko gaixotasunak.
- ✓ **Haurren jatorria:** Maroko, Mauritania, Senegal, Benin, Togo, Ginea, Madagaskar, Kongo.

keta posible direla zehazten badu, orduan eremu labainkorrean sartuko ginatke, paper kontuetan alegia". Paperetan aritze hori ez baita ahuntzaren gauerdiko eztula. Indarrean dagoen inmigrazio legea dela-eta, ezinbesteko baldintza batzuk bete behar dira. Tamalez, burokrazia arazoak izugarriak dira, batez ere atzerritarren legea azkenez aldatu zenetik. Umeen trafiko eta esplotazioagatik neurriak gogortu egin dira.

Hasieran, Gasteizko Txagorritxu ospitalean burutzen ziren ebakuntzak, errehabilitazio saioak eta osaketa. Gero, Bizkaira ere heldu zen egitasmoa eta orain gutxi beste talde bat eratu da Gipuzkoan. Bizkaiko Gurutzetako ospitaleak, esaterako, lau urte inguru daramatza egitasmoan parte hartzen eta urtean sei bat ume artatzen dituzte. Jose Ignazio Aramendi ospitale honetako bihotzeko kirurgi burua da: "Bihotzeko kirurgian bost zirujau, hiru kardiologo eta hainbat pediatra gara. Lehenik eta behin, diagnostikoa osatzen dugu. Espedientea bidaltzen digute, baina bigarren diagnostiko bat egiten zaie hemen". Gehienak ebakuntza xumek dira, baina egon dira konplikazioak. Bakan batzuek bigarren edota hirugarren ebakuntza behar izan dute. "Gure xedea erabateko osaketa lortzea da. Agian ebakuntza batean ez dugu gaitza guztiz sendatzea lortzen. Hobe da berriz ebakuntza egin eta guztiz osatzea eta ez ebakuntza bakarra egin eta bere horretan itzultzea etxera".



Beraien herrialdean senda daitezkeen haurrak ez dituzte ekartzen edo ahal bada ez dituzte Afrikatik ateratzen.

### Errehabilitazioaren unea

Haurra sendatuta dagoenean, ordura arte eginkoia errepikatzen da, baina alde-rantziz. Errehabilitazio saioak, botikak hartzea eta hala-koak izan ohi dira medikuen aholkuak. Gizakien Lurrako kideek haurren familiak prestatzen dituzte haietaz ardura daitezen. "Esaterako, uzkirik gabeko haur baten kasua izan genuen behin. Ebakuntza egin zitzaion eta etxera joateko moduan zegoenean, haurraren gurasoak GKEkoekin egon ziren praktikatzen, umearen ardura beraien gain hartze-ko gai izan ziren arte", azal-

du du Jon Olaizolak. Gurasoak behar bezala prestatu eta gero, euren etxera itzultzen dira umearekin eta bertan jarraitzen dute osaketa. "Familiak, euren ahalmenaren arabera konpromiso bat hartzea behartzen ditugu, baliagarri senti daitezten, ez daitezten hutsaren hurrengo sentitu. Josten eta eskulangintzan irakasten zaie. Ehungintzan ere jarduten dute eta horren bitartez irabazi batzuk eskuratzen dituzte botikak erosteko edo euren umearen osaketan behar diren gastuei, neurri batean behintzat, aurre egiteko".

### Agurra, latza denentzat

Haurrak etxerako bidea hartzen duenean boluntario taldeak izugarri sufritzen du. Hala ere, umea etxera itzultzen da, bere guraso eta lagunengana, nahiz eta beretzat ere gogorra izan. "Haurra zinez maitea duzu. Familiako kide da eta seme-alaba baten antzera maite duzu. Behin osatu eta etxera itzultzeko moduan dagoenean, oso une latzak bizitzen ditugu. Benetan gogorra da maite diren pertsonak norbaiten ondotik aldentzea. Kasu hauetan, gainera, are eta gogorragoa da, aurrerantzean ez dugulako inolako harremanik izango umearekin", dio San Miguelek. Egitasmo honetan adopzioak ez du lekurik. Jon Olaizolaren esanetan, "haurrak sendatzera baino ez dira etortzen. Gaixo dauden haurren gurasoekin adostasun batera iristen gara prozesu guztia abian jarri aurre-



tik. Akordio horretan argi eta garbi zehazten da beraien umea etxera itzuliko dela medikuek hala erabakitzen dutenean. Gurasoen egoera ere ez da erraza. Beraiek arriskatu egiten dira hein handi batean. Ez dakite nora eramango duten beraien umea, ezta non eta norekin egongo den ere. Gu saiatzen gara haurren berri izan dezaten, argazkiak eta eskutitzak bidaliz onik dagoela jakin dezaten". Adopzioaren aukera ez ezik, haur horrekin harremana izaten jarraitzea errotik mozten du GKEak. San Miguel harrerako amak neurri hori onartzen du, baina malgutasun apur bat izatea gustatuko litzaioke. Gutxiarik, argazki eta eskutitzak jasotzeko aukera izatea. Familiako kide izatek, beraren arrastoa guztiz galtzera igarotzen da, norberaren bizitzatik aldentzen dira betiko. Hainbat familiarentzat neurri bultzegia da. "GKEak esaten du ume hau zorioneko izan dela eta beste milaka daudela bere lekua hartzeko beharrean. Umea sendatzerator, izan ere berak bere lekua eta bere familia baditu eta haiengandik ezin dira inolaz ere alendu. Guk hori onartzen dugu, hala behar du gainera, baina eskutitzak eta argazki batzuk jasotzeko aukera sikiera izateak ez lioke inori

kalterik egingo. Agurra gogorregia da eta harekin harremana etetea oso latza da. Kontu honetan familia guztia murgiltzen da. Harrerako ama ez naiz ni soilik. Nire senarra, nire gurasoak, nire semea, finean familia osoa dago burubelarri sartuta, eta umea familiako beste kide bat da. Gu saiatzen gara, ahal den neurrian behintzat, bere etxeaz, bere gurasoez hitz egiten, nola hemen ez den betiko geratuko, nola etxera segituan bueltatuko den, etengabe dihardugu horretaz. Lubna joaten denean oso gogorra egingo zaigu. Ziur".

"Etortzen direnean ez dute begiradarik. Etxera itzultitakoan, begiek dir-dir egiten diete, eta begiradan dakigu bizipoza berreskuratu dutela"

Ines Artetxe, boluntarioa

San Miguelen aldean, Artetxeri ez zaio horren eramanezina egiten. "Jakina gogorra dela, baina, aldi berean, badakigu etxera doazela, onik eta zoriontsu, eta horrek tris-tura ordezkatzeko dit neurri. Oso gaixo etortzen dira, zutik jartzeko gai ere ez direla eta etxera joateko moduan daudela ikustea benetan pozgarria da".

Tirriki-tarraka. Isilpean. Horrela dihardu Gizakien Lurra GKEak. Hitz jario hutsak ez ditu arazoak konpontzen, baina eguneroko ekintzek bai. Egitasmoa giza kate luze batek eginiko eguneroko lanaren emaitza da eta eguneroko lan horren helburua ez da makala: bizitzaren aldeko bidaia eskaintzen dute. ■

# GABON OPARIRIK EDERRENA

## Bergara aldeko hiztegia Juan Martin Elexpuru



**ANTOSIÑ, antosiña.** (a. iz. Ura edateko erabiltzen den eskuleku bakarreko metalezko ontzixoa. • Acetre, baci-neta. Kaletik etorri ita antosinkara ura eran neban danga-danga. in. txolet (Ub). antosiña

**ANTS, antsa.** (d. iz. Hatsa, kiratsa, usain txarra. • Hedatza: batera egundoko antsa sentidu juat! Etxakia antsa dan, baiña joaten eztan antsa jaok etxian. Gu antsa familia, familia batzuetan hitz arrunta bada ere. Usain txarra esanena.

**SITTU.** (d. Eib.). ad. "Padirise, descomponer baño len antsitu jako arraiña." (Etxba Eib). S

## Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak liburu bilduma



### BILDUMAKO LIBURUAK

- Linua, ehuna eta artilea
- Txondorrek, karobiak eta elurzuloak
- Zura: arotzak eta etxegileak
- Burdina: errementariak eta perratzailak

### EZAUGARRIAK

- 12.000 sarrera
- 800 argazkia, mapa eta koadro
- 768 orrialde

Prezioa

30 €

Prezioa

Liburu bat: 9 €  
Bilduma: 30 €



SALMENTA LEKUA: Liburu-dendetan • Bergarako Kultura Etxean (Errotalde Jauregia) 943 77 91 59

# Harkaitz Martinez de San Vicente eta Igor Otxoa

## «Musika hizkuntza unibertsala dela gezur hutsa da»

... Hoa, soaz, pausoaz... Hesi ihesi... Haizea haiz... Eta basamortu erdian gelditu dira lau taula lau; lau taula lau, lau ta lau taula zortzi, LAU TAULA LAU, LAU TAULA LAU, LAU TAULA LAU TA LAU TAULA LAU ZORTZI. Eta hondarra hatzak urratzen ari zela, basamortuan, haizea gelditu da une batez: BI KUKU KIKUKA, KIKUKA KUKU BI, KULUN-KULUN MAKULU BI MAKULU KULUNKA.

AMETS ARZALLUS

Argazkiak: Dani Blanco

Zer da benetako nomada izatea?

**Igor Otxoa.** Horrek eztabaidak piztu ditu bion artean. Badira artzain batzuk urte erdian edo gehiagoan ibil daitezkeenak leku batetik bestera, baita musikariak ere nahi bada, baina horiek denak beti itzultzen dira leku jakin batera, sedentario puntu bat dute. Aldiz, badira nomadak etengabe lekuz aldatzen ari direnak, ez dute gunerik nora itzuli, haiekin daramate etxea. Niretzat nomadismoaren izate goren hori da, etxea norberarekin eramatea.

**Harkaitz M. de San Vicente.** Niretzat Josu Iztueta, gurekin Laponian ibili zena, nomada bat da. Badu bere txokoa, bere herria, bere etxea, baina batetik bestera ibiltzen da eta gainera hori du bizibidea, bide hori eginez bizi da. Nomada berezi bat da niretzat. Berak aipatzen duen bezala nomada pribilegiatu bat da. Nomada asko beharragatik dira nomadak, gerra dela eta, gosea dela eta, ihesean bizi dira.

Zuek txalaparta dela eta zarete nomada azken lau urteotan.

**H. M. de San Vicente.** Guk gure proiektu hau desio baten ibilbidearekin parekatu izan dugu, amets baten gauzatze bidearekin, eta desio horrek bilakatu gaitu nomada.

Nola sortu zen amets hori?

**H. M. de San Vicente.** Txalapartaren bidean material berriak probatu nahi genituen, tinbre berriak, eta txalapartaren sonoritatea aberastu. Beti ere jakinik materialak bere ingurunean esanahi bat duela, eta inguru horretako kulturarekin eta moldakortasunarekin lotuta dagoela. Herrien

arteko harremana eta lotura lantzea Igorren gogoeta izan da. Baina moldakortasunaren ideiak pisu handia izan du gure proiektuan, nomada herrialde horietan nola ibiliko ginen bideak berak erakutsiko zigun, nomadek ere hala egiten dutelako. Eta...

### Solasaldi bitxia

Durangoko azokan egin genien elkarrizketa Igor eta Harkaitzi. Iritsi ezinik zebiltzan mutilak, esku bat okupatuta, bestea ere bai, burua okupatuta, mingaina berdin, baina hala ere tarte hartu zuten gurekin egoteko. Bi zatitan egin genien elkarrizketa. Bat beraiek muntatu berri duten Nomaden karabanan, iluntzean. Eta bestea, bazkaldu bitartean. Zerbitzaria harrিতa zegoen mahai bazterrean, Igor jaten ari zela, Harkaitzek hitz egiten zuen. Eta Harkaitz jaten ari zela, Igorrek.



## nomadak tx



(Gurdian argia itzaltzen hasi da, eta argindarra ematen duen motorra eztulka... Ai ai ai, argirik gabe gelditzera goaz. Igor eta Harkaitzen lankideak, Mikelek, burua azaldu du barrenerantz: "Itxaron pixka bat, gasolina bota behar diot". Hirurok barrez hasi gara. Eta une batez ilunpean gelditu gara).

**H. M. de San Vicente.** Nomadak justu behar-beharrezkoa duten horrekin bizi dira, garraiatu dezaketen hori beharrezkoa dena besterik ez da,

eta musikak hor zer toki edo zer espazio betetzen zuen interesgarria zen guretzat. Are gehiago txalaparta hain instrumentu pisua izanda. Gurea kontraste bat zen, txalaparta hemen ematearen arrazoi bat gu sedentarioak izatea delako, baserri inguruan ematen baita bertako materialekin.

Instrumentua garraiatzea lan astuna izan daiteke, baina ahotsa beti daramagu gurekin. Kantuarekin harreman berezia dute nomadak?



Txalaparta elkar topatze bat dela sinetsirik herri berrien bila, musika berrien bila, nomaden bila, abiatu ziren Harkaitz Martinez de San Vicente hernaniarra eta Igor Otxoa donostiarra (Oreka TX-eko kideak), orain lau urte. Bidean, Indiako adibasiekin egin dute topo, saami herriarekin, amazigh herriarekin, sahara-rrerekin, eta azkena Mongolian izan dira. Denak elkartuta *Nomadak TX* filma eta diskoa atera berri dituzte.

Igor Otxoa (ezkerrean) eta Harkaitz Martinez de San Vicente (eskuinean), Nomadak TX proiektua iragartzen duen karabanaren aurrean.

**H. M. de San Vicente.** Bai, nomada ibiltari diren herri horiek ahotsa eta kantua nola garatzen duten izugarria da, baita inprobisazio aldetik ere, hori da joikaren kasua. Joika inprobisatzeko modu bat da, baina ez dute inprobisatzen neurriaren arabera, baizik eta melodia bat erabiliz. Melodia hori gainera txikitzen ematen zaien melodia bat da. Jaiotzen direnean melodia bat dagokie.

Zuen bizitzan txalaparta da beharrezko, beti txalaparta daramazue zuekin, eta txalapartak zaramatzate zuek. Baina zer du hain berezi txalaparta jotzeak? Sentimendu baten transmisioa da, edo erritmozko hizkuntza bat sortzea, edo...

**H. M. de San Vicente.** Gogoratzen naiz niretzat, hastapenetan, jolas baten antzekoa zela. Hizkuntza ezberdina hitz egiten duten umeak ikusten badituzu, helduak ez bezala, jolasean ikusiko dituzu. Eta txalapartak ere horretarako aukera ematen du, jolasteko. Harrapaketan ibiltzea bezala da, badakizu besteak zenbat korri egiten duen, eta haren atzetik zoaz. Bada jolasa, eta era berean bada elkarren arteko pultsu jokoa ere, eta sormena ere bai, eta elkar entzun behar izatea. Horregatik lotzen dugu guk txalaparta jarrera batekin, txalaparta ez da instrumentu huts bat, baizik eta elkarrekin sortu beharreko zerbait eta bat egite horretatik sortzen den jokoa.

Oreka TX zarete. Txalaparta hotsa desoreka-orekaren jokoan oinarritzen da?

**H. M. de San Vicente.** Hori da. Guk oreka deitzen diogu baina oreka ezinezkoa da desorekarik gabe, eta orduan oreka izena duen bezala desorekak ere berdin-berdin balio luke, bata bestea konpentsatzen duelako.

**I. Otxoa.** Guk oreka jarri genion, baina ez bakarrik txalaparta jotzerakoan oreka hori beharrezkoa delako. Eta oreka izenak txalapar-

### Izotzeko txalaparta

"Izotzeko txalaparta bat jotzea liluragarria izan da, klimaxa. Eta prozesua bera ere hain polita da berez, hain da gardena, metroko izotz lodiera duen bloke batetik beste aldea ikusten da... Baina tonua hartzeko erreferentziarik ez genuen, kanpoan, entxuferik ez, eta instrumentu bakarra alboka. Tonua horrek ematen zigun. Eta alboka ezagutzen duenak badaki afina ezina den instrumentu bat dela, eta gu alboka batekin izotz bloke bat afinatzen! Hura eromena! Baten batek esan digu filmeko zati hori surrealista totala iruditzen zaiola..."

tarekin ez ezik gure esperientziarekin ere harreman zuzena du. Gure bikotea oreka batek eusten du: Harkaitz sortzaileagoa da, alor artistikoaz gehiago arduratzen da, eta ni ekoizpen edo antolakuntza arloaz. Nomaden proiektuarekin ardura handiak hartu behar izan ditugu, enpresa bat sortu dugu biok, eta hor paperak ongi banatu ditugu. Horretan nik uste dut asmatu dugula, oreka hori lortu dugu, eta beharrezkoa izan da. Azken urteetan ordu asko pasa ditugu elkarrekin, esperientzia asko bizi, momentu gogorak ere bai, erabaki latzak hartu behar izan ditugu, eta desoreka guztiei bion arteko orekak eutsi die.

**H. M. de San Vicente.** Hori bada oso ongi zaindu dugun zerbait. Garbi izanik ere proiektu hau gauzatzea guretzat garrantzitsua zela eta genuen onena jarriko genuela, gure artean egon den harreman ona beti izan da proiektua bera baino garrantzitsuagoa. Ezberdina da beste enpresa batekin elkarlanean sartzea, gaizki moldatzen bazara ere lana da inportanteagoa, eta egiten duzu, baina gure artean beti izan da harremana inportanteagoa lana bera baino.

Elkarbizitza ere txalaparta jotze bat delako funtsean, oreka-desoreka joko bat.

**H. M. de San Vicente.** Bai, eta horixe da lortzen zailena. Baina harreman on hori gabe ez dago beste fruiturik. Proiektu handi hau ikusi, eta jendeak esango du "jode, nola sartu zarete honetan...", baina benetan meritua duena zera da...

Nola atera zaretzen hemendik.

**H. M. de San Vicente.** Bai.

**I. Otxoa.** Hori da. Eta ez da biotako inor geratu "nik gehiago egin dut" sentsazio horrekin, nik badakit honetan biok guztia eman dugula, eta tartean bazen dirua, kontu asko, beti ere harreman bat nahasteko bide

izan daitezkeenak, baina dena beti oso ongi orekatuta mantendu dugu, eta horrek badu meritua.

**Txalaparta zubi bat baldin bada, noraino eraman gaitzake?**

**I. Otxoa.** Guri maila pertsonalean zubi asko eraikitzeke balio izan digu. Musikak berez zubi asko eraikitzen baldin baditu txalaparta bezalako instrumentu batekin joateak are gehiago luzatzen du zubia. Ez da berdina Mongoliako nomaden etxetxo batera gitarra batekin agertzea, turista bezala agertzea, edo txalapartaren bitartez musika sortuz agertzea. Txalaparta hain oinarritzko zerbait izanda, eta gainera biren artean jotzen dena, eskertu egiten dute, eta gero beraiek animatzen dira jotzera, eta horrek erraztu egiten ditu gauza asko. Proiektu honetan, txalaparta sinbolo bihurtu dugu, edo berez sinboloa zen eta guk hori aprobetxatu dugu. Ez soilik musikarien arteko harreman eta zubiak eraikitzeke, baita herrien arteko zubiak eraikitzeke ere. Askotan brometan esan izan dugu bion artean; hainbeste hitz egiten da orain alderdien mahaiari buruz, "txalaparta sinbolo polita litzateke! Politikoei mahaiaren orde zabalaparta jarri beharko lukete!". Azken batean txalaparta biren arteko elkar ulertze bat da, zerbait batera egitearen sinbolo da, eta gainera mahai itxura du.

Gainera bik bakarrik ez, gehiagok ere jo dezakete. **H. M. de San Vicente.** Eta norberak erabakitzen du norekin jo nahi duen. Inork ez zaitu behartzen berekin jotzera, baina jotzekotan biok maila berean egon behar dugu, elkarren parean.

**I. Otxoa.** Sinbolo bezala txalapartak mezu bat darama, agian beste instrumentu batek ez dauka gaitasun hori. Txalapartak hainbat metafora biltzen ditu bere baitan, bikotearena, sexuarena...

**H. M. de San Vicente.** Nik uste dut norberak hartzen diola bere irudia. Igorrek dioen bezala lotu zenezake alderdien arteko bat egitearekin, elkarrekin jotzearekin... Instrumentu batetik hau guztia ikusi nahi izatean agian norbaitek esango du, "jode, a zer ipuina muntatu duten horren inguruan!", baina...

Ipuina ere izan daiteke egia.

**H. M. de San Vicente.** Hori da. Eta baliagarria den heinean nik uste dut balore garrantzitsuak direla norberak bere egunerokotasunean kontuan edukitzeke. Ni beste lan batean ariko banintz ere saiatuko nintzateke aitzakia bat bilatzen lan horrek nire herriarentzat, nire buruarentzat, ingurukoentzat, nahi ditudan balore positiboak zabaltzeko bide bat eman dezan. Ez dugu esango "guk hemendik nahi duguna da hurrengo lau urtetan Euskal Herriaren independentzia lortzea", ez, baina sinbolo polita da

## kulturagenda

Abenduaren 15etik 31era



Urdaneta kalea, 9 | 20006 donostia

Erakusketak

### Gure artea

lehiaketako hautatuak

### Erakustaretoan

urriaren 19tik urtarrilaren 5era

Miren Arenzana, Itziar Barrio, Txaro Garaigorta, Iñaki Gracenea, Ismael Iglesias, Iratxe Jaio, Klaas van Gorkum, Jeleton: Gelen Alcantara, Jesús Arpal, Aitor Lajarin, Abigail Lazkoz, Maider Lopez, Mikel Louvelli, Asier Mendizábal, Aitor Ortiz, Juan Perez, Txuspo Poyo, Begoña Zubero.



### Bestiarium gastronomicae

### Gyula Madaras

Andoni Luis Aduriz | José Belmonte | Usagi Enoki

Ganbaran. 06-11-22tik 07-01-13ra bitartean

## arteleku

Kristobaldegi, 14 20014 Donostia

www.arteleku.net

Abenduaren 18tik 21era

Analogikotik digitalera

Grabaketatik DVDra

Koordinatzailea:

Gabriel Corbella

Abenduak 22-23

### Feministaldia

Kultura Feminista jardunaldiak

Koordinatzailea: Plazandreok

Gonbidatuak:

Arakis, Girls Who Like Porno, Pripublikarrak, Begoña & Jawata, Izaskun Alvarez, Mujeres Creando, ORGIA, Las Petrushkas, Munlet, Hernaniko Dj Eskola, Placida Ye-Yé



eta iruditzen zaigu instrumentu batetik haxe ekarri daitekeela.

Zuen esateko bidea ere hori da azkenean.

**H. M. de San Vicente.** Bai, eta askotan zuk zure ahotik esan nahi duzun hori beste bide batetik esatea askoz eraginkorragoa da, eta pelikulan adibidez askotan hori erabili dugu, beste herrien ahotsetik hitz egin dugu.

Arrakasta lortu duzue. Arrakasta mediatikoa, arrakasta publikoa. Baina ametsa jaiotzen ikusi zuenarentzat, eta ametsa bizi izan duenarentzat, bide honetan guztian, non dago benetan arrakasta?

**H. M. de San Vicente.** Niretzat arrakasta da hasieran jarri genituen helburuak lorgarriak eta errealak zirela ohartzea. Bidaia, filma, diskoa, amets errealak ziren. Bestalde, arrakasta bada ere zure bizitza, irudimenez, edo sormenaz, desorekatzea, zure irismena gaintzen duen erronka batean sartzea, eta *tarrakata* berriro ere oreka batera iristea, apustuari berari pultsuan irabaztea. Hori pertsonalki arrakasta da. Eta nik uste dut momentu honetan horra iristen ari garela, eta orain, pentsatzen jarri behar dugu: "Hau lortu dugu, ongi da, berriro balantzari desorekara eragin aurretik, jar gaitezen eta pentsa dezagun zer nahi dugun guretzat".

**I. Otxoa.** Nik uste hala ere arrakasta pertsonala, hein batean, badagola lotua arrakasta publikoarekin. Azken batean guk bideratu dugun proiektu hau ez zegoen soilik gure barnera begira pentsatua, ez zegoen soilik Euskal Herrira begira egina, haratago joan nahi genuen, eta ikusten genuen filma bazela modu bat gure herriaren berri emateko, gure kulturaren, txalapartaren, esperientziaren, eta baita beste herrien berri emateko ere. Proiektu hau ez da soilik guretzako izan, eta nahiz eta gu oso pozik geratu sortutako lanarekin, jendeak ez balu ikusi izan, nik pertsonalki ez nukeen arrakastatzat hartuko.

**H. M. de San Vicente.** Nik bai.

Nomaden bila ibili zaretenotan hizkuntzaren mugak ezagutuko zenituzten.

**I. Otxoa.** Hizkuntzaren mugak, eta horrekin bat hizkuntzarik



gabe komunikatzeko gaitasunaren bideak. Mongoliako bidaiaren aurretik hizkuntza asko agertu dira, baina ez da egon beste era bateko komunikaziorik, komunikazio paralinguistikorik, berbala ez denik. Hori han topatu genuen, Mongoliako azken herri hori ezagutu genuenean, Chatan. Hango bi kiderekin joan ginen mendira, eta egun gutxi izan ziren zaldian ibiltzen pasa genituenak, baina nahikoak guk eta haiek elkar ulertzeko, nahiz eta hitz ezagun bat bera ere izan ez. Guretzat garrantzitsua izan da hori, nola senti gaitezkeen hain hurbil hain urruneko jende batekin.

Zenbat hitz egin liteke hitz egin gabe?

**H. M. de San Vicente.** Interesa eta denboraren araberakoa da hori. Chataneko bi hauekin zaldian gindoazela une batean gelditu egin behar izan genuen elurra hasi zuelako, ezin genuelako gorago segitu. Suaren inguruan eman genuen egun bat, eta han komunikazio oso bat sortu zen. Azkar, bagenituen hitz ezagun batzuk, "yuyaptigin" haiena, "eskerrik asko" eta "ez horregatik" gureak. Beti osatzen da bi hizkuntzen artean zubiren bat, jolas bat ere badelako komunikazioa, besteak zer esan nahi dizun, zuk zer esaten diozun...

## AZKEN HITZA

### Martxa baten lehen notak

"Kanta hori mila bider entzuna genuen biok, eta sekula ez ginen konturatu zein zen kanta horren esanahi benetakoa. Nomadak proiektu honek kanta horretako mezua entzuteko modu bat eman digu. Hasieratik pentsatu genuen Joxe Antonio Artzeren hitz horiek ondo laburbiltzen zutela proiektu honen filosofia; 'herri guztiok bat eginik ez gabiltza gerorik gabe'. Kuriosoa izan da, Mikel Laboari planteatu genionean azken kantu honetan parte hartzea, hasieran ez zuen ulertzen zer pintatzen zuen berak guzti honetan, eta gero, behin pelikula ikusita, *Martxa baten lehen notak* kantu horren historia nola izan zen kontatu zigun. Hain zuzen ere kantu hori Laboak egin nahi zuela, eta Artzeri eskatu zion internazionalista kantuaeren kutsua zeukan zerbait sortzeko, euskaldunok ere behar genuela gure kantu internazionalista, eta hortik zetorrela kantu horren ideia. Oso ondo lotzen zuen azkenean kantu hori pelikula honekin".

Musika ere bada hizkuntza bat. Nonahi eta nornahirekin komunika liteke hizkuntza musikalean?

**H. M. de San Vicente.** Askotan esaten da musika hizkuntza unibertsala dela, eta hori gezur hutsa da. Gure melodiek batzuetan haiekin ez zuten zerikusirik. Haiek ez ziren kapazak gure melodiak egiteko, eta gu ere ez haien erritmoak egiteko. Harrigarria zen, guretzat oso gauza sinpleak zirenak nola ezin zituzten egin, eta haientzat sinpleak zirenak ere ez guk. Beraz uztartze hori ez da beti guk nahi bezala atera, hizkuntzarekin dauden arazo berak sentitu izan ditugu musikarekin. Baina askotan oso iradokigarria izan da haien ulertzeko modua, eta inoiz, ez ulermenak gauza politagoak ere sortu ditu.

Kontatu izotzeko txalapartaren istorioa.

**I. Otxoa.** Izotzezko txalaparta bat eraikitzea pentsatuta generaman hemendik, baina ez geunden oso ziur egingarria ote zen. Badaezpada egurrezko txalaparta gurekin eraman genuen. Kasualitatea izan zen, zeharkaldi bat egin behar genuen eskiekin, eta egurrezko txalaparta kargoz bidali genuen, baina bidean galdu egin zen, eta lehen asterako genuen estudioa hartua, beraz izotzarekin egin behar zen, eta horretan Ice Man-ek lagundu zigun. Aurrez idatzitako epostetan esaten zigun oso zaila izango zela, izotzak sonoritate apal-apala du eta oso mikrofono onak behar dira, edozein soinuk hori guztia zaputz dezake, kamerarenak adibidez. Konplikazio asko espero genituen, eta azkenean azkar egin genuen dena, eta bidaia guztietan zehar bizi izandako esperientzia politenatariko bat izan zen.

Hemen egin ezin litekeen gauza, lastima.

**H. M. de San Vicente.** Era berean hori da bere xarma.

Bidea urratua dago, filma eta diskoa atera dira. Distantziaren hoztasunarekin baloratzeko aukerarik izan duzue? Bakardadean zuen begi belarriz ikusten edo entzuten jarri zarete?

**H. M. de San Vicente.** Nik lehengoan eduki nuen aukera, Bilbora nindoala elkarriketa bat egitera, CDa autoan oso-osorik entzuteko.

Eta, esan egia, zer sentsazio?

**H. M. de San Vicente.** *Earra!* Bai, bai, *earra*, benetan esaten dizut. Pentsatu nuena izan zen, "neronek hau erosiko banu, zer poza emango lidakeen". Kar, kar, kar.



## Irailaren 11 Estepan

"Pelikulan azaltzen den azkeneko artzain horri, 'nirezat garrantzitsuen nire zaldiak bazka izan dezan da' esaten duen hari, horixe galdetu genion, 'gogoratzen zara nola izan zen irailaren 11koa? Jakin zenuen horren berri?' Eta munduko azken puntan zegoela esan daiteke, baina erantzun zigun, 'bai, eta kalte handia egin digu, gasolioa asko igo da'".

Mandoak?

**I. Otxoa.** Hori. Ardura handiak hartu ditugu, eta askotan sentitzen nuen olatua gu baino handiagoa zela, eta ezin genuela kontrolatu.

**H. M. de San Vicente.** Egia da gauzak egiteko dugun modua nahiko berezia dela. Agian ez da zuzenena komertzialtasunari begira, baina bada natural sentitzen dugun modu bat. Karabana hau esate baterako, *karromato* hau, Durangoko Azokarako behar genuen, eta lehengoan gaueko hamaiketan iritsi zen Igor Leitzatik, ni Bilbotik nentorren, eta goizeko ordu biak arte hemen egon ginen lanean... Durango hasi baino lehen, kontsigna bat jarri genion gure buruari: "Guk ez dugu *karromato* honekin lanean aritu behar". Eta azkenean asteazkenean hasten zen Azoka, eta astearte goizeko ordu bietan hemen geunden, Azokan, bakarrik, gu biak eta *segurata*; eta asteazkenean goizeko zortzietan ere hementxe, berriz, gu biak bakarrik eta *segurata*, pantaila jartzten, bestea jartzten... Eta nik uste dut gero eta naturalago sentitzen garela gauzak horrela eginda. ■

## Oharra

Hona ARGIA astekariaren 2065. zenbakian Khalid Amzir-  
i egindako elkarriketaren inguruan, elkarriketatuak egin  
dituen zuzenketak:

– Saharari dagokion atala elkarriketatzailerak aipatu  
zuen eta, ondorioz, harena da pasartean ageri denaren  
ardura. Gure elkarteak (Marokoar Etorikinen Elkarteak)  
gai horri buruz duen iritzia dagokionez, esan behar  
dut Elkarteak ez zuela Gasteizen egitekoa zen bilkura-  
ren berririk jaso. Gasteizko bilkuran parte hartzeko

gonbita edo deia jaso izan bagenu, aukera aztertu,  
eztabaidatu eta erabaki bat hartuko genuen. Baina  
Elkarteak ez zuen hartaz hitz egin ere egin, ez baitzuen  
berririk jaso.

– Bere Bar tabernaren pasartean, erantzuna gehiago da  
elkarriketatzaileraren ikuspuntua –tabernara joan eta berak  
ikusitakoa–, nirea baino. Egia da, hala ere, taberna hori  
leku soziala dela, ez politikoa, eta ondorioz, askotariko kar-  
tel, deialdi eta iragarkiak ageri direla.

## Argi kutsadura

# Gaua lapurtu digute

Gabonak gainean ditugu berriz, baina aspaldi konturatuko zineten horretaz. Hainbat aztarnek iragartzen digute Eguberrien etorrera. Horietako bat kalean jartzen den argiteri berezia da, urteroko eztabaida piztuz: gehiegizko argi-ingar gastua, Gabonen aitzakian. Arazoa ez dagokio sasoi bakar bati, urte osoari baizik. Askok salatzen dutenez, behar baino argi gehiago erabiltzen dugu gaua egun bihurtu nahian. Nafarroan, dagoeneko, badaugu argi kutsadurari aurre egiteko lege bat.

**IRUÑEKO PLANETARIORA BISITA** egiten duten haur askok, sabaian izarrak ikustean, ez dakite izar horiek zeruan ere badaudela. Planetarioan sortuak direla uste dute, eta han besterik ezin daitezkeela ikusi. Bigarren ustea ia zuzena da, Iruñeari eta beste edozein hiriri dagokionez behintzat: zeruko izar gehienak geure argiz estali ditugu. 90eko hamarkadan hasi zen argi kutsaduraz hitz egiten, eta gaur egun elkarte askok bihurtu dute kezka hori beren aldarri. Astronomia zaleek eta ekologistek, batik bat. Gaiak lotura zuzena dauka bien helburuekin, ikusiko dugunez.

### UNAI BREA

Fernando Jauregui Planetarioko astrofisika-riak eman digu bertara joaten diren umeen berri. Jauregui, zenbait kiderekin batera, argi kutsaduraren aurka lan gehien egiten duenetakoa da Euskal Herrian. Hala, Planetarioko web gunean ([www.pamplonetario.org](http://www.pamplonetario.org)) informazio ugari aurkituko duzu argi kutsaduraz. “Haren definizio asko eman daiteke –dio Jaureguik– eta zabalduenetako bat hauxe da: gauez zeruak giza-ekintzaren ondorioz daukan distira”.

Gauez argia eduki nahi badugu, argi kutsadura saihestezina da. Alternatiba bakarra guztiz ilunpean egotea litzateke, baina inor ez da

DANI BLANCO





## Bilbotik 60 izar baino ez

90eko hamarkadan hasi zen argi kutsaduraz hitz egiten. AEBetako talde ekologista batzuek, baina batez ere astronomia zaleek, salatu zuten arazoa. Gero, kezka Europara zabaldu zen. Bizkaiko Astronomia Elkarteko Eduardo Rodriguezek dio astronomoek plazaratu zutela gaia, eta gero beste esparru batzutarra zabaldu zela. Gaur egun, astronomia elkarte guztien agendan dago argi kutsadura, eta bakoitzak bere ahalmenaren arabera ekiten dio haren aurkako borrokari.

Rodriguez Leioan bizi da, Bilboko erdigunetik oso kilometro gutxira. Teleskopioa dauka etxean, baina alferrikako lana izango litzateke bere leihotik zeruari begira jartzea. "20 urte daramatzat hemen bizitzen eta denbora horretan, igarri egin dut gero eta kutsadura handiagoa dagoela". Rodriguezek dioskunez, Bizkaiko Astronomia Elkarteko kide batzuek –bera baino zaharragoak eta bizitza osoa Bilbo inguruan eman dutenak– oraindik gogoratzen dute Bilboko bazter auzo batzuetatik Esnebidia ikus zitekeela. Orain ezinezkoa da.

Rodriguezek dio Bilbo Handitik, gaur egun, 50-60 izar, ilargia eta planeta batzuk ikus daitezkeela zeruan. Hutsaren hurrengoa. Eta hori, oskarbi bada. "Hilean behin-edo behaketa publikoak antolatzen ditugu Etxebarria parkean, nahi duen edonor hurrera dadin". Erosotasunagatik egiten dute Bilbon, baina ezer gutxi ikus daiteke bertatik. Bistan da. "Behaketa serioagoak egiteko, gutxienez Salbadako mendizerraraino joan behar dugu, Bilbotik 40 kilometrora". Han ere hiriko argiak igartzen dira ordea.

Behar bezalako behaketa egin nahi dutenean, Rodriguez eta elkarteko gainerako kideak askoz urrunago joan behar dira, Gaztelako mesetara. Zamora, Soria... "Oraindik ere zeru benetan iluna duten lekuak topa daitezke han. 2.000 edo 3.000 izar ikus daitezke beharbada, eta baita zeruko beste objektu batzuk ere: galaxiak, nebulosak...".

halakorik eskatzen ari. "Helburua ez da hori, saihestu daitekeen argiztapenaren aurka egitea baizik". Argi asko igortzen dugu alferrik zerura eta hori kenduta, argi kutsaduraren ondorioak nabarmen leunduko lirateke.

Gehiegizko argiztapenak arrazoi bi ditu. Batetik, argi-iturri asko desegokiak dira. Bestetik, asko ipintzen ditugu, eta potentzia handiegikoak. Lehenbizikoari dagokionez, farol edo kaleargi biribilak dira beharbada adibiderik ezagunenak, baina ez bakarrik. "Kaleargi mota ugari argi asko bidaltzen dute zuzenean zerura, beren zeregina bete gabe. Guztiz alferreko argindarra da, guztiok ordaintzen ari garena eta gainera kutsadura sortzen duena".

### Gure begiak badu muga bat

Badirudi gaua egun bihurtu nahi dugula, salatu du Jaureguik. Arazoaren bigarren alderdia argi gehiegi ipintzea da, beharrezkoa izan gabe. "Ez dauka ez hanka ez bururik hainbeste argiztatu nahiak. Gizakiok ondo hornituta gaude gauez jarduteko. Gure gaueko



## TXIKIPOLIT JATETXEA

Musika plaza.

20800 Zarautz

Tel: 943 83 53 57

e-posta: [info@txikipolit.com](mailto:info@txikipolit.com)

web orria: [www.txikipolit.com](http://www.txikipolit.com)



## Argi kutsadura Iberiar Penintsulan


Mapa honek Iberiar Penintsulako argi kutsaduraren berri ematen digu. Hona hemen kolore bakoitzaren esangura:

✓ **BELTZA:** guztiz zero garbia. Dagoeneko itsaso zabalean besterik ezin da ikusi.

✓ **GRISA:** zenita garbi dago oraindik, baina horizontea, norabideren batean ala bestean, kutsatuta. Beraz, arriskua dago las-ter garbi izateari uzteko.

✓ **URDINA:** zero-uztai osoan zehar argitasun artifiziala antzematen da.

✓ **BERDEA:** argitasun artifizialak naturalak besteko indarra dauka.



✓ **HORIA:** argitasun artifiziala naturalaren bi halako da.

✓ **LANANJA:** urte osoan ilbetea edukitzea bezala. Esnebidea ikustea ia ezinezkoa da.

✓ **GORRIA:** Esnebidea guztiz desagertu da eta ehun izar baino ezin dira ikusi eguraldi onaz. Ikusmen eskotopikoaren mugara hurbiltzen ari gara—hau da, begia gaueko ikusmenera egokitzen den mugara—.

✓ **ZURIA:** ikusmen eskotopikoa ez da posible. Izar gutxi batzuk (distiratsuenak) eta

planetak besterik ezin dira ikusi. Argitasuna gaueko zeruak berez daukanaren 27 halako da.

ikusmena oso ona da”. Argi gehiago jartzeak ez du hura hobetuko, ondo ikusteko argi nahikoa dugun unetik.

Izan ere, gauez ondo ikusteko behar dugun argi kopurua sobera ezaguna da eta faktore fisiologikoen arabera neurtuta dago: “Begiak badaki argi kopurua neurtzen. Ninia zabaldu egiten da argi gutxi badago, eta asko dagoenean berriz, itxi. Gizakion gaueko ikusmena, hain zuzen, ninia guztiz zabaldua egoteko diseinatuta dago. Jakina, ez dira berdin pertsona zahar baten ninia eta haur batena. Azterketa batzuk egin dira, eta neurtu egin da zein argi kopurutik aurrera hasten den pertsona zahar baten ninia ixten. Hortik aurrerako guztia alferrikakoa da. Begia bera ari baita argi gehiago sartzea galarazten”. Neurrak horiei men eginez, adituek aspaldi ezarrita dute zenbat argi behar den leku desberdinak argiztatzeko: merkatal guneak, etxe guneak, industrialdeak... Baina ez da beti muga errespetatzen.

### Ondorioak

Argi kutsaduraren ondorioz agerikoena, Fernando Jaureguiren esanetan, kulturala da. Eta estetikoa. Hiri inguruetan, zerua ia hutsik agertzen zaigu, oso izar gutxirekin alegia. Unibertsitateak eskaintzen duen ikuskizun paregabea ari gara geure buruei ezkutatzeko. Argi kutsadurak zeharo oztokatzen du astronomoen lana, eta horregatik eurak izan ziren—eta dira— aitzindariak hura salatzen.

Bada besterik. Dagoeneko ezaguna da gauez argi gehiegi egoteak zenbait animaliariegi egiten dien kaltea, intsektuei batik bat. Baina ez

haiei bakarrik: hegazti eta ugaztunak ere ari dira gure argi faktura ordaintzen. Gure osasunari egiten dion kaltea aztertzen ari dira, halaber. Gaia berri samarra da, eta are berriagoak ikerketak, baina susmoa dago ondorioak naturaren eremu guztietan igartzen direla.

Gainera, alferrik igortzen dugun argia ekoizteak badu eraginik ingurumenean. Kalea argiztatzeko erabiltzen den argiaren %35-40 alferrikakoa da eta gure begiek baliatu ezin dezaketen argia sortzeko CO2 asko igortzen dugu atmosferara.

### Merke eta erraz konpontzekoa

Konponbidea erraza eta merkea da, Jaureguiren iritziz: argiteria egokia ipini, neurri egokian. “Arazoa da kaleargi bat edo bestea jartzeko erabakia norberaren esku dagoela, eta gehienetan etikarekin zerikusia duten irizpideak gailentzen direla”. Horregatik, arautzea da irtenbidea, eta xede horrekin ebatzi zen, iazko azaroan, lege bat Nafarroan: gaueko ingurumena babesteko argiteriaren antolaketari buruzkoa. Otsailaren 14tik dago indarrean, eta abuztu erdirako behar zuen prest araudiak, baina Gobernuak ez du oraindik burutu.

Espainiako Estatuan argi kutsadurari buruzko hirugarren legea izan zen Nafarroakoa—lau daude gaur egun—. Katalunia izan zen aitzindari, eta hango legean oinarrituta egin zuten hemengoak. Bizkaiko Astronomia Elkarteak Eduardo Rodriguezek dioenez, Katalunian legea sortzen parte hartu zutenak aurka ageri dira orain, bertako agintariek uste baino araudi bigunagoa egin zutelako.

Neurtu egin da zein argi kopurutik aurrera hasten den pertsona baten ninia ixten. Hortik aurrerako guztia alferrikakoa da

Ezaguna da gauez argi gehiegi egoteak zenbait animaliariegi egiten dien kaltea. Gure osasunari egiten dion kaltea aztertzen ari dira, halaber



IRUÑEKO PLANETARIOA



IRUÑEKO PLANETARIOA



DANI BLANCO

Lurrean bertan ipintzen den argiztapena (goian, Iruñeko Gaztelu enparantza), argizatutako eraikinak (erdian, Oblatas zubia, Iruñean) eta gabonetako argiak (behean, Donostia) argi kutsaduraren iturri dira.

Ikusiko da Nafarroan zer gertatzen den. EAEn, berriz, ez dago ezer udal-ordenantza batzuetatik landa eta momentuz ez da erkidegoan legerik egingo, Rodriguezek esan duenez.

Argi kutsadurari erraz eta merke egin bada-kiokio aurre, zergatik ez da egiten? "Ez daukat erantzun garbirik, susmoak baino ez", aitortu du Fernando Jaureguik. "Kaleko argiztapena gai labaina da. Jende gehienak oraindik pentsatzen du zenbat eta argi gehiago hobeto ikusiko dugula, eta aurreratuagoak izango garela. Politikariak ez dira ausartzen ideia horri aurka egiten". ■

# Zelaieta Berri Landetxea

**Itsaspe Auzoa**  
**20829 Itziar**  
**Tel: 943 74 28 56 • 655 74 27 06**  
**e-posta: xalba3@euskalnet.net**

## Abenduak 6, asteazkena

IRIGOIEN LANDETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Joseba Ulazia	0047
UZTARTZA ATERPETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Maria Jose Garcia	0016
ATALAIA JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Itziar Nogeras	0036
TXIKI POLIT JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Begoña Tapia	1042
TARPOON URPEKARITZA	urpekaritza bataioa 2 lagunentzat	Karmele Otaegi	0609
PUENTING	jauzia 2 lagunentzat	Edorta Estonba	1227
ESKALADA	eskalada 2 lagunentzat	Miren Cajarville	1027
TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA	2 lagunentzat sarrerak	Aitor Goia	0044
TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA	2 lagunentzat sarrerak	Edure Oregi	1125
TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA	2 lagunentzat sarrerak	Oihane Uribe-Etxeberria	1123
TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA	2 lagunentzat sarrerak	Roberto Trujillano	1301
TXUMA MURUGARREN, PETTI, RAFA RUEDA	2 lagunentzat sarrerak	Koldo Zabala	1220
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Jon Aleman	0713
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Eneko Bergaretxe	1206
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Eneritz Urrutia	1001
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Nerea Diaz	0026
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Ane Mujika	1051
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Miren Tere Antia	1042
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Beatriz Fernandez	0606
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Irati Urtzelai	1049
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Agurtzane Irazabal	0505
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Eider Zarate	1117
EUSKAL BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Haitz Karakuel	1225
EUSKAL BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Maite Gundin	1216
EUSKAL BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Nerea Plazaola	1041
EUSKAL BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Karmele Laurenzena	0051
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Gorka Herce	0049
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Alaitz Amundarain	1039
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Arantza Uriá	1205
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Patxo Larrinoa	0509
ISTILU arropa sorta		Pilare Baraiazarra	1215
ISTILU arropa sorta		Josean Garin	1003

## Abenduak 7, osteguna

ANDURI LANDETXEA	gaua eta gosaria 2 lagunentzat	Agurtzane Urruzola	1145
ONDARRE LANDETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Iraia Noriega	0726
JOLASTOKI JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Elena Zalakain	0718
TXIKI POLIT JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Joxemai Osa	1081
KIROLPSIKOLOGIA	online ikastaroa	Mikel Irizar	1306
TARPOON URPEKARITZA	urpekaritza bataioa 2 lagunentzat	Maria Luisa Diaz	1324
ESPELEOLOGIA	espeleologia 2 lagunentzat	Amaia Beitia	0209
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Joxe Angel Arbelaitz	0618
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Lurdes Iruretagoiena	1150
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Julite Telleria	0824
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	June Gutierrez	0114
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Unai Urien	0822
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Aloña Irazabal	0820
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Mentxu Amas	1069
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Zorion Totorika	1066
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	June Mendizabal	1316
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Ion Begiristain	0814
BURDINOLA	2 sarrera	Ioritz Kormenzana	0717
BURDINOLA	2 sarrera	Fernando Echavarría	0829
BURDINOLA	2 sarrera	Ramon Telleria	0825
BURDINOLA	2 sarrera	Itziar Unanue	1131
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Eneritz / Ibai	1076
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Sustrai Colina	0723
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Jose Angel Otaegi	0106
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Susana Taracido	1073
ISTILU arropa sorta		Mikel Miner	0217
ISTILU arropa sorta		Alaitz Barrenetxea	0216

## Abenduak 8, ostirala

BENTAZAR LANDETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	M <sup>a</sup> Angeles Garzandía	1950
UGARTE LANDETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Iria Santiago	1191
MATTEO JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Begoña Urizar	1091
ATALAIA JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Mikel Olabide	0737
ATALAIA JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Ibon Elizondo	0738
TARPOON URPEKARITZA	urpekaritza bataioa 2 lagunentzat	Ibon Zabaleta	0252
4X4 SAIOA	4x4 saioa 2 lagunentzat	Olatz Aldekoa	1979
LURDES LERIA STUDIO	estetika eta ile apainketa saioa	Imanol Lertxundi	1971
ESKALADA	eskalada saioa 2 lagunentzat	Xabier Ugalde	0419
PUENTING	Puenting saioa 2 lagunentzat	Joxan Larrañaga	0917
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Aitor Bizkargoenaga	0431
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Leire Arregi	0438
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Iñigo Martin	1179
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Jon Larreategi	0921

BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Jose Luis Aperribai	1992
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Pablo Azpiroz	0427
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Ane Makaia	1097
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Andone Barandiaran	1341
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Katrin Ginea	0462
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Alazne Bidezabal	1200
BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Maria Jesus Arrieta	0119
BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Maite Arruti	0903
BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Josune Berrondo	0074
BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Berta Arizkun	0309
BURDINAREN MUSEOA	2 sarrera	Joxe Mari Agirretxe	0248
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Eva Leatxe	1181
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Joana Ezeiza	0922
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Josu Bilbao	0245
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Oier Garcia	1168
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Montse Garcia	1187
ISTILU arropa sorta		Lander Arabiourrutia	1186
ISTILU arropa sorta		Jabier Ortuondo	1177

## Abenduak 9, larunbata

GUIKURI LANDETXEA	asteburu pasa bi lagunentzat	Haritz Goikoetxea	0930
UXARTE LANDETXEA	asteburu pasa bi lagunentzat	Ane Dominguez	0132
JOLASTOKI JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Nahia Guenaga	1398
TXIKI POLIT JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Andoni Arenaza	2003
ATALAIA JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Garbiñe Gaztañares	0133
TARPOON URPEKARITZA	urpekaritza bataioa 2 lagunentzat	Mikel Mendibil	0641
URRUTI SPORT	bi lekuko parapentean hegaldia	Agustin Ruiz	1383
ARROILA JAITSIERA	arroila saioa bi lagunentzat	Lander Ibarluzea	0452
LURDES LERIA STUDIO	ile apainketa eta estetika saioa	Sarai Gastañazpi	1707
ISTILU arropa sorta		Koldo Guridi	2038
ISTILU arropa sorta		Marijo Berroet	1371
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Leire Uriarte	1386
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Xabi Lekuona	1374
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Pedro Etxabe	0739
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Unai Jauregi	2524
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Garikoitz Txapartegi	2034
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Olatz Barrena	1366
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Uxue Gonzalez	1382
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Esti Zubeldia	1363
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Josune Goenaga	1706
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Iomara Bringas	2521
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Oihana Etxaburu	0444
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Karlos Santisteban	0858
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Maria Jesus Zubikarai	2025
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Joseba Unzuu	0857
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Begoña Azpuri	2012
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Nekane San Miguel	1385
URDZUBIKO LEZEAK	2 sarrera	Erdoitza Gorrotxategi	0327
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Xabier Zabaleta	1701
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Ane Larrañaga	1400
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Karmele Elorza	2001
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Koldo Diaz	2036
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Karmelo Alberdi	1703
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Aritz Bregel	1376

## Abenduak 10, igandea

ONDARRE LANDETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Ramon Davila	0149
UZTARTZA ATERPETXEA	asteburu pasa 2 lagunentzat	Javier Igartua	1263
JOLASTOKI JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Josu Aldekoa	0157
TXIKI POLIT JATETXEA	afaria 2 lagunentzat	Sorkunde Elgezabal	0935
ESPELEOLOGIA	espeleologia saioa 2 lagunentzat	Maria Luisa Larrinoan	2544
4X4 SAIOA	4x4 saioa 2 lagunentzat	Javier Agirre	1716
ESKALADA	eskalada saioa 2 lagunentzat	Inma Arana	0958
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Aitor Blanco	0962
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Olatz Alberdi	2542
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Paula Elias	0949
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Oihana Orbegozo	1724
OLABERRIAKO KARTINGA	2 sarrera	Andres Odriozola	1713
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Mirari Elizasu	0957
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Jaione Azpiasu	2041
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Iurdana Del Barrio	2553
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Mari Jose Urbieto	0959
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Asun Garitaonaindia	2546
DONOSTIAKO AQUARIUMA	2 sarrera	Iker Idondu	1728
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Ibon Gurtubai	0151
BILBOKO EUSKAL MUSEOA	2 sarrera	Garbiñe Etxeberria	1726
BURDINOLA	2 sarrera	Idoia Goikoetxea	1262
BURDINOLA	2 sarrera	Zuriñe Lizarralde	1285
BURDINOLA	2 sarrera	Pedro Orreagoiazkoa	1271
ISTILU arropa sorta		Aintzane Esnal	1732
ISTILU arropa sorta		Asier Irizar	2554

# VASCUENCE LEGEAK XX URTE

ZERA  
HORI ere  
OHEAN HILTZEN  
UTZI BEHAR  
OTE DUGU...?



## Antzinako elurrak

**F**rantsesa ukitu dit Angelek –frantses hizkuntza erran nahi baita–, eta, antzinako Villon hari bezala, dama aspaldikoen oroitzapena egitean sortu zitzaion galdera bera etorri zait niri ere gogora: “*Mais ou sont les neiges d'antan?*”. Hamalau urte da Durangon saltzaile nabilela eta aurtan bertan harrapatu nau malenkoniak. Gure standaren atzealdean jarri-rik, euskal musikaz eta euskal liburuz inguraturik, noizbehinka Imanol –aspaldi ez nuen Imanol entzuten Durangon–, Benito eta Xabier Leteren kantua entzunez megafoniatik, antzinako elurrez gogoratu eta Xabier Leteren kantu- hitzen liburu inguratu dut etxerako.

Liburu ederra da Elkar etxeko lagunek argitara eman dutena, eta Xabierrek berak egin dio hitzaurre aski dotore eta jakingarria. Gauza asko esaten ditu oiartzuarrak, eta gehiagoren gosez geratzen da irakurlea. *Izarren hautsa* idatzi duenak badu niretzat leku bat gu guztiok garen hauts horren gunerik bigunenean. Kontra egiteko gogo sartzen zaio irakurleari zenbaitetan bere kantuei buruz ari denean. *Teologia ideologia* ez omen zaio bete-betea iruditzen gaur. Zer jakingo du ba kantariak bere obraz... Kantu batzuk ez omen ditu sartu, eta bat edo beste gogoratuta, amorruek harrapatzen zaitu baitzpada. Izan ere, haiexek dituzu lotuen une goxo edo argiekin.

Baina kontua da Letek ere frantsesak ukitu dizkidala liburuaren azken partean –frantses kantariak erran nahi baita–: Jacques Brel eta konpainiaren kantu ezagunak ageri dira liburuan, modu hunkigarrian euskaratuta. Estimatu handitan ditut kantari frantsesak, eta Brel haien guztien gainetik. Hiru minutuko ipuinak idazten zituen bruselatarrak. Eta bidegabekeria deritzat Jacques Brel-en izena ez egotea ipuingintza-

DANI BLANCO



Inazio Mujika



Borda



Errro

ren orri urrezkoetan. Estiliza- zioaren jabe zen beste guztien gainetik. *Orly* kantua entzun eta Julio Cortázar ari zarela entzuten irudi luke. Aditzak asmatzen mutila zen, baita sentimenduak agertzen ere. Nago Jojo bere lagun hilari eskainitako kantua inoiz inork adiskidetasunari idatzitako kanturik ederrena dela: “*Six pieds sous terre, Jojo, tu frères enco- re*”.

Ez da Brel bakarra, bada tropela frantse- sen artean, hiru minutuko ipuinetan maisu- maistra agertzen direnak: Jean Ferrat, Léo Ferré, eta jakina Georges Brassens zaharra. Baina gutxiago aipatzen da nire guztizko Barbara. Ahots sendoko emakume gogorra. Gogoan ditut bere “Ipuin-bilduma”ko hiru “ipuin” entzun nituen ordua: *Joyeux Noël*, *Nantes* eta *L'aigle noir*. Ez zaizkit sekula burutik galdu.

Esango dit irakurleak aspaldiko kantuez eta kantugileez ari naizela hemen, eta badi- rela erruz izan ere gaur egun horien antzeko edo are kantari hobeak. Beharbada, berro- geien krisian bete-betean ni antzinako elur- ren xerka nenbilerarik, hala atera zait, baina Imanolen boz zur epelekoa bozgorailuetatik entzutean –aspaldi ez nuen Durangoko boz- gorailuetatik Imanolen boza entzuten, esan dut?–, antzinako elurren nostalgiak jo nau

bete-betea, eta, zer nahi duzue, begiak bete zaizkit.

Ez dakit zerk egiten duen kantu bat eder. Ez dakit poeta ona izatea nahikoa den kantagile ona izateko. Angel eta Itxaro, nire tta- kunkideak, poetak direnez, gustura egingo nieke galdera, jakinik gainera Itxaro Borda dela hainbat euskal kantu eder ezagunen egilea. Poesia da kantua? Ipuina da? Edo biak batera? Zerga- tik sartzen zaigu barnago poesia arrunta baino. Musi- ka egokiaren laguntza hutsa da guztiaren gakoa? ■

Ez dakit poeta ona izatea nahikoa den kantagile ona izateko. Angel eta Itxaro, nire ttakunkideak, poetak direnez, gustura egingo nieke galdera, jakinik gainera Itxaro Borda dela hainbat euskal kantu eder ezagunen egilea.

Poesia da kantua? Ipuina da?

Edo biak batera?

## Zergatik egin behar dute gazteek euskaraz?

**A**zken hamarkadetan euskararen ezagutzak gora, baina, haren erabilerak maila bereko hazkunderik ez duela izan errepikatzen da askotan. Alabaina, hazkundera, hein handi batean, adin tarterik gazteenetatik egin den ekarpenari esker gertatu dela oso kontuan hartu beharko genukeela iruditzen zait, baita gure hizkuntzak eutsi ezinean edo gainbehera segitzen duen lurraldeetan ere. Horiek horrela, erabilera areagotzeaz dihardugunean belaunaldirik gazteenetan eragin beharraz ari gara, batez ere.

Halaber, bukatu berri den Durangoko Azokaren inguruabarrean euskaraz dakien hiztun-elkartea etengabe haziz doan arren, euskaraz ekoitzitako askotariko kultur produktuen kontsumoak nolabaiteko geldialdia nozitzen duela azpimarratzen duenik badago egon bazterretan. Beraz, belaunaldirik euskaldunenak gazteen multzoak osatzen duela azpimarratu dugularik, adin tarte horretan eragin beharko genuke, nonbait, kultur produktuen kontsumoan ere eragitea nahi bada. Eta hari berari tiraka antzeko beste hamaika kontu!

Euskararen indarberritzea lortzeko xedez jarduera askoren jomugan jarri ditugu, beraz, gazteak. Haien artean euskaraz hitz egiteko zailtasunak dituztela-eta gazte hizkeraz ere jarduten dugu helduok, sarritan gazteen artean interesik ez duten askotariko baliabideak sortuz eta hedatzen ahalegin-  
duz, bidenabar. Gure begiekin, baloreekin epaitzen dugu haien jarduna. Baina, gure kezka zein epai horiek geureak ez besterik direla noiz ohartuko gara?

Euskararen indarberritze horren subjektu beharrean objektu bihurtu ditugu, beraz, gazteak. Izan ere, azaleratu nahi ez dugun oinarriko kezka batek jaten digu barrua. Euskararen jabe diren gazteek euskaraz



NIGO AZKONA

bizi nahi ote dute? Eta halako apusturik egina balute, horretarako heldulekuak ote dituzte? Izan ere, haien guraso gehienek euskararik ez dakitela edota euskaraz jakin arren, haien artean, gazteleraz edo frantsesez lasai antzean eta eroso ari direla, haien seme-alabak euskararen eta euskarazko irakaskuntzan matrikulatu dituzte, hori egia da, beraz, iduri luke haien gurasoek egin dutela, askotariko arrazoiengatik, euskararen aldeko ustezko apustua, baina, gazteek? Eta gurasoen ustezko apustu hori nahikoa al da?

Ikasgeletan euskaraz, baina, hortik aterata bezain pronto mundu oso bat erdaraz dutela bizi direla, zergatik eta zertarako egin gutxi batzuek dakiten eta erabilera eremu urriak dituen hizkuntza batean? Izan ere, etxeko, lagunarteko, auzoko eta kaleko hizkuntza, eguneroko jardunean gazteek nagusiki edo soil-soilik darabiltenak faltan sumatzen dute gazteek, euskaraz jardun dezaten zuzenean edo zeharka barreiatutako sermoiak bainoago. Inguaruabar horretan sakonduz, gizartearen erabateko gehiengoak gazteleraz eroso eta inolako trabarik gabe jarduten duenean, gure hizkuntzarekiko hil edo biziko erronka belaunaldi berrien esku hein handi batean utzita daukagunean, nola eskatu gainerakoei gu egiteko prest ez gauden esfortzua?

Gizarteak arian-arian berritu eta landu egin behar du euskaraz bizitzearen aldeko konpromisoa, haren indarberritzearen aldeko langintza, izatekotan, kolektiboa baita. Ezen, euskarak gu guztion premia baitu, egungo gizarteetan gutxiengo diren gazteena zein helduena, alferrik da, bestela. Baina, horretarako, egungo gizarteak, bestelako erreferentziei are irekiago azaltzen den gizataldeak, galdera bati erantzun beharko lioke ahalik eta azkarren, nire ustez. Euskararen normalakuntza, itxurakerietatik haratago, benetan nahi, bilatu gura dugu? Sinesen dugu horretan? Zergatik? Zertarako? Eta baiezkoa bada gure erantzuna, zein da, lagun hurkoaren bizkar norberarena ere den erantzukizuna utzi gabe, espazioak bete daitezten, bakoitzak dezakeen horretatik egiteko prest dagoen ahalegina? ■

Ikasgeletan euskaraz, baina, hortik aterata bezain pronto mundu oso bat erdaraz dutela bizi direla, zergatik eta zertarako egin gutxi batzuek dakiten eta erabilera eremu urriak dituen hizkuntza batean?



Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

## Martineta

**M**artineta ibaietako hegaztia da, martin arrantzale izenez ere ezaguna. Euskal Herriko txoririk koloretsu eta politenakoa da erlejalearekin (abejaruco) eta urretxoriarekin (oropéndola) batera.

Eta, zorionez, gure ibaietan dabil berriro ere arrainek gure ibaiak biziberritu dituztelako. Aurreko artikuluan batean Anuntxi Aranek ironiaz galdetzen zuen inork ikusi al duen lertxunik lertsun baten azpian. Lertxun hori zurzuriaren familiako zuhaitz mota bat da eta zuhaitzetan pausatzen ez omen den lertsuna hegazti bat, kurrilo izenez ere ezaguna. Baina, gartzari ere lertxuna esaten zaio eta hau bai pausatzen dela ibai ondoko haltza, zume, sahats eta zurzurietan. Ez dakit lertxunik baden Ori ibaiaren ertzetan.

Gure ibaiak, esan bezala, biziberritzen ari dira eta fauna aberatsa berreskuratzen. Eta niri harridura gehien sortzen eta itxaropena pizten didan hegaztia martineta da: txori moztaka eta pottoloa, mokoluzea eta isats motza, baina bizia eta izutia. Bere gainaldeko kolore urdin berdexkak metalizatua dirudi eta azpiko laranja horixkak kontrapuntu dotorea ezartzen dio. Lertxunarekin edo gartzarekin lehiatu behar du eta negu aldean ubarroiarekin ere bai, bere eguneroko ogia –barka, arraina–



DANI BLANCO

eskuratuko badu. Hala ere trebea da, arrainen zain pazientzia handiz egon ondoren, hauek harrapatzen eta irensten.

Hegazti txiki bezain harrigarri eta dotore hau ia galtzearekin egon zen Euskal Herrian, gure ibaiak aparrez, azidoz eta zikinkeriaz beteta joaten ziren garaian. Baina, orain berriro indarrez agertu da eta gure ibai bazterrak alaitu eta guri itxaropena piztu digu. Zergatik itxaropena piztu? Ia desagertuta egotetik bizi-bizi egotera pasatu delako eta bere kolore urdin-berdexka horrekin itxaropenaren kolorea adierazten digulako.

Hegazti herabe eta ahul itxurako hori horrela berpiztu baldin bada, gure Euskal Herria ez al da indar handiagoz berpiztuko eta munduko herrialde zapalduen artean ez al du itxaropena eta solidaritatea piztuko?

Martinetak itxaron egiten du abagune egokia tokatu arte, zain egoten da gorputz osoa eta begiak erne jarrita, toki batean egokierarik ez bazaio suertatzen beste batera joaten da aukera berri baten bila... baina hori dena isilik egiten du, bizkor eta tentuz hegan eginez, inor konturatu gabe. Horregatik da zaila martineta ikusten, zuhurtasuna eta diskrezioa handiz ibiltzen delako.

Euskaldunok ere kapaz izango ote gara abagune hau aprobetxatzeko eta martineta zuhurtziarekin eta diskrezioarekin jokatzeko? ■

« Zaila da martineta ikusten, diskrezio handiz ibiltzen delako.

Euskaldunok ere kapaz izango ote gara abagune hau aprobetxatzeko eta martineta zuhurtziarekin jokatzeko? »

TXANDAN  
Andoni Mujika



Alderdi politiko-en panoramari begiratuta, ezkerrearen hiru-lau bertsio txo baino

## Euskal ezkerrearen tarareoa

ez dugu Euskal Herrian. Proposamen interesgarri gutxitxo azaltzen dute guztiek ere, doinu eta jario *pegadizoegiak*. Igan-deetako musika-banden uniforme-kolorea darie, eta susmoa daukat, horietako bakar batek ere ez duela berezko partiturarik, ez duela euretako inork ezer konposatu azken hamarkadatan. Kanpoko beste musikari batzuen interprete baino ez dira izan. Ezkerreko *berbenero* politiko eta *prebisibleak*.

Euskal Herriko ezkerrek, azken –ez dakit zenbat– urtetan ez du ezer propiorik sortu, herritarren inspirazio

izan den doinurik ez behintzat. “Ezker” labela, logoa eta marka agerraldi zein etiketa guztietan jaso izan da, ahaztu gabe, baina ekarpen interesgarririk ez. “Euskal ezkerre”, “zibil eta zabal”, “ezker abertzalea”, “maiatzaren bata”, “osakidetzako azterketak”... letra ezagunegiak dira gogoz kantatzeko.

Jardun *esloganistetatik* formulazio berritzaileetara pasatu ko al gara? Betikoak errepikatzen geurea ausardiaz asma-tu eta jotzera? Horra hor aukera ederra bertsio-jole estandarizatutik konposatzaile izatera salto egiteko! Bada garaia ezkerreko partiturak berritzeko. ■



Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

## Aldaketa klimatikoa, zor ekologikoa eta AHT

**A**frikan bildu dira aurten munduko gobernuak aldaketa klimatikoaren politikak adosteko. Duela ia 25 urte bertan, Nairobi (Kenya), Brundtland izeneko batzordeak garapena eta ingurugiroaren izenean politika berriak diseinatzeko enkargua hartu zuen eta "garapen iraunkorraren" bataio ofiziala eman zuten. 2006an fruituak apalagoak izan dira eta 2012tik haratago hartu behar diren konpromisoak airean gelditu dira, data, kopuru eta akordio zehatzik gabe.

Aldaketa klimatikoaren eraginak bistakoak dira. Cambridgeko N. Stern, Blairen aholkulariak egin-dako txostenaren arabera kalte ekonomikoak II. Mundu Gerrakoeekin konpara daitezke, baina herrialde aberastuen gobernariak bestaldera begira jarraitzen dute. Inork ez du hazkunde ekonomikoa kolokan ipini nahi, eta duela hamar-kada bat baino lehenagotik predikatzten duten hazkunde ekonomikoa eta galera ekologikoen arteko banaketa ez da inondik ikusten. Aitzitik CO<sub>2</sub>ko isurketak BPGren gaintetik hazi dira, Espainian edo EAEn kasu.

Eta hazkunde horrek Afrika eta beste herrialde pobretuekiko zor ekologikoa handitzen du. Eguratsa guztiona bada, ezin dugu erabili gurea bakarrik balitz bezala. Horrek zor ekologiko erraldoi bat sortzen digu. Karbonoaren isurketengatik eta baita ere biopirateria,



IÑIGO AZKONA

hots, herri indigena eta nekazal komunitateen ezagutza genetiko eta medikuntza erremedio tradizionaletatik egiten ari den desjabetze eta pribatizatzeagatik, edota gure jarduera ekonomikoekin euren ekosistemetan uzten ditugun kalte ekologikoengatik eta azkenik hondakin toxiko eta arriskutsuen esportazioagatik. Lau zutabe nagusi hauek sartzen dira gaur egun zor ekologikoaren baitan. Kalkulu arrunt batean, batez besteko prezioak erabiliz, urtero pilatutako 3.000 milioi CO<sub>2</sub> tona bider 20 dolar, urteko 60 mila milioi dolar zor diegu herrialde txiroei atmosferaren gehiegizko erabilpenagatik. Kanpo zorra baino askoz gehiago.

Zor hori ez da hain erraz kitatzen, eta ondo deritzogu Eusko Jaurlaritzak Wangari Mathai Kenyako Nobel Sariaren Fundazioari 36.000 zuhaitzen landaketarekin lagundu nahi izatea, baina hori ezin da erabili Gasteizko gobernuaren ardura klimatikoa gutxiagotzeko. Ez da zilegi. *Enskal* Yren propaganda ofizialean iruzurra egiten den moduan, egunean errepidetatik 1.000 kamioi aterako dituztela diotenean. Jadanik 11.000 dabilta eta euren kalkuluen arabera obrak bukatu baino lehen 16.000 izango baitira. Non dago isurketen murrizketa? AHTk aldaketa klimatikoa larrituko du eta gure zor ekologikoa ere. ■

Ondo deritzogu Eusko Jaurlaritzak

Wangari Mathai Kenyako Nobel

Sariaren Fundazioari 36.000

zuhaitzen landaketarekin lagundu

nahi izatea, baina hori ezin da erabili

duen ardura klimatikoa gutxiagotzeko

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Inguratzen ninduten, ordura arte bestela urrunegi nuen mundura. Violeta Parra. Burgosko

Epaiketaren ondorena zen. Eta Txileko Mone-da Palazioaren aurkako kanoikadek hurbildu ninduten hara, Salvador Allenderen irudia, betaurrekoak, bibotea, kaskoa eta zintzilikatutako metraileta ditut gogoan, eta haren bakardadea artegatasun. Kantagile bat asesinatua eta bere kantu bakarra bilakatu zitzaigun erresistentziaren ikur. Geroztikakoak dira Nerudak idatzitako Los Cachalquisen *Muerte y fulgor de Joaquín Murieta* obra, zientoka aldiz entzuna eta beste hainbatetan kantatua. Urte gutxira izan

## Kantuek

nuen aukera txiletar errefuxiatuak ezagutzeko. MIREkoak gehienak eta egiari zor, nahiago ditut kantuek haien eztabaida erosoak baino. Eta hauen artean Xabier Letek Beatriz Allenderi egina aipatu behar: "Nahiko hunan, Beatriz, Txile libre batean, adiskide artean..." hori. Txileko gizartean hitzak nola ez zuen bide egin gure artean, horretarako porrot sozial baten palanka beharrezkoa bailuen, bestela hain ongi egituratuta dagoen zergatik ez duen kantu afarietako errepertorioan lekurik egin ulertzen ez dudala. Agian, Amandaren oroitzapenezkoak legez, kantatzeko baino entzuteko nahiago dugu. Hedabideen esku gaudenaren froga. ■

Andoni Egoña

BERTSOLARIA

## Txerria hil da

**A**zaroa kantuan eman dut. Agendari errepassoa egiten hasi eta dagoenak baino falta denak eman dit atentzioa. Gizartea aldatzen ari da arras. Hilabete osoa kantuan pasa dut, San Martinak barne, eta ez dut txerri-hiltzeari buruzko bertso bakar bat ere bota. Eta ez zait egokitu lagunei entzutea ere. Duela hamabost-hogei urte, azaroko gai izarra izaten zen txerri-hiltzearena. Txerri izatea tokatuko zitzaizun bizpahiru aldiz; matarifea izango zinen hurrena; gibela frijitzen ari zen emakumea bestela; edo puskak banatu behar zituen baserritarra... Telebistarako propio grabatu genuen lehen saioan ere, Imanol Lazkano eta biok txerri-hiltzearen irudi batzuen gainean aritu ginen duela hogeitau urte. Antropologia edo etnografia ikasketak egiten ari denak, bertsoetan altxorra du gizartearen nondik norakoen berri jakiteko. Kantatzen duguna ez baita hain interesgarria, kantatzen ez duguna aldiz, bai.

## Lurrean

Oinak lurrean ditugula bizitzeko zoria dugu bertsolariok. Bertso-bazkari eta a f a r i e t a n batipat, ingurukoa oro oso gertutik ezagutzeko parada izaten dugu.

Odol-bero ospea dugu euskaldunok, eta zurruteroena. Gertatu izan zaigu noizbait bertsoetan ari garela mahaiko gazte-txoren bat presaka jaiki eta, denen bistan, txahala egiten ikusteak. Duela gutxi ordea, lehen aldiz, mahaikide genituen bi, muturtu eta muturrekoka hasi ziren, mahaiaren jiran lehenik eta jangelatik irten eta kanpoan gero. Tartean sartu ziren lagunak beste biak baketze aldera. Kaltea, guretzakoa bederen,




DANI BLANCO

egina zegoen ordea. Has zaitez han kantuan! Zer esan behar duzu, Jainkoa ona dela? Giro bero-beroa dagoela? Begi-bistakoa kantatzetik abiatzea hobe izaten da aukeran. "Borrokak" da errimakeran oso ongi funtzionatzen duen hitz bat gainera. Arlo semantiko bereko beste hainbat hitz badira ia berez diskurtsoa osatzera zaramatzatenak: borborka, erronka, mokoka...

## Mi mi sol mi mi

Musikariekin ere aritu gara bertsoetan azarotan. Txistulariekin, Xabier Muñoz egindako omenaldian, Donostian. Eta Erandion, Doctor Deseo taldeko gitarrak jole den Aitor Agiriarenekin, Bertso Tranpak ikuskitzunean. Bi musika-tresna desberdin eta bi estilo diferente. Eta haiekin gu, beti-berdinak. Zail egiten da ahozko inprobisazioa eta musika uztartzen, biatako bat zinez inprobisazio delarik. Bertsolariotzat konpasa da, umetan marrazki borobilak egiteko erabiltzen genuen tresna hura. Hortik aurrera deus gutxi. Noiz hasi, noiz ekin, buruak agintzen digu eta ez bat, bi, hiru, lauak. Horregatik diote musikariek, elkarrekin goazelarik, ez datozela gu laguntzera, gu "persegitzera" baizik. Halere, badira musikarekin oso ongi konpontzen diren bertsolariak. Musikarekin uztartzean "hazi" egiten dira eta euren testuak ahots soilez emanak baino hobeak ere izan daitezke. Aurreikusten dut, urte gutxi barru Txapelketako bakar-kako lanean bertsolari bat propio eramandako bere gitarra-jolearekin, bestea bere piano-jolearekin, hirugarrena bere perkusionista hartuta...

Aurreikusten dut, urte gutxi barru  
Txapelketako bakar-kako lanean  
bertsolari bat propio eramandako  
bere gitarra-jolearekin, bestea bere  
piano-jolearekin, hirugarrena bere  
perkusionista hartuta...



irudiak:  
Antton Olariaga

## Beste txerria ere ez da ageri


Bertsogintzak aurrera egin duela uste dut. Baina ez orain doinu gehiago erabiltzen ditugulako, ez orain neurri-errimatan txukunagoak garelako, ezta orain doinu luzeagoetan aritzeko gaitasuna dugulako ere. Aurrera

«

Bertsogintzak aurrera egin du. Baina ez orain doinu gehiago erabiltzen ditugulako, ez orain neurri-errimatan txukunagoak garelako, ezta orain doinu luzeagoetan aritzeko gaitasuna dugulako ere. Aurrera egin du, duela hamabost bat urte izandako joerari ihes egiten asmatu duelako

»

egin du, duela hamabost bat urte izandako joerari ihes egiten asmatu duelako. Azaroan ez dut kantagai izan Julianmuñozik, Isabelpantojarik, edo Seseñako Pozerorik. Bisbal, Lecquio, Jesulin, Esperanza Aguirre, Soyaya... ezagutzen ditugu baina urrun geratu zaizkigu. Ez da seinale hoberik nola guretzat hala herri honentzat. Gero eta guregainagoak gara. Eta hori, deitalerik txikienetatik hasita lortzen da.




## Auzoko lagunak

1986an, Carmelo Baldatik Donostiako Belodromora jo genuen Bertsolari Txapelketaren finala jokatzera. Bi mila entzule pasatxotik ia zazpi milara egin genuen jauzi. Telebista izan zen bertan, zuzenean, lehen aldiz. Idatzizko hedabideek ere ordurarte ez bezalako garrantzia eman zioten bertsolaritzari. Baina gure hedaduraren egiazko neurriaz jabetzen ez ginen hasi pare bat urte pasa arte. Negu Gorriak taldeak Peñagarikano eta bion bertsoak grabatu zituelarik, edozein gazte hurbiltzen zitzaigun, edozein parrandatan, “Batetikan korroska...” belarri ertzera kantatuz. Fermini eta konpainiari ez dakit inoiz behar bezala eskertu diegun bertsolaritzaren zabalkundearen ipinitako hondar alea. Ia hogeitaz urteren buruan, ama bat edo aita bat datorkidalarik, eskutik lau-bost urteko umetxoa duela, asmatzen hasi naiz zer-nolakoa izango den aurkezpena: “Hara, Kimetz, begira nor dagoen hemen! Zuk

ezagutzen duzu eh? Andoni da! Takolo, Pirritx eta Porrotxen laguna! Ea, Andoni... Esan rra!”. Auzoko lagunek eman digute daukagun itzalaren zati handi bat.

## Gogoetan

Ehun lagun bildu gara bi asteburutan Zarautzen, bertsolaritzaren nondik-norakoak gogoetagai hartuta. Duela hamabi urte elkartu ginen Azpeitiko Eloziagan gauza bereetsua egitera. Orduko hartan bertsolaritza hamar-hamabost urteren buruan zer izatea nahi genukeen irudikatzen aritu ginen. Eta eman



ditugun urratsak orduan adostutakoak izan dira gutxi-gehiago. Aurrera begira ez dakigu zer letorkeen. Ez dakigu euskarak ze osasun izango duen hamabost urte barru edo euskal kulturaren egoera zein izango den. Gureak kezkatzen gaitu, baina ez gureak bakarrik. Bertsolari eta bertsozale gara ez esaldiak 10/8 edo 7/6ko moldeetan eta errimaturik ematea eta entzutea gustuko dugulako soilik. Badugu herri honen eta herri honen kultura-

«

Kultur proiektu eraginkor baten gabeziak pikutara eramán gaitzake, gu, auzokoak eta baita herri hau ere. Dagokionak heldu ezean, norbaitek heldu beharko dio lanari. Ni ez naiz nor zure etxean sartzeko baina...

»

rekiko kezka eta erantzukizunik. Bidelagunak aurkitzen hasteko sasoian gaudela dirudi. Kultur proiektu eraginkor baten gabeziak pikutara eramán gaitzake, gu, auzokoak eta baita herri hau ere. Dagokionak heldu ezean, norbaitek heldu beharko dio lanari. Ni ez naiz nor zure etxean sartzeko baina... ■

Xabastian Lizaso

## Abenduari jarriak

### I

Ate joka ditugu  
Eguberri jaiak  
kaleetan argiak  
ta opari gaiak  
dirua xahutzeko  
nolako garaiak  
txiki egiten gaitu  
gure handi nahiak.



KARLOS CORBELLA

### IV

Hilaren hogeita bi  
nolako arreta  
berdina gehiengoak  
degun berriketa  
sakela hutsik baina  
ahoa beteta  
konforme osasuna  
badaukagu eta

### II

Haurrak eskatu edo  
norberak eskeini  
auzokoak badauka  
etxean komeni  
“egoa” harrotuaz  
ia edozeini.  
Hori hainbeste bada  
gutxiago ez ni.

### V

Gabon gaez etxea  
goxo ta epela  
ez pentsa guzietan  
gauza bera dela  
norbait falta denean  
askotan bezela  
jakin goxoak ere  
mikazten direla

### III

Hilaren erdirako  
hasiak kezkatzen  
loteria zergatik  
ez degu tentatzen  
zuzen ote gabiltzan  
zaila da asmatzen  
“pobre ez jarraitzeko”  
dirua gastatzen.

### VI

Hilak azkena omen  
ta urteak berdin  
ez digu utzi hainbat  
poz eta atsegin  
eta datorren hori  
hobeago dadin  
lehengo ametsak bete  
ta berriak egin.

DOINUA: “Laguna eskaiozu San Antoniori” edo “Triste bizi naiz eta”.

**Bertsolaritza**  
Bizkaiko Txapelketaren  
finala bertatik

□ *Ezpalak*  
□ *Argitalpenak*

□ *Denbora-pasak*  
□ *Makina bat kontu*

Thesi  
Bilboko txoko  
ezkutuak

ARGIA

# erdiko kaiera

kultura eta aisia

## Ironiaz kargatutako etorkizunaren ipuinlaria

### Iban Zaldúa

Iban Zaldúa (Donostia, 1966) Gasteizen bizi da. Historia irakaslea da bertan, EHUUn. Euskadi Literatura saria jaso du oraindik orain *Etorkizuna* (Alberdania) ipuin liburuari esker: "Liburuek badaukate alderdi pribatu bat. Egilearenak dira portzentaje esanguratsu batean, baina aldi berean badira nolabait lan kolektibo baten emaitza: idazlearen adiskideen, ingurukoen eta are irakurleen ekarpenak jasotzen dituzte. Euskadi sarien banaketa ekitaldian, jende horri guztiari eman nizkion eskerrak", adierazi digu Zaldúak. Saria iragana izaki, etorkizuneko proiektuez galdetu diogu: "Asko daukat esku artean, hobeto esanda, burmuinaren barruan: gehienak ez dira inoiz gauzatuko, onenak batez ere. Eta ipuinak idazten jarraitzen dut, eta hain txarrak iruditzen ez zaizkidanak karpeta batean metatzen. Eta horietako batzuetatik liburu bat sortuko da inoiz". Artean, ez geroaz ez iraganaz, baizik "geroko iragana" girotu ei duten Iban Zaldúa idazlearen ipuingintzaz aritu gara.

MIKEL ASURMENDI  
Argazkiak: Iñigo Azkona



## «Kapitalismoak ohitu gaitu etorkizunean pentsatzen»

“Ipuinek ez didate laguntzen errealitatearekin hobeto konpontzen” esan duzu inoiz. Euskadi Literatura saria jasotzeak lagundu al dizu errealitatearekin konpontzen?

Ez bereziki. Poza da saria jasotzea, noski, baina ez da komenigarria gaiaren garrantzia exageratzea, alde horretatik: ez nuke esango sariak aldatu duenik, funtsean, munduarekin dudan harremana. Eta nire idazteko bulkadetako bat hori den arren, inguratzen nauen mundua ulertzea, hobeto ordenatzea alegia, asmo horrek beti egiten du porrot ipuina amaitutakoan... eta horrek, zorionez edo zoritxarrez, beste ipuin batera eramango nau lehenago edo beranduago: lortuko banu, idazteari utziko nioke, ziurrenik. Uste dut Paul Austerrek esan zuela idazteak ez zuela munduarekin hobeto konpontzera eramaten,

baina idatziko ez balu okerrago izango litzatekeela.

Azaldu diezaguzu ipuinarekiko zure harremana. Ipuinarekiko daukadan joerak, alde batetik, nire irakurle-biografiarekin zerikusia duela esango nuke: narrazio-irakurle amorratua izan naiz nerabegarotik, zientzia-fikziozko edo terrorezko literatura barra-barra irensten nuenetik, ipuinera oso emanak diren ildoak baitira; oraindik ere ipuin asko irakurtzen ditut, eleberririk baino gehiago nik uste. Eta sumatzen dut, bestetik, baduela harremanik nire genetikarekin: ez naiz pazientzia handiko gizona, eta, emaitzaren bat-batekotasunaren ikuspuntutik, ipuingintza da, agian, nire izaerarekin hobekien bat egiten duen generoa; Karlos Linazasorori antzeko azalpen bat entzun nion behin,

testu batekin ezin zuela lan egin hilabete batekin gora-edo, eta, denbora-horizonte horrekin nekez egin daitezkeela, esaterako, seihun orrialdetako nobelatzarrak.

**Etorkizuna** liburua hizpide. Zer da etorkizuna zuretzat, eta zer da liburu honetan zehazki?

Etorkizuna kapitalismoaren asmakuntza arrakastatsuenetako bat da. Kapitalismoa nagusi izan aurretik esan daiteke apenas existitzen zela etorkizuna: hurrengo hilabeteak eta urteak, jende gehienarentzat, aurrekoak bezalakoak izango ziren, eta amaieran zerua ala infernua besterik ez zegoen, ez zen zantzua handirik beraz. Kapitalismoak ohitu gaitu etorkizunean pentsatzen, eta ziurgabetasunaz bete du etorkizun hori: enpresak mozkin gehiago irabaziko duen ala ez, langileak enplegua izango duen ala ez, krisia ala hazkundea edukiko dugun... Izan ere, batzuentzat, ideia horrekin lotuta, zientzia-fikzioa litzateke kapitalismoaren azpigenero literario propio eta berezkoa. Etorkizunak gure bizitzetan daukan garrantziaren inguruko hausnarketa batetik sortzen dira, hortaz, liburu honetako ipuin asko.

Bada geroa eta etorkizuna bereizten dituenik, eta liburu honen iruzkinetan berau "geroko iragana" gisa interpretatu duenik. Ados al zaude "geroko iraganaz" ari zarela esatearekin?

Ez dakit ados nagoen ala ez. Kontua da etorkizuna beti dagoela iraganean eta orainean oinarrituta: aukera izugarri ugari betea aurkezten zaigu maiz, baina ate gehienak iraganak itxi dizkigula ezkututzen zaigu. Azken batean, paradoxa moduko horretan oinarritzen dira liburuko ipuin batzuk: etorkizunaz ari direla ematen du, baina inportanteagoa da haietan iragana; iraganera itzuli behar dugu etorkizuna aldatzeko aukeraren bat edukitzeko. Horregatik ipini nuen Félix de Azúaren aipu hori liburuaren atarian: "Urteen poderioz sakonen aldatzen dena ez da oraina ezta etorkizuna ere, iragana baizik".

**Hamabost ipuin ia politiko** da liburuen azpititulua. Adierazgarria da "ia politiko" hori.

Beno, dena da politiko gure bizitzan; bizitza sozialean, kulturean, literarioan, eta baita pribatuan ere: gure umeak eskola jakin batera edo beste batera era-

## Lan konpaktua

"Liburu hau ere bilduma den arren, esango nuke giroen eta gaien arteko batasuna handiagoa dela aurrekoetan baino, ipuinen arteko loturak nabarmenagoak direla eta, ondorioz, lan konpaktuago bat atera zaidala".

matea erabakitzen dugunean, edo etxeko lanak senitarteen artean banatu ordez langile bat kontratatzea erabakitzen dugunean, hautu politikoak egiten ari gara. Baina, bestalde, literatura argiki politikoak, konprometua egitea oso zaila da: idazle benetan ona izan beharra dago panfletoan eta, ondorioz, literatura txarrean ez erortzeko, arriskua oso handia baita. Claudio Magrisek zioen "literaturak ez duela helburu moralik, errealitate irudikatu behar duela eta ezin duela funtzio morala izan". Baina gehitzen zuen literaturaren garrantzia, ahal duela, zeharka, atmosfera bat sortzean datzala, zeinak erraz baitezake justizia zer den ulertzea. Uste dut zeharka aritzea, eta, batez ere, azkeneko erabakia irakurleari uztea, inportantea dela literatura gutxi gorabehera politikoak egin nahi denean. Eta horregatik guztiarengatik ipini nion "ia" hori azpitoluari.

Zure literaturan galderak planteatzen dituzu. Ados al zaude?

Helburu bezala, bai; ez dakit galdera zuzenak planteatzen ditudan, ordea: hori irakurleak erabaki beharko du. Argi daukadana da erantzun argiegiak eta unibokoak ematen dituen literatura ez dela izaten, gehienetan, literatura ona.



**Mikel Urdangarin**

abenduak 22 ostirala - 22:30  
Kafe Antzokia **Ondarroa**

abenduak 29 ostirala - 22:00  
Kafe Antzokia **Bilbo**

Aurresalmenta: 8,00  
Txarteldegian: 10,00  
Zenbat Gararen  
Lagunak: 5,00  
(Kafe Antzokia eta Zurrumurru Ondarroan)

zenbat gara elkartea

BI-96.0-FM  
Bilbo-Hiria Irratia

Lehen ipuinaren izenburua *Sofarena* da. Bikoteak dira nagusiki protagonistak, familia harremanak ere funts handia dauka.

Idazleak bi elikagai nagusi ditu, jakina denez: irakurtzen duena eta bizi duena. Beraz, normala da familiaren ingurukoak maiz agertzea, hori izan baita nire bizitzaren oinarrietako bat azkeneko urteotan. Alde horretatik, damu dut, ez dut uste idazle sobera originala naizenik.

Azken ipuinak, *Etorkizuna*, ematen dio izenburua liburuari. *Etorkizuna* horrela imajinatuta, ikaragarria da, ezta? Iritsi ote gaitzke, horrelako giza harremanak ezagutzera? *Etorkizuna* beti izango da imajinatzerara hel gaitzkeena baino ikaragarriagoa. Iraganera eta orainera begirada bat ematea besterik ez dugu horretaz konturatzeko.

Bilduman tradizioari keinuak eta aldi berean egunekoaren errealitatea agertzen dira *—Loti ederraren historia ekonomikoa tarte—*, ORAINA letra larriz ageri da. Ados?

Ados, tradizioa zer den aurretik adostu ezkeror. Egia da narrazio horretan ipuin tradizional batez baliatzen naizela, neurri batean ipuin horretaz trufatzeko gainera. Baina ez dut uste nire ipuingintza bereziki lotuta dagoenik tradizio jakin horrekin, baizik eta XIX. mendetik aurrera garatzen den idatzizko ipuingintzarekin, hots, Poe, Hawthorne, Hoffmann, Maupassant eta enparauengandik sortzen denarekin. Juan Garziari behin baino gehiagotan entzun diot ipuingintza modernoarentzat zoritxarra izan dela izendapena konpartitzea ipuin tradizionalarekin edo haurrentzako ipuinarekin, horrekin dagoela lotuta, agian, ipuingintzaren estimazio eskasa.

Zer-nolako eragina du gure literaturak —eta literaturak orokorrean— zure ipuingintzan?

Handia: idazten dugunaren bigarren iturria irakurtzen duguna da. Bigarrena, edo lehengo, egia esateko. Gure literaturari dago-kionean, eta labur aritzeko, Atxaga, Montoia, Garzia, Linazasoro eta Lizarralde aipatuko nizekizuke, batez ere. Kanpokoetatik zerrenda luzexegoa izango litzateke, baina hona izen batzuk: Borges, Cortázar, Calvino, Txekhov, Carver, Wolff, Aldecoa, Dick... ez naiz oso originala, badakit. Eta azken urteotan irakurri ditudan ipuingileen artean, biziki



interesgarriak iruditu zaizkit, esaterako, Kjell Askildsen norvegiarra, Jhumpa Lahiri estatu-batuarra eta Alejandro Dolina argentinarra, kanpokoan artean; eta Eider Rodriguez eta Uxue Apaolaza, hemengoan artean.

Norentzat idazten duzu?

Argi daukadan gauza ia bakarra da ez dudala niretzat idazten, ez nagusiki behintzat: besteentzat idazten dut. Beste horiek nortzuk diren, ordea, ez daukat horren argi. Uste dut anbiziotsuak izan behar dugula eta gure garaikide guztientzat idatzi, edo gure garaikide guztientzat idazten ariko bagina bezala behintzat, are gurea bezalako hizkuntza txiki batean ari garelarik ere, agonismoaren zamari ihes egiteko alegia. Baina, tira, gero badakigu zer dagoen.

Gure bizitza —edo errealitatea— kasualitatearen menpe edo ondorio ote da?

Literaturak, eta batik bat narratibak, asko galduko lukete kasualitatea existituko ez balitz: kontakizunaren mekanismoei eragiteko tresna paregabe bat gabe geratuko ginateke.

Ironia, halaber, berebiziko bitartekoa duzu.

Niretzat errealitatea desmuntatzeko lanabesetako bat da ironia. Egungo mundua hain da terriblea, hain dago etengabe onartzen ditugun gezurrez josita, ezen niretzat begirada ironiko hori ia ezinbestekoa baita. Ez ipuin guztietan, baina bai askotan. Egia da ironiaren erabilerekin kontuz ibili behar dela, tragedia edo epika ez bezala bigarren mailako baliabidea delako, beste zerbait handiagoan oinarritzen delako beti ironia; Adam Zagajewski poeta poloniarrek aditzera ematen duen bezala, “horman oso arrakala probetxugarriak irekitzen ditu ironiak, baina ez balego hormarik ezereza zulatu beharko luke”. Eta arrazoia dauka, apika. Baina kontua da nik horma hor ikusten dudala beti, ez dut oso hurbil sumatzen hormaren desageretzea, eta, ondorioz, bertan arrakalak egiteko pizgarria izaten jarraitzen dudala. Oraingoz behintzat.

Molestatzen al dizu, esaterako, etorkizunean ea eleberririk idatziko ote duzun galdetzeak?

Ez, ez nau molestutzen. Baina, era berean, lasaitasun osoz erantzungo dizut ziurrenik ez dela egongo etorkizunean nobela mar-dulik. Eta ausentzia horrek ez nauela gehiegi kezkatzen. ■

## Karpeta

“Ipuinak idazten jarraitzen dut, eta hain txarrak iruditzen ez zaizkidanak karpeta batean metatzen. Oraindik ez dut hurrengo liburua irudikatzen, beraz, ipuinak besterik ez dira. Edonola ere, karpeta horrek emozionatzen nau egun”.





## “Buruz-buruko momentua ezin da entrenatu”

Elkarrekin prestatu dute txapelketa, eta elkarrekin eman zioten bukaera finalari. Hiru punturen aldeaz, Xabier Payak (842,5 puntu) jantzi zuen txapela Euskaldunan korrika saio bat egin ostean. Etxahun Lekue (839,5 puntu) izan zen bigarren, eta Iratxe Ibarra, Arkaitz Estiballes, Onintza Enbeita, Fredi Paya, Ibon Ajuria eta Igor Muniategirekin batera, entzuleak gustura uzteko moduko saioa osatu zuten. Saio ostean, oraindik bero zeuden entzuleen aulkitik erantzun zituzten gure galderak

Biak ere aurreko Bizkaiko finalean aritu zireten. Saioaren arduran nabaritu duzue alderik iaiztik aurtengora?

**Xabier Paya.** Bai, dudarik gabe, aurtengoan ardura sekulakoa izan dugu. Aurreko finalean kantatzeko aukera izan nuen, eta orduan gauza oso erraza zen alde batetik, Igor Elortza eta Unai Iturriaga hor zeuden, eta hortik aurrera norberak egiten zuena zezakeen onena izango zen. Baina aurtan ez zegoen

### ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkia: Niko Moreno

aukera hori, guk jarri behar izan dugu eurek jartzen zutena. Eta nahiz eta txapela nik dudan, nire kideek ere oso lan ona egin dute eta oso final polita izan da.

**Etxahun Lekue.** Onena izan da ardura hori ez dutela bik edo hiruk hartu, zortzirok oso jarrera onaz etorri gara finalera, oso kontzientziatuta final on bat egin behar genuenaz, eta horrek ekarri du elkarri lagundu diogula saio on bat egiten.

Nola bizi izan duzue finalaren hasierako zatia eta buruz-buruko fasea? Buruz-burukoan norbera hazi egin da edo behera egin du?

**Xabier Paya.** Lehen zatian Fredirekin gustura aritu naiz eta horrek indarra eman dit. Saioan zehar gustura aritu naiz eta Iñaki de Juanaren amaren paperean kantatu dudanean, gaia oso barrura heldu zait eta oso gustura amaitu dut. Aurreko finalean oso deseroso aritu nintzen, eta aurtengoan alderantziz.

Atsedendian kanpora irten garenean besteek esan didate buruz-burukorako bat ni izango nintzela. Sinisten nuen pasa nintekeela, baina buruz-burukorako nire izena entzun, eta jada arraroa zen dena. Momentu hori ezin da entrenatu, eta buruz-burukoan denbora ematen du gaia entzun eta ariketa batean aldarreak gora eta hurrengoan behera egiteko.

**Etxahun Lekue.** Ni saioaren lehen zatian marabila handirik egin barik baina gustura sentitu naiz. Bakarkakoan ez naiz batere gustura geratu, ez naiz gaien lar zentratu... Kanpora irtetean Xabi Payari esan diot bat bera izango zela dudarik gabe, eta bigarrena askoren artean ikusten genuen. Nik neuk ez dut ikusi izan neure burua buruz-burukorako.

Nire izena entzun dudanean blokeatuta geratu naiz, eta pentsatzen dut ni blokeatuta geratzeaz gain, Euskalduna guztia konturatu dela blokeatuta egon naizela. Zortziko txikiko lehenengo bertso hori grabazio guztietatik borrazeko modukoa da. Gero bronkatxoa bota diot neure buruari, "horzanduean egin egin behar dozu eta benga, animo". Maiñontzi doinuano sano gustura aritu naiz eta kartzelako beharrenean ere bai. Arraroa bada, Payak dioen modura. Gu orain arte ohituta egon gara geuretxoa egin eta disfrutatzen, aurreko finalean Iturriaga eta Elortzaren buruz-burukoak itzelak izan dira, eta orain hori aldatu da. Baina beno, onerako izan dadila!

## Txapela amari

"Jakingo bazenu zenbat urre pasa ditudan pentsatuz, nik egunen batean irabaziko dut zerbait eta amari kantatuko diot, erderaz. Ni itzultzailea naiz lanbidez, eta orain etxera joan eta zer egin beharko dut? *Pues en el primer bertso, ama, he dicho esto, y Fredi me ha respondido tal y le he dicho...* Nahiz eta berak askotan esaten duen ulertzen gaituela. Badakit agian norbaitentzat itsusia izango dela, bertsotan erderaz egitea, baina hori txapel-dunaren ohorean hartu dudak kapritxo txiki bat izan da. *Aspaldiko urtetako ametsa bete dut*".

## Agurra

Bost izen bota nahi dodaz merezi daben neurriari maisu handi Amuriza eta Lopategi, biba Trino ta Joseba Santxo epaile onenak dira boskarrena ulertu barik hor egongo da begira:

*Tu no nos diste el euskera pero nos diste la vida nos llevaste a la ikastola aprendimos enseguida ya es hora de que entiendas el canto que nos motiva esta txapela es tuya ai nire amatu querida.*

Txapelketa honek zer eman dio zuen bertsogintzari?

**Xabier Paya.** Txapelketa honetara arte sekula ez dut erabili "damosta" errima, eta horrek bi gauza laburbiltzen ditu: batetik, bizkaierarako saltoa aurten egin dut eta hori salto handia da ni natorren bidetik. Bestetik, "damosta" errima neurri luzean erabiltzeak badu bere zailtasuna, eta kontziente nintzen hona iritsita dena eman beharra zegoela, bederatzikoa ere laburra izan zitekeela. Lanketa berezia egin dut, eta nahiz eta horrelako txapelketetan esperientzia handirik ez dudak, konturatzen naiz fruituak hemen-dik aurrerako plazetan jasotzen direla. Txapelketan atera ez zaizkigun mila errima, mila ideia eta beste mila kontu orain aterako dira.

**Etxahun Lekue.** Batera entrenatu gara bi urtez Arkaitz Estiballes, Fredi Paya eta gu biok, iaz hasi ginelako Euskal Herriko Txapelketa prestatzen. Niretzat onura ikaragarria izan da, bertsoak baloratzen ikasi dugulako, asko hitz egiten dugu botatuko bertsoez... Buruari buelta horiek emateak balio dio ondoren norbere beharri.

Bizkaiko plazetan baduzue zuen izena, gainerako herrialdeetara kantatzera joatea zailagoa da?

**Xabier Paya.** Burugaineko txapela giltza izan daiteke beste herrialdeetara kantatzera joateko, berez badaude saio batzuk txapel-dunaren izenean egiten direnak. Baina nahiago nuke saio horietan norberari deitzea, ez txapel-duna zarelako, baizik eta Etxahun zarelako edo Xabi zarelako.

**Etxahun Lekue.** Gu ez gaude kezatzeko moduan. Gure saioetxoak baditugu, eta eduki ez ditugunean antolatu egin ditugu, adibidez, "Txapel bete bertso" ekimenarekin. Hemendik aurrera zer etorriko den ez dakit. Nik neuk Bizkaitik kanpo oso saio gutxi egiten ditut, baina ez ditut eskatu ere egiten. Ahalik eta ondoen egingo dugu ditugun saioetan, eta horrek eka-rriko ditu saio gehiago edo gutxiago. ■

**ATALAIA JATETXEA**



Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun  
Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718  
e-posta: info@hotelatalaia.com  
web orria: www.hotelatalaia.com

**Ugarte**  
Nekazalturismoa

Bebailara.  
20159 ASTEASU  
Tel.: 943 69 27 22 / 657 72 53 21  
e-posta: legarrayolan@yahoo.es  
www.caseriougarte.com

# BOST IZARREKO EGUBERRIAK

## *Maria Cristina hotelean*

*Urte zahar gaueko gala-afaria, kotilloia, orkestra, doako barra eta gehiago...*

Otarraingsken ravioli txikiak zapo-xerratxoekin  
Karramarrozko Sushia eta Landetako Foie tosta

50 €

Gari-krema arina bakailao-trontzoarekin  
Amuarrain-perlak, ahate-gnocchia eta kurruskari iberikoa

50 €

Zigalak bi testuratan txangurru-nahasturaren gainean  
Tallarín beltza, tenpranillozko kañabera-eztia eta  
erremolatxazko olioia

50 €

Basa erreboilua abakandoarekin  
Patata ubelak, aza gorri kimuak eta limazko emultsioa

50 €

Idi-azpizuna neguko boilurrekin  
Chalota distiratuak, Pedro Ximenezen zizka-mizkak, cep  
perretxikoak eta kurruskari iberikoa

50 €

Txokolatezko biskuita txanpainarekin  
Krokante-pralineia eta glas marroia  
Pasioaren-frutazko nahaskia eta mandarinazko izozki-  
bola piperbeltz arrosarekin

50 €

Montenovo Godello 2005 (Jatorri Deitura Valdeorras)  
Marques de Riscal erreserba handia 1999koa (Jatorri  
Deitura Arabako Errioxa)  
Moët Caudom Brut Imperial

50 €

Doako barra lehen markatan  
Orkestra eta kotilloia 04.00ak arte

50 €

Baratzuri zopa eta txokolatea txurroekin

50 €

250 € pertsonako  
(BEZaren %7 ez dago barne)

*Kontsulta itzazu gure logelen prezio bereziak egun hauetarako*

# Ezpalak

ESTITXU EIZAGIRRE

## Bertsolata



### Mahai-ingurua eta saio experimentalak

Hernaniko (Gipuzkoa) Iraulio Pantalonek urtero bezala bertso astea egingo du, abenduaren 20tik 31ra artean. Aurten 25 urte bete dituzte bertso eskolek (artean Hernanikoak), eta hori izango dute hizpide Xabier Amuriza, Juanjo Uria, Itziar Eizagirre eta Mikel Mendizabalek abenduaren

22an egingo duten mahai-inguruan. Abenduak 27an, berriz, Maialen Lujanbio bertsolariak eta Judith Montero saxofoijoleak, hitzak etahotsak lotuz prestatutako emanaldiaren estreinaldia entzun ahal izango da. Gaztetoentzat saioa, kale-antzerkia, Urte Zaharretako erronda eta beste hainbat bertso ekintza izango dira kalez kale.

Patxi Gaztelumendik blogean ([www.larrabetzu.org/gaztelumendi](http://www.larrabetzu.org/gaztelumendi)): «Euskara gutxiengo izaten ari da, euskal liburu eta disko azokan ere. Eta ez da ezer pasatzen, ez dago krisi berbarik horregatik. Izan ere, gehiago saltzen du erdarak, hain gaude salduak. (...) Durangoko azoka, izenburu berria. Ez euskal, ez liburu eta ez disko. Durangoko-azoka.com Feriaderurango... libre daukate».

Bernardo Atxagak *Noticias de Gipuzkoan*: «Barojak herrikoiare-

kiko zuen sentiberatasuna benetan ezohikoa zen bere mailako jendearengan: Donostiako ingeniari baten semea, hiriko gizona, Madrilen ibiltzen zena... Bere klaseko jendeak, normalean, mespretxatu egiten zuen herrikoia zen guztia, eta beraz, euskal mundua».

Natxo de Felipek *Deian*: «Publikoaren esku dago Oskorri noiz arte biziko den. Atea ixten badigu, erretiroa eskatzen ari zaigu. 40 edo 50 urte betetzen baditugu, pozik egongo gara».

### Arriagari buruzko erakusketa

JUAN CRISOSTOMO ARRIAGA jaio zela bi mende dira aurten. Ospatzeko hainbat ekitaldi antolatuta ditu Bilboko Udaleko Kultura eta Euskara Sailak. Urtarrilaren 14ra arte Zabalgune egoitzan ikusgai den erakusketak emango die bukaera ospakizunei, eta ginda berriz, Botxo Boogies bandak urtarrilak 4an Zabalgune egoitzan bertan emango duen kontzertuak jarriko du. Kontzertuan Arriagaren piezak joko dituzte, baina jazz, bals, bolero, samba eta funk estilora eramanda. Jadanik ikusgai den erakusketan Arriagaren partituren faksmileak, horiei buruzko iruzkinak eta musikariaren erretratu bakarra daude, eta gune interaktiboan bere piezarik ospetsuenak entzun ahal izango ditugu. Udalak talde eta eskolentzako bisita gidatuak jarri ditu.

### Arte Garaikideko Zentroa Uharte Arakilen

6.146 METRO KOADROKO eraikina altxatzen ari dira Uharte Arakil (Nafarroa) sarreran. Lau solairu izango ditu, eta Pedro Ordoñezek, zentroko zuzendariak jakinarazi zuenez, ez da museoa izango, artisten lantegi, erakustoki eta kultur etxeen arteko nahasketa bat baizik. Lau ildo izango ditu: erakustokia, ekitaldiak, ekoizpenak eta trebakuntza. Bertako eta nazioarteko arteak izango dute lekua, eta 2008ko udan, bi urtez behingo nazioarteko topaketak egiteari ekingo diotela aurreratu dute. Sei lagunek osatzen duten patronatuak kudeatuko du zentroa eta arte irizpideak bost adituk sortutako aholku batzordeak emango ditu.

## Baltegi landa etxea



Baltegi Landa Etxea  
Murgindueta bidea  
31849 Iruñeta (Nafarroa)  
Tel.: 649 23 45 49  
e-posta: baltegi@sakanerria.com  
web orria: www.baltegi.com

## Olaberriako zirkuitua

Gida eskola    Karting-a

Gainera auzoa, Z/G • 20212 Olaberria  
© 943 16 08 62 • [www.vilarinomotor.com](http://www.vilarinomotor.com)  
[info@vilarinomotor.com](mailto:info@vilarinomotor.com)

# Argitalpenak

## Diskoteka

IKER BARANDIARAN

### Intentsitate bereziko pop-rock eder eta samurra

Tolosako boskoteak bidean geldiuena egin du atzera begiratzeko eta historiak, beste askori bezala, Ubedatarrei –taldeko arima diren anaien sendiari– zor ziena desenterratu eta aspaldiko korapiloa askatzeko. Disko honek 36ko Gerra, sasoi hartako eta ondorengo bidegabekeria eta sufrimendua ditu ardatz. Musikari horien aitona eta birraitona dituzte abiapuntu, baina belaunaldi oso bat gogoratu eta omendu nahi dute. Hori guztia luxuzko soinu eta instrumentariak dituen disko hunkigarrian batu dute. Artifizio handirik gabeko pop-rock kantuek eder eta samurrak egiten saiatu dira, baina horiek intentsitate berezia hartu dute. Bestalde, badira pieza ilunagoak, rockeroago-biziagoak, edota kutsu orkestrala dutenak ere. Nabardura txikiz josita dago diskoa, eta horrek izugarri aberasten du emaitza.



Bide ertzean

Non dira

GAZTELUPEKO HOTSAK

Iraupena: 19'35"

14,45 euro

BIDE ERTZEAN

### «Sinetsi nahi dugu musikak pentsarazteko eta injustiziak aldarrikatzeko balio duela»

Diskoaren soinua oso garbia da eta funtsean pop-rocka egiten duzue, baina moldaketa eta nabardura asko sartu dituzue, emaitza asko aberastuz.

Beste diskoetako maketak sofistikuagoak ziren. Oraingoan kantuak ia biluzik eraman ditugu eta asmoa zen hori errespetatzea, baina estudioan jantzi egin ditugu gure musikariek irizpide artistiko zabala dutelako. Hala ere, oreka mantendu dugula uste dugu, kantua jarri dugu aurretik.

Imanol, zure ahotsa etxeko marka bereizgarria bihurtu da, eta erregistro gehiago hartu dituzu...

Konplexuak izan ditut eta orain pena ematen dit hasierako diskoak gehiago ez landu izanak. Orain konfiantza handiagoa dut eta gusturago nago. Kaki Arkarazok eta taldekideek asko lagundu didate.

**Besteak beste, perkusioa modu bitxian tratatu duzue.**

Abesti batzuetan filtroa erabili dugu, baina Karlosek musika asko entzuten du, eta arriskua bilatzen du. Bide Ertzean ez da asko arriskatzen duen taldea. Kontraste horiek ondo egiten diete abestiei.

**Lan honetan zuen kazetari sena indartu duzue. Zaila izan da familian atzera egitea? Zer da gehien hunkitu zaituztena?**

Zailena izan da familian hainbeste denboran isilpean egon dena azaleratzea. Ez zuten sufrimendua gogoratu



nahi, baina korapiloa askatu dute. Zer gertatu zen, zer ondorio ekarri zizkion familiari... Guztia liburuxka batean batu dugu. Terapia bat izan da. Gehien harritu gaituena da gerra bezain gogorra edo gogorragoa izan zela gerraren ondorengoa. Adibidez, amona alargun gelditu ondoren erbestera joan zela umeekin lana bilatzera. "Kantu bete hegazkin gidatuko dut". Kantuek eta musikak oraindik indar handia dute?

Hala uste dugu. Gerran kantua arma zen, psikologikoa-edo. Sinetsi nahi dugu musikak pentsarazteko eta injustiziak aldarrikatzeko balio duela. Musikak bi aldeak ditu: dibertimendua eta errebindikazioa. Kasuan kasukoa aukeratzen dugu.

## Liburutegia

PILAR IPARRAGIÑE



### Begira-begira. Tradizioaren leihotik

**Batzuen artean**

ELKAR

176 orrialde

21 euro

### Tradizioari leiho berriak irekitzen

Zortzi idazle eta marrazkilari baten lanak daude jasoak Elkar argitaletxeak plazaratu duen *Begira-begira. Tradizioaren leihotik* liburuan. Tradizioa transmisioa dela eta, transmisio-bideari jarraipena emateko asmoarekin egin dituzte Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Juan Kruz Igerabide, Jesus Mari Olaizola *Txiliku*, Joxan Ormazabal, Kirmen Uribe, Mixel Murua, Miren AgurMeabe idazleek eta Elena Odriozola marrazkilariak liburuan agertzen diren ipuinak, poemak, hizkuntz jolasak eta marrazkiak. *Begira-begira* parte hartu duten guztiek ondotoxo dakite euskal literaturaren tradizioa

altxor kultural eskerga dela, ondotoxo dakiten bezala gaurko idazleei dagokiela altxor hori aberastea, transmisio katea eten ez dadin. |

### Kartzela saihesteko

Aiala Olarte Hurtadok Arartekoak emandako ikerketa beka bati esker aurrera eraman duen lanaren izenburu zehatza *Alternativas a la cárcel en Euskadi: el trabajo en beneficio de la comunidad* da. Errudunari kartzelan sartzea ez den beste zigorren bat ezartzeko dauden lege aukerak aztertzen ditu bertan. 60ko hamarkadan hasi zen gizartearen aldeko lanak eginez kartzela zigorra saihesteko erak aztertzen zituen eztabaida, eta 70eko hamarkadan krisian egon bazen ere, berpiztu egin zen 80ko hamarkadatik aurrera. Aiala Olarte Hurtadoren iritziz, espetxe-zigorra ez da kriminalitateari aurre egiteko biderik egokiena, ezta eraginkorrena ere, espetxeak askatasuna ez ezik presoaren beste oinarrizko eskubideak zapaltzen dituelako. Eta eraiki beharko litzateke oinarrizko eskubideak gutxiago mugatuko lituzkeen beste zigor sistemaren bat. |



### Alternativas a la cárcel en Euskadi

**Aiala Olarte  
Hurtado**

ARARTEKO

386 orrialde



### Euskal Herriko mendiak. Ehun paisaia

**Santiago Yaniz**

SUA

128 orrialde

18,50 euro

### Gure mendi gailurrak ikusteko ehun era

Pagasarrin mendizale bihurtu zenetik, Santiago Yaniz argazkilari bilbotarrak beti gorde omen du motxilan argazki-kamera batentzako –edo gehiagorentzako– tokia. Beraz, mendizaletasunak eta argazkigintzak emandako esperientziei zor zaio Sua argitaletxearen bidez euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez kaleratu duen *Euskal Herriko mendiak. Ehun paisaia* liburuan agertzen diren irudi ederrak. Hiru Erregeen Mahaiako tontor elurtuetatik hasi eta lainoa txapeltzat duen Anboto mendiaren argazkira arte, gure mendilerro eta gailurren hamaika ikuspegi. Hor daude Artzamendi, Talatzeko hormak, Larrako karsta, Pagasarri, Andia mendilerroa, Serantes mendia, Gorobel-Sálvada mendilerroko Iturrigorri/Tologorri mendia... |

### Luis Baraiazarrak jasotako saria

Luis Baraiazarra Txertudi euskaltzain urgazle eta idazle meñakarrak urte asko daramatza *Karmel* aldizkarian idazten. Bilboko Liburu Azokak euskararen nahiz euskal letren alde gogor ahalegintzeagatik Urrezko Luma saria eman zionean, poz handia izan zuten *Karmelekoek*, eta Luis Baraiazarraren bizitza eta lanari eskaini dizkiote 255. zenbakiko hainbat orrialde. Beste hainbat egin dute Elisabet Hirutasunarena doatsuarekin, oraintxe betetzen baita bere heriotzaren lehen mendeurrena. Bere biografiaren aztarnak jasotzen dituen lanean, 1880ko uztailan jaiotako emakume honen txikitako, nerabezarko eta moja bilakatu zeneko argazkiak ere eskaintzen dira. Jarraian, Luis Baraiazarrak euskarara itzulitako Elisabeten idazlan bi azaltzen dira: *Azken gogo-jardunak* eta *Utz ezazu maitatzen*. |



### Karmel

**Batzuen artean**

EUSKAL HERRIKO  
KARMELDARRAK

144 orrialde

12 euro, urteko

harpidetza



Rimmel

Koldo Izagirre

SUSA

122 orrialde

11,50 euro

## Koldo Izagirrek bere kuttunenei idatzitakoak

Poema liburua da *Rimmel*. Pertsona baten bizi-tzan unerik gogoangarrienak izan daitezkeen haietan nolako sentimenduak izan dituen agertzen ahalegintzen da poeta. Ondorengo bat izan behar duela-eta, ospitalera joatean aitak duen barrua. Semea izango zutela uste, eta azkenean alaba jaio zaiela jakitean izandako ezusteko gozoa. Eta handik aurrera gertatutako gainerako ustekabeak. Alabari kontatzen dizkio poetak, baina noizean behin jaio berria den haurren barruan sartu eta hark senti ditzakeen irudikatzeari ekiten dio baita ere. Lau ataletan banatu ditu Koldo Izagirrek poemok: *Hezur ondoko mami, Nola jaso ote zuen harria trikuak?, Ur gazia zara eta Laster gure alaba zu bezalakoa izanen da.*

*Hezur ondoko mami, Nola jaso ote zuen harria trikuak?, Ur gazia zara eta Laster gure alaba zu bezalakoa izanen da.*

## Matalazen garaiko Zuberoa hura, Amezagaren nobelan

Arantza Amezaga Iribarren idazle emankorra Buenos Airesen jaio zen, 1943an. 1936ko Gerraren ondorioz atzerrira joan behar izan zuen familia euskaldun baten alaba da. *Paraquaria*, Tarttalo argitaletxearen bidez kaleratu duen bere azken nobela, XVII. eta XVIII. mendeetan girotuta dago. Orduko Zuberoan bizi behar izan zituzten borroka azal-tzeaz gain, haiek galdu eta gero Matalaz apai-zarekin aritutako gerrilari baten Ameriketarako ihesa, eta hari zein bere ondorengoei gertatzen zaizkien kontak-tzen ditu.

Paraquaria

Arantza Amezaga

TARTTALO

462 orrialde / 25 euro



EÑAUT MITXELENA

## «25 urtez *Aizu!*-ri hatsa eman diotenak omendu nahi izan ditugu»

Hogeita bost urte kalean. Bete al dira *Aizu!* estreinakoz kaleratu zeneko ametsak?

1981eko abendu urrun hartan *Aizu!*-ren 0 zenbakia kaleratu zutenek, Deustuko Unibertsitatean Euskal Filologia ikasten ari ziren zenbait ikaslek, argiro bota zuten euren xede nagusia: Euskal Herri euskalduna lortzeko euskararen irakaskuntza bultzatzea eta euskara ikasleei behar bezalako lan tresna eskaintzea. Harrezkero mende laurdena joan da, eta halaxe egin du bere bidea *Aizu!*-k 25 urtez, euskara ikasleentzako lan tresna erabilgarria izan nahian. Hala ere, agidanez, orduko premiek bere horretan diraute, Euskal Herri euskaldunik ez baitugu antzematen. Tukan zaharrak esango zukeen moduan, noiz arte jarraituko dugu horrela?

**Nolanahi ere, 25 urte daramatza bizirik aldizkariak. Bada ospatzeko arrazoia, ez da hala?**

Bai, ez dira asko urteurren hori betetzera ailegatzaren diren argitalpenak. Baina ez espero aparteko ospakizunik. Ez dugu jai erraldoirik egingo. Nahiago izan dugu urte hauetan guztietan *Aizu!*-ri hatsa eman diotenak omentzea, eta horretarako prestatu dugu ale berezia, igarotako 25 urteen ispilu. **Mende laurdena denbora da. Bitarte horretan jende asko pasa al da *Aizu!*-tik?**

Ia laurehun lagun langile! Baina ale berezi hau egiterakoan ez gara haietaz bakarrik gogoratu, AEKren aldizkaria aspalditik irakurtzen duten milaka ikasle sufritu ere oso kontuan eduki ditugu. Horiek gogoratu nahi ditugu bereziki urteurren honetan, izan zirelako baikara, eta garelako izango baitira. Zorionak, eta eskerrik asko guztioi!



egileari galdezka

## *Aizu!*: 25 urte oinarrizko euskara plazaratzen

Hogeita bost urte ditu jada AEKren aldizkariak, eta abenduko ale berezia plazaratu dute

urteurren hori ospatzeko asmoarekin, 25 urtez *Aizu!*-n azaldutako 25 azal, gertakari, elkarrizketa, AEKomeria, komiki, iragarki, liburu eta egileen zerrenda hautatua eskainiz. Aukeraketa latza izan omen da. Jakina, potoloa izanda ere, ale bakar batean ezin jaso hainbeste denboran jorratu dituzten lan guztiak. Hori bai, agertzen dituztenak bere garaian argitaratu ziren bezalaxe daude, berdin-berdin, zuzentzaileari eta Euskaltzaindiaren azken arauiei erreparatu gabe, besteak beste orduan arauak beste batzuk zirelako. Batzuetan kopetilun, besteetan ausart, askotan umoretsu, beti aurpegia emanez azaltzen da *Aizu!* urtez urte. 1981ean Durangoko Liburu eta Disko Azokan bere aurkezpena egin zutenetik, 25 urtez zuzendari-

Aizu!  
ale berezia

Batzuen artean

AEK

86 orrialde


2,80 euro

tzan, erredakzio taldean, talde grafikoan, kolaboratzaile gisa, marrazkiak egiten, maketazio kontuetan, zabalkuntzan edo publizitatean *Aizu!*-ren "errudunak" nortzuk izan diren banan-banan adierazi arte. Tartean, makina bat kontu serio zein arin: kultura, gizarte arazoak, euskara, artea, nazioartea, Euskal Herriko polizia kopuruaren etengabekogorakada, intsumisioa...

# Denbora-pasak

LUMA

## Hitz gezidunak

	Ingerada		Muturreko		Madari		Zintzo		Arnas har- tze larri
	Ez euskal- duna		Dauka		52		Izana		
	Pl., arrain mota						Röntgen		
	Intsektu mota						Lepo		
Bolikosta- ko hiria	2		Polit						
Deitura	* DEITURA		Nazkak						
					Arraza				
					Beldur				
Garaitu						(Lab.) Australia			
Ostertza						Landare usaintsu			
							Neona		
							Bokala		
* IZENA			Santua					Sufrea	
Ipar EH-n, berriketak			Errep., fruitu mota					Uranioa	
					Iodoa		Utik!		
					Kontso- nantea		Bokala		
Sodioa		Kokotsa						Bokala	

## Hitz gurutzatuak

### EZKER ESKUIN

1.- Besteekin batean zerbaiten jabe dena. 2.- Hizki grekoa. Jardun. 3.- Errepikatuz, murmurio. Harrapa ezazu! 4.- Uranioaren ikurra. Diosal hitza. Kontsonante bustiaz. 5.- Ez geza. Zur. 6.- Lehena eta azkena. Ohorezko hitz ematea. Bokala. 7.- Gabarra txikiak. Tennis jokaldia. 8.- Burdinola. Hegazti mota. 9.- Alboetara begira ez dezan, zamariaren begien aldean ipintzen den larruzko pieza.

### GOITIK BEHERA

1.- Helburua. ... egin, goitika ari. 2.- Sortu zintuena. Larrua. 3.- Hortaz. Euskal sindikatu abertzalea. 4.- Begiaren erdian. Gizakia, hitz elkarketan. Bokala. 5.- Etxeko abere. Ikasi aditzaren oina. 6.- Bokala. Ipar Euskal Herrian, ordu. Ahate hitza, bokalik gabe. 7.- Errepikatuz, ikara. Nafarroako zendea. 8.- Gaixotu. Bururatu. 9.- Otx! Abila, iaioa.

1 2 3 4 5 6 7 8 9

1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									



## Sudokua

9x9-ko laukian hutsik dauden gelaxkak bete behar ditu zu 1etik 9ra bitarteko zenbakiak idatziz eta kontuan izanik zenbaki bakar bat ere ezin duzula errepikatu errenkada eta zutabe berean, ezta dagokion 3x3-ko laukian ere.

1		6	8		3	5		9
	9		5		4		2	
8								7
	6			1			4	
9								5
	8		6		1		5	
2		7	9		5	3		8

Kike Amonarrizen umorea

## Begi-bistakoa Watson maitea!

Sherlock Holmes eta Watson doktorea mendi aldera abiatu ziren. Egun-pasa neketsuaren ondoren, lo-zaketan sartu ziren. Watsonek begiak itxi orduko, ordea, Holmesek ukondo kolpe batez esnatu zuen:

– Watson maitea! Esna zaitez! Begira! Zer ikusten duzu?

– Izarrak –erantzun zuen–.

– Eta? Zer esan nahi du horrek?

Watsonek bazekien erantzun egokia asmatu arte, nagusiak ez ziola lo hartzen utziko.

– Hara Sherlock! Astronomoak, izarrengatik, ipar-hemisferioan gaudela esango lizuke.

Astrologoak, Artizarra, Marte eta Jupiterren arteko gurutzaketa bitxia dugula.

Mendizaleak, 1.235 metrora gaudela.

Pello Zabalak, oskarbi dagoela eta bihar behe-lainoekin esnatuko garela.

Nik esango nizuke, gaueko isiltasunak on egiten diola nire barne orekari...

Eta zuk, zer esango zenuke Sherlock?

Eta orduan, Sherlock Holmesek:

– Kanpin-denda lapurtu egin digutela! Begi-bistakoa, Watson maitea!

## Soluzioak

2	1	7	9	4	5	3	6	8
6	5	3	7	8	2	4	9	1
4	8	9	5	3	1	7	5	2
9	3	1	4	6	7	2	8	5
7	6	5	2	1	8	9	4	3
8	2	4	3	5	9	6	1	7
3	9	8	5	7	4	1	2	6
5	7	2	1	9	6	8	3	4
1	4	6	8	2	3	5	7	9

K	V	B	E	S	T	R	U	V
O	L	A	V	A	H	A	T	E
A	L	A	K	L	O	B		
A	Z	Z	I	N	A	E		
G	A	Z	I	E	G	U	R	
U	A	G	U	R	T	T		
M	A	R	T	O	R	I		
O	M	E	G	A	A	R	I	
J	A	B	E	K	I	D	E	A

U	*	V	S	T	O	K	O	*	V	N	*
K	V	L	V	K	V	K	V	L	V	K	V
J	O	N	D	E	U	N	A	V	*		*
O	D	V	I	E	R	T	Z	V	A	N	E
I	R	V	A	B	V	A	Z	I	V	A	S
V	B	I	Z	E	N	V	A	E	N	D	V
V	A	I	I	I	I	I	I	I	I	I	I
R	*	V	K	I	P	I	U	P	I	V	R
E	R	D	V	L	D	U	N	V			
E	*	U	*	Z	*	U	*	Z	*	U	*



# Lumanonahi

**HARPIDETZAK**  
 © 943 37 15 45 - [www.argia.com/luma](http://www.argia.com/luma) - [luma@argia.com](mailto:luma@argia.com)

**Luma** + **lumato**  
 DENBORA-PASAK ETA HITZ JORDEN HILABETZAKAK  
 haurrentzako gehigarria

# Ihesi

Euskal Herria ezagutzuz

TESTUA: UNAI BREA  
ARGAZKIAK: IÑIGO AZKONA

Bilbo (Bizkaia)

## Txokoz txoko lehengo Bilbo ezagutzen

Bilbo omen da Euskal Herriko hiribururik zikinena eta zatarrena. Horretarako meritu batzuk egin izan dituela aitortu behar da, baina kontrakorako ere bai. Azken urteotan batik bat, hiriak nahikoa lan hartu du aurpegia edertzen, industria-ondoko haizeek derrigortuta nonbait. Baina lehenagotik ere bazen Bilbon zer ikusi eta non ibili. Hor daude txoko horiek oraindik, museo ezin ospetsuago baten gerizpean.

Erribera kalea antzinatek izan da janarien salerosketarako gunea. 1929an ireki zuten Erribera merkata. Eraikuntza ederra da eta Art Decó dekorazioa du. Hiru solairu ditu: aurrenekoan arrainak eta itsaskiak; bigarrengoan okela; eta hirugarrengoan fruitu eta barazkiak.



## Botxoko maldetan gora

Zeozeratik esaten diote *botxo* Bilbori. Euskal Herriko hiri handienak bertatik bertara ditu mendizaleen gustuko hainbat tontor. Eta hiriko mendirik ezagunena izateko lehian zein baino zein –bilbotar petoek zuzendu gaitzabela bestela–, Artxanda eta Pagasarri ditugu. Mendizaletasunaren ikuspegitik, ordea, bigarrena gailentzen da argi eta garbi; Artxandara ere jende asko igotzen da, baina funikularrez edo autoz batez ere.

Pagasarri (671 metro), berriz, Ganekogorta mendigunean dago. Ez da bertako garaiena, baina badu berezitasun bat: oso erraz hel daiteke bertara Bilboko erdigunetik. Horregatik, jende askok aukeratzen du zapatu edo domeka goizeko txango laburrerako. Zabalburu plazatik abiatuta, Juan de Garay kaletik joango gara San

Adrian auzora. Hura atzean utzitakoan autobide gaineko zubia zeharkatu, Iberdrolako eraikinaren alboetik jarraitu eta ezkerretara egin behar da *Pagasarriko bidea* deritzonari ekiteko, Garbigunetik oso hurbil. Bestetik, Ganekogorta mendiak ere (998 metro) bilbotarra du bere hegieta bat, baina askoz lan nekezagoa da harainoko igoera.

Malmasin mendia ere Ganekogorta mendiguneko da. Izen bereko tunel ezaguna azpitik igarotzen da, eta ez da oso garaia (392 metro). Hala ere, inguruaren ikuspegi politikak daude bertan. Bilbon bagaude, Abusu auzotik abiatu gaitzke Malmasinera. Zenbait aztarnak agerian utzi dute orain milaka urte bazirela gizakiak haren tontorrean. Lehenengo bilbotarrak?

Beharbada ez duzue sinetsiko baina, Guggenheim eraiki baino lehenago ere, Bilbo existitu egiten zen. Frank Gheryk irudikatutako museoa ei da orain hiriaren ikur nagusia, betikoei (Begoñako basilika, San Mameseko arkua...) gailenduz. Eta Euskalduna jauregia da Guggenheimen bidelagun kutuna, erakunde publikoek turismo arorantz antolatutako bidaiari honetan. Egia esan, asko hitz egin eta idatzi da “Bilbo berriaz”. Guk, oraingoan, ontzi itxurako museo baten kariaz bat-batean ederrago diruditen betiko lekuei eskainiko diegu arreta. Hala ere, eta iraganari begira bizitza leporatu ez diezaguten, azken aldaketen ondorioz agertu diren zenbait txokoren aipamena egingo dugu.

Ofizialki, Bilbok 706 urte ditu. 1300ean hartu zuen hiribildu izendapena, Diego Lopez de Haro orduko Bizkaiko Jaunaren eskutik, baina hiria han zegoen lehenagotik. Ez

jakin zehatz noiztik, ordea. Gaurko hiri handiaren lehenbiziko hazia, noski, gaurko Alde Zaharra da. Haren zati bat, hobeto esanda. Ondo bereizi behar dira-eta Erdi Aroko Alde Zaharra eta Alde Zahar modernoak.

### Zazpi Kaleak

Hasieran hiria, Erdi Aroko beste asko bezala, hiru kale nagusiz osatuta zegoen, elkarren paraleloak hirurak. XV. mendean beste lau kale erantsi zizkion lehenbiziko nukleo hari; halaxe sortu ziren Zazpi Kaleak, gaurdaino dirauen izendapena. Baita Alde Zahar osoa izendatzeko ere, dagoeneko.

Zazpi Kaleak, berez, Somera, Arte-kale, Dendarikale –horiexek hiru zaharrenak-, Belostikale, Carnicería Vieja, Barrenkale eta Barrenkale Barrena dira. Ezagunenetakoak dira kanpotarrentzat, auzoko gau giroak bertako tabernetan daukalako habia

hein handi batean. Egunez salerosketa gune aparta dira, baina hori Alde Zahar osoaz esan genezake.

### Erribera eta San Anton

Zazpi Kaleek Santiago katedral ederra daukate alde batean eta Erriberako merkatua bestean. Katedrala Bilboko eraikin zaharrenetakoa da, XIV. mendean eraiki baitzen. Alboan dago izen bereko plaza, 200 urte baino gehiago dauzkan iturri eta guzti. Erriberako merkatua, berriz, 1929an ireki zuten. Diseinuaren eklektikoak eraikin ederra izan du emaitza, barruan saltzen diren arrain eta itsaskiak bezain ederra. Kalearen beste aldean, berriz, Erriberako arkuek adierazten digute antzinako Alde Zaharraren muga.

Erriberako merkatuaren ondondoan San Anton eliza eta San Anton zubia daude. Eliza XIV. mendean eraiki zen, eta bera da, zubiarekin

20, 30, 35, 40... eta  
50 urtera arteko hipotekak.  
Tasazio-balioaren  
%100eraino  
eta abalik gabe.

zeure erara  
**bbk**  
hipotekak

etxetik botako  
zaituzte





batera, Bilbo zein Athleticen armarrietan ageri dena. Argitu egin behar da, hala ere, armarriotako zubia ez dela gaur egungoa, dagoeneko desagertuta dagoen Erdi Arokoa baizik.

### Begoñako basilika Alde Zaharretik ikusgai

Plaza Berria dauka izena, baina Bilboko zaharrena da. Politena ere bai, 64 zutabek osatutako arkupeari esker besteak beste. Terraza batean jesarrita zerbait lasai hartzeko lekurik egokiena da Bilbo osoan. Ez hain lasai, baina bai zeharo gustura, Santo Tomas azokako giroaz goza daiteke bertan urtero abenduaren 21ean. Eta domeketan, bildumagileek benetako harribitxiak topatzeko aukera dute, zigilu, liburu zahar eta bestelako merkatua egiten da eta.

Alde Zahar modernoaren beste txoko eza-gun bat Txakur kalea da. Santiago plazatik dauka sarbideetako bat, eta hantxe dago bertako iturri ospetsua. 1800ean berritu zenetik, bilbotarrek Txakur iturria esaten diote, bertan ageri diren irudiak direla eta. Hortik hartu du izena kaleak. Haren beste aldean Alde Zahar osoko lekurik bereziene-

tako bat dago. Txakur kaleak Pilota eta Santa Maria kaleekin bat egiten duen lekuan —azken bi horiek osatzen duten ertzean hain justu— ikur txiki bat dago. Leku zehatz horretan jarriz gero eta norabide egokian begiratuta, Begoñako basilika ikus daiteke; Alde Zaharrean, kantoi horretatik baino ezin da begiz jo basilika.

### Gorako bidean

Alde Zahararen bazter batean, Askao kalearen amaieran, Unamuno plaza dago. Handik abiatzen da Mallonako Galtzada, goranzko malda etengabea. Alde batean eskailerak ditu, bestean aldapa, zein baino zein latzago eta ederrago. Behin gora helduta, XIX. mendeko hilerri zahararen atea ikus daiteke, eta bertatik bertara, Etxebarria parkea, orain dela mende laurden altzairu galdategia zegoen lekuan. Bera da, beraz, industriatik aisialdirantz Bilbok egindako urratsen lehen adibideetakoa. Omenaldi moduan geratu da, hala ere, galdategiko tximinia bat.

Etxebarria parketik Begoñako basilikara ailegatzeko ez dugu gehiegi ibili behar. Bilbotarren “amatxo” kutunaren etxea eliza gotiko ederra da, baina beste estilo batzuetako elementuak ere baditu. XVI. mendean Ama Birjina agertu ei zen leku berean eraikita dago hiriarren ikono nagusietakoa den basilika.



## Bilbo itsasadarretik ikusita

Ibaizabaletik txangoa egitea modu paregabea da hiriaren bestelako ikuspegia izateko. Horretarako aukera eskaintzen du, 1997tik, Portugaleteko Txalupa Gidarien Elkar-teak. Urte hartan erosi zuten *Euskal Herria* ontzia, itsasadarren alde batetik bestera bidaiariak daramatzaten "gasolino" txikiagoen osagarri. Ordura arte, ontziak *Vanguard* zeukan izena, eta Salou-Cambrills ibilbidea egiten zuen Kataluniako Tarragona probintzian.

*Euskal Herriak*, gaur egun, zerbitzu mota bi ematen ditu. Alde batetik, Getxo eta Sestao arteko bidaiari-garraio erregularra egiten dute. Bestetik, txangoak eskaintzen dituzte, norberaren neurrikoak beti ere. "Persona edo talde bakoitzak hautatzen du ibilbidea eta iraupena, baita non gelditu ere". Diotenez, Bilbotik Getxora doan ibilbidea eskatzen da gehien, eta geldileku arrakastatsuenak Bilboko Udaletxea, Guggenheim museoa, Euskalduna jauregia, Sestaoko Izar ontziola eta Bizkaiko Zubia dira.

Ontziak 100 lagunentzako lekua dauka, baina bertan jaia antolatu nahi izanez gero –sarritan eskatzen omen diete ezkondu aurreko agur festak ospatzeko–, ez dira 70 bidaiari baino gehiago onartzen. Prezioen eta bestelako xehetasunen gaineko informazioa aurkituko duzue web gunean ([www.turismoriabilbao.com](http://www.turismoriabilbao.com)).



badauka hainbat parke Etxebarriaz besterik, eta horietan ezagunena, zalantza barik, Doña Casilda da, San Mames futbol zelaitik oso hurbil eta hura baino urte batzuk zaharragoa (1907koa da). Ahateen aintziratxo eta musika emanalditarako erabiltzen den *Pergola* ditu gunerik esanguratsuenak.

Askoz berriagoak dira Europa parke zabala –Otxarkoaga, Txurdinaga eta Santutxu artean–, 1988an sortua, eta hiriaren aurpegi-edertzearen ondorioz berriki agertutako azken biak: Bidarte –Deusto aldean– eta Oroimenaren Ibiltokia, Guggenheimen, Euskalduna jauregiaren eta oraindik egiteke dagoen Abandoibarrako zumarkalearen artean. Udalak helburu potoloak ditu Oroimenaren Ibiltokirako: etorkizunean hiri osoa josiko duen haria izatea nahi lukete, Najako kaia, Ripa kalea, Uribitarte eta beharbada Olabeaga ere lotuz. Oraingoz, hiru kilometro luze da ibiltokia, eta bere baitan biltzen ditu, besteak beste, Zubiarte merkataritza gune handia eta Txillida, Dali eta beste zenbait artista handiren eskulturak. ■


### Artxandako funikularraren gorabeherak

Udaletxe paretik abiatuta ezkerretara, Campo Volantin kalea dugu, Deusturaino ailegatzen den pasealekua. Alde batean itsasadarra dauka, bestean Castaños auzoa. Eta Castaños kalean dago, hain justu, Artxandako funikularraren geltokietako bat. Bestea, noski, Artxanda mendia bera da. Hiru minutuko bidaia merke bat eginda, funikularrak Bilboko ikuspegi ederrenetako batera hurbiltzen gaitu: hiri osoa ikus daiteke geltoki ondoko parketxotik. Bidaia bera ere ikusgarria da, ia %45eko maldak gainditzen baititu 770 metrotan.

Funikularra 1915etik dabil lanean, eta zerbitzu handia ematen die bilbotarrei nahiz bisitariari. Izan ere, ikuspegia ez da Artxanda mendian goza daitekeen gauza bakarra. Ezagun dira hango jatetxe handiak –oturuntza egitera igotako ezkontide eta gonbidatuz mukurua asteburuetan–, eta kiroldegiak. Bizkaitar gehienek dakite, halaber, hantxe egiten direla gida-baimena ateratzeko ezinbesteko teoria azterketak.

### Central Park ez, baina...

Dena ez da zementua: Udaleko iturrien arabera, biztanleko zazpi metro koadro berdegune dago Bilbon. Hiriak



# Musika, jantziak...

## Deitu eta katalogoa eskatu !!!

# 615 73 21 12



[www.istilu.com](http://www.istilu.com)

# Makina bat kontu

JOXERRA AIZPURUA

## BIOERREGAIAK

### Landareak ere erregai

JOAN DEN HAMARKADAREN ERDITIK AEBetako Minnesotako unibertsitateko David Tilman ikerlaria eta berak gidatzen duen taldea belarren balioa probatzen ari da erregai gisa erabili ahal izateko. Horretarako nekazal lur txiroetan hainbat landare landatu dituzte.

Gehiegi ustiaturako lurrak agortu egiten dira eta belarretako utzi gehienetan. Zelaiko landareek karbono dioxido asko xurgatzen dute, isurtzen dutena eta eriteko zein jasotzeko behar dena batuta baino gehiago. Horregatik landare horietan oinarritutako bioerregaien ekoizpena ekologikoki errentagarria izan daiteke.

Egun artoa bioetanol eta soia biodiesel bihur daitezke, baina hainbat ikerlarirentzat ur eta produktu kimiko gehiegi erabili behar dira uzta txukunak lortzeko.

Tilmanen arabera, zelaietan belar-mota desberdinak landatzea komeni da, errendimendua belar-mota bakarra landatuta baino %238 hobe delako.

Science aldizkarian abenduaren hasieran argitaratu emandako artikuluaren arabera belarrek artoak baino askoz karbono dioxido gehiago xurgatzen dute, sei-hamasei bider gehiago.



Belarraz erregaiak ekoiztu nahi dituzte AEBetan.

## Osasuna

JABIER AGIRRE

### Ustez ia desagertutako elgorria berriz agertu da indar handiz

**AZKEN** urteotan ia desagertutzat eman ondoren, berriro ere elgorri kasuak diagnostikatzeko hasi dira medikuak. Aurtengo aurreneko bost hilabeteetan (urtarriletik maiztera bitartean, alegia) notifikatutako 176 kasuetatik, 133 baieztatu dira. Espainian ere gauza bera gertatu da; lozorrotik ernatu da elgorri edo mingorriaren birusa. Carlos III. Osasun Institutuak adierazitako txostenaren arabera Madrilekoa da erasandako pertsona gehien dituen erkidegoa (83 kasu baieztatu dira) eta atzetik Errioxa dator (15 kasu guztira).

Adituen ustez, gaixotasunaren gorakada azaltzeko arrazoen artean, nabarmentzeko modukoa da badela adin-talde bat, 23 urtetik 33ra bitartekoek osatua, txertatu gabe dagoena, eta oso sentibera dena gaitzaren aurrean: gaur egun, 23 urtez azpiko guztiak txertatuta daude, eta hogeita hamarretik gorakoek,



berriz, gaitza umetan pasatu zuten. Beraz, aipatutako adin-talde hori geratzen da, gaixotasuna harrapatzeko aukera handi samarrarekin. Kontuan hartu behar da behin pasatu eta gero, elgorriak betiko immunitzua uzten duela pertsona.

Bada beste faktore bat, gaur egun alderdi epidemiologikotik oso kontuan hartzekoa: birusek batetik bestera mugitzeko duten abiadura eta bizkortasuna, mundu osoan dabilen bidaiari-mugimenduagatik. Gainera, anbulategi eta ospitaletako langileen artean ere badira elgorriak jotakoak eta horrek gaixotasuna azkarrago zabaltzea ekarri du.

Sintomak (sukarra, eztula, azaleko gorriune txikiak eta konjuntibitisa) diagnostikoa nahiko erraz egitea ahalbidetzen duten arren, mediku gazteenak ez daude ohituta elgorria ikustera eta zenbaitetan gaixotasuna behar bezain azkar ez antzematea horrek eragin du.

Belar-motari dagokionez ikerlariek ez dute zehaztasun gehiegirik eman, baina oso belar arruntekin ari direla lanean azpimarratu dute. ■


## KLIMA

## Ozeano Barea bero

OZEANO PAZIFIKOIA satellite batetik ikusita bi kolore ditu, nagusia urdina bada ere, berdeak indarra du. Kolore berdeak klorofilaren presentzia adierazten du eta ondorioz phytoplaktonaren ekoizpena.

Azken bederatzirteotan AEBetako Oregon State University-ko Michael Behrenfeld-ek zuzendutako ekipoak NASaren OrbView-2 satelliteak lortutako informazioa aztertu dute. Satellite horrek bi egunez behin eskaneatzen du ozeano pazifikoa eta, beraz, mapetako koloreen eboluzioari jarraitzeko aukera izan dute Behrenfeld eta enparauek. Ikerketaren emaitza *Nature* aldizkarian argitaratu berri dute.

1997 eta 1999 artean, El Niño igaro berria zenean hain zuzen ere, itsasoa hoztu eta phytoplaktonaren ekoizpena hazi egin zen. Aldiz, 2000. urtetik aurrera klimaren berotzea nabarmen azkartu duenez phytoplaktonaren ekoizpena txikitu egin da. Ez da azalera guztian berdin gertatu, baina orokorrean balantzea negatiboa da.



Phytoplaktona itsas azalean sortzen da, eguzki-argia eta itsas azpiko korrante hotzek ekarritako elikagaiak behar dituelako. Elikagaiak eta phytoplaktonak biomasa osatzen dute eta biomasa bi eta sei egunen artean kontsumitzen dela uste da. Horregatik biomasaren aldaketa txiki batekin eragin handia izan dezake itsasoko bizidunengan, horretan datza ikerketaren garrantzia. ■

## landareak

JAKOBA ERREKONDO

mandio@zerain.com

## Sudur ustez

NEGUKO solstizioko ospakizunak. Urteko egunik motzengatik, udara atariko suak arteko eguzkiaren hazkundera gurtzeko mihura erabiltzen da. Mihura (*Viscum album*) parasito bizkarroi bat da, beste landare baten bizkar, hari izerdia lapurtuz bizi da. Heldu berri dituen pipitta-koxkorrak grabitateari amore emanda amiltzen direnean, bidean topatzen duten adarren batean itsatsi beste aukerarik ez du ugaltzeko. Badira, ordea, ugaritzeko bestelako estrategiak erabiltzen dituzten bizkarroiak.



*Cuscuta pentagona* usainak aditzen ditu.

Kuskula bizkarroi baten (*Cuscuta pentagona*) jokabidea aztertu dute Pennsylvanian. Zitriko, tomate, azenario, tipula, ahabi, alpapa... denetik harrapatu eta xahutzen du kupidarik gabe. Sustraiak emateko alfer, bere hazia ernatu eta bertan daraman erreserbak alfer artean bizi daiteke sortu berria den landaretxoa. Bitarte horretan bere kiribilen artean heldu, eskarda tankerako ezten bat sartu eta izerdia kenduko dion ostalari batean apopilotzen ez bada laster batean hilko da. Zein da, bada, ostatu emango dion landarea aukeratzeko kuskularen estrategia?

Hazia ernatu eta landaretxoa luzatzen hasterako ostatu emango dion auzoa hautatua behar du. Ingurua arakatu eta zein landare jo itu? Litezkeen balizko biktimak inguruan eskuera jarri eta ia beti gogokoena, tomate landarea omen, aukeratzen du. Kakoa usaina izan zitekeenaren errezeloa piztu zenean landareen esentziak jarri zizkioten sudurrerara eta hark joera bera erakutsi. Usainak miatzen ditu, sudurrez itua biktimatu eta itulan eginez, baden eztenaz igurtziz izerdiustuko du. Ez dakigu non eta nola baina landareek usainak aditzen dituzte, usainerako adimentsu dira.

Orain landare biktimagaiei bere burua babesten erakutsi nahi zaie, bere kasa kuskulari aurre egiteko. Usain zaizkionak baino kirats litzaizkiokeenak ekoizten erakutsiz adibidez... Oraingo ospakizun hauetan esku dihoazen makina bat lurrin pototxoekin ustez ederki asko egiten dugun bezala: bizkarroiak uxatu eta gogokoa hurbiltzera premia. Bai, bai sudur ustez...

Web, CD-ROM eta paper formatuetan soluzioak alor guztietan

Ikerketa



Erremintak

Soluzioak



Zerbitzuak



INFORMAZIOAREN UNIBERTSOA

Adur SOFTWARE PRODUCTIONS

Adur Software Productions, S. Koop. (ASP)  
Industrialdea 1, 20160 Lasarte-Oria  
Tel: 943.37.18.49  
e-mail: adur@adur.com

## Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

## J'accuse

PARIS, 1898KO URTARRILAK 1. *L'aurore* egunkariaren 300.000 kopiak lehergai-lu baten efektua izan zuten Frantziako iritzi publikoan. Azalean "J'accuse" izenburuko artikulua zekarren. Felix Faure Errepublikako presidenteari zuzendutako eskutitza zen eta Frantziako armadak lau urte lehenago kapitain errugabe bat zigortu izana salatzen zuen. Kapitaina Alfred Dreyfus zen, armadako goi karguen arteko judu bakarra. Artikuluaren egilea, berriz, Emile Zola idazle handia.

1894an Frantziako Inteligentzia Zerbitzuak Alemaniako enbaxadaren zakarrontzi batean dokumentu sekretuen bidalketa frogatzen zuen eskutitza aurkitu zuen. Giro antisemitiko gero eta zabaldago hartan, antzekotasun kaligrafiko txiki bat nahikoa izan zen ikerketak Dreyfus judua erruduntzat jo zezan. Dreyfus urriaren 15ean izan zen atxilotua; Cherche-Midiko espetxean gerra kontseilua egin zioten; abenduaren 22an traizioagatik kondenatu zuten eta, ondorioz, 1895eko urtarrilaren 5ean ejerzitotik egotzi eta Deabruaren Irlara (Frantziako Guayana) deportatu zuten bizi gutzirako.

Prozesuaren irregulartasunak ikusita, kasua ikertzen jarraitu zuten Dreyfus aldekoeak. Gainera 1895ean bertan Alemaniak dokumentuak jasotzen jarraitzen zuela frogatu ahal izan zuten. Berehala ondorioztatu zuten filtrazio-

ak Ferdinand Walsin Esterhazyk egiten zituela, baina armada kontrolpean zuten eskuin muturrari esker errugabetzat jo zuten.

Dreyfusen aldeko eta kontrakoak baziren lehenago ere, baina Zolak artikulua idatzi zuenean hasi zen gizartearen benetako zatiketa. *Dreyfusarden* artean liberalak ziren nagusi: Zola bera, Georges Clemenceau, Jean Jaurés, Anatole France... Boterean zegoen eskuinak berriz kapitainaren aurkako jarrera hartu zuen. Emile Zola difamazioagatik akusatu zuten eta urtebeteko espetxe zigorra eta 7.500 liberako isuna ezarri zizkioten. Londresera alde egin zuen idazle naturalistak. Erbestetik bueltan, 1902ko irailaren 29an tximiniako keak itota hil zen; dirudienez eta frogarik inoiz azaldu ez bazen ere, ez zen istripua izan eta Dreyfusen aurkako eskua ikusi zuten askok gertakizun hartan. Baina eskutitzak piztutako metxak bere bidea egin zuen, kapitain presoarean aldeko kanpaina indartuz, eta 1906ko uztailan, azkenean, Dreyfus errugabetzat jo zuten, armadan onartu zuten berriro, baita Ohorezko Legioa eskaini ere.

Orduetik izenburu bereko artikulua mordo argitaratu da eta esaldia hainbat bidegabekeria salatzen erabili dute. 18/98 makrosumarioaren aurkako kamiseta berriaren leloak ere hala dio: *J'accuse...* ■

## ARRASTOAK



Saqqarako piramidearen ondoan aurkitu dituzte hiru dentisten hilobiak.

## FARAOIAREN DENTISTAK.

Saqqarako piramide eskalonatua da Egiptoko zaharrena (K.a. 2700). Djoser enperadorearen hilobia aurkitu zuten bertan, baina inguruak oraindik ez dira behar bezala aztertutak izan eta oraindik ezusteko bat baino gehiago gorde dezakete.

Berriki adobez eta kareharriz eraikitako hiru hilobi aurkitu dituzte bertan. Egiptoko Ondarearen Kontseilu Nagusiko zuzendari Zawi Hawass-ek adierazi duenez, hilobiak medikuei dagozkie, dentistei zehatzago esanda. Hala adierazten omen du hieroglifikoe-tako irudi batek: begi bat hortz baten gainean.

Faraoiaren ahoa zaintzen zuten izenak ere ezagutu ditzakegu inskripzio horiei esker: Iy Mry, Kem Msw eta Sekhem Ka.

Arkeologoentzat lehenaren hilobiak balio berezia du, Iy Mryren familia eguneroko eginkizunetan agertzen baita hormetako margoetan. Ate baten gainean krokodiloa eta sugea ikus daitezke, gizaki baten hankak irensten. Irudi hau ohikoa da halako aztarnategietan; sakeatzaileak uxatzeko ipintzen omen zuten (arrakasta gutxirekin).



Ezkerretik eskuinera, Emile Zola, Manetek margotua; idazleak *L'Aurore* egunkarian idatzitako testu polemikoa; eta Alfred Dreyfusen degradazioa erakusten duen azala.



# Gemma Zabaleta

Donostia, 1957. PSE-EEko kidea, EAeko legebiltzarkidea, eta Ahotsak-eko ordezkaria da. Politikarako ekimen aitzindaritzat jotzen du Ahotsak kolektiboa. Bere hitzetan, Batasuneko kide Jone Goirizelaiak eta berak iraganean landu zuten harremana –han-hemenka sarritan kritikatu– aurtengo uztailean formalizatu zen, Batasuneko eta PSE-EEko zuzendaritzak publikoki agertu zirenean: “Normalizazio prozesua alderdien mahaia osatzean egonkortuko da. Ahotsak kolektiboak alderdien dinamikari aurrea hartu dio”. Gatazkaren konponbidea baikortasunez behatzen du.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco



## «Prozesua gelditua dela baino, geldo doala esango nuke»

Ahotsak-en ekimenetako bat gatazkari irtenbidea eman liezaiokeen elkarrizketaren aldarrikapena udaletara eramatea da. Azaldu iezaguzu asmoa, arren. Ahotsak politika egiteko modu berria lantzen ari da. Gure azken agiria kontsentsuan oinarrituta dago, batzen gaituena azpimarratu dugu abiaburuan eta gure desberdintasunak, osterera, alboan utzi ditugu. Kudeaketa modu hau politikaren gainerako esparruetara eramateko xedea dugu. Gatazka ebazten ari diren politikariez gainera, herritar guztiek bake prozesuan parte hartzea da gure asmoa, emakumeek nahiz gizonek

eragile izan behar dute. Udal bakoitzean arbola bat landatu nahi dugu, bake eta errekontziliazioaren sinbolo. Gernikako Arbolak euskaldunok historian politika egiteko izan dugun modua –elkarrizketaren bidezko politika– sinbolizatu eta gerizatu du. Udalen bidez, bake eta normalizazio prozesua herrian sustraitzea da gure nahia.

**Ahotsak indartsu agertu zen prozesua abiatzean, prozesu ahuldu ahala Euskalduna Jauregian agertu da berriz ere.**

Hala ere, Ahotsak ez da prozesuaren garapenaren araberako ekimena.

Okerra da pentsatzea prozesua ondo doalako desagertuko dela eta gaizki doalako aktibatuko dela. Gure agirian gatazka gainditzeko hiru premisa funtsezkoak daude. Lehena: bakeak edukiak behar dituela diogu, normalizazioa ez dela hutsa. Bigarrena: demokraziaren zuzenbidezko printzipioei ekin behar zaiela, giza eskubideak errespetatuz. Eta hirugarrena: aukera politiko guztiak defendagarriak eta gauzagarriak izatea eskatzen dugu, erabakitze eskubidea errespetatuz. Euskaldunok har dezakegun erabakia errespetatu behar dela

diogu, egungo marko juridikoa mantentzeko zein aldatzeko. Horiak dira agiriaren klabeak, berauek ez dira alderdien mahaiak —praktikan jarriko denean— etorkizunean erabakiko duenetik oso urrun izango. Ahotsak-ek alderdiei aurrea hartu die berriz ere.

**Ahotsak-en ekarpena kontuan hartuko al dute alderdiek? Bien bitartean, zer gehiago egin dezake Ahotsak-ek?**

Agiriak eduki politikoa dauka. Lehendakariak inbestidura saioan agiria prozesuaren oinarria izatea planteatu zien alderdiei, gatazkaren ebazpenarako gakoak bertan daude-eta. Bien bitartean, udalen sostenguaren bitartez gizartea aktibatu nahi dugu prozesuan ari diren eragile guztiei eta bereziki ETARI eta Gobernuari prozesuak ez dezala atzera egin exijitzeko.

**Pentsa daiteke emakumeek gizonek adina kargurik betetzen ez dutelako gauzatu dela Ahotsak-en kontsentsua?**

Egia da. Gu ez gaude politikaren lehen lerroan, ez gaude oro har karguari horren lotuak eta horregatik bake prozesuari heterodoxia puntu bat eman ahal diogu. Izan ere, ez da prozesurik izango heterodoxiarik gabe, munduko inongo gatazkan ez da irtenbiderik izan heterodoxiarik gabe. Irlanda edo Hego Afrikako helburuak ez ziren lortuko nor bere lerroak atera gabe. Irlandan emakumeen koalizioak berealdiko rola jokatu zuen. Areago, emakumeek alderdi politiko bat eratu zuten elkarriketa mahian egoteko.

**Ahotsak alderdi bezala osa al liteke?**

Ez. Ez dugu inongo arrazoirik hori pentsatzeko. Besterik litzateke politika guztiz ezindua geratzea eta herritarrek eskabide hori egitea. Ez dut egoera politikoak okerrera egingo duela imajinatzen, ez gaude egoera horretan, hobera bidean goaz.

**Prozesua ez dago erabat lur jota, beraz.**

Ni baikorra naiz. Ez dut prozesuaren egoera uanean uneko gertaeren arabera baloratzen. Perspektiba diakronikotik so egiten diot prozesuari, ez modu sinkronikoan. Alegia, Aznarren Gobernutik Zapateroren Gobernura emandako giro politikoaren aldaketa baloratu behar dugu. Eskuineko gobernuentzat arazoa terrorismoa da eta berau akabatzea. Ez dute

*“Nik egoera kontrajarri honen aurrean, legean aldaketak egingo nituzke Batasuna lasaitzeko eta legalitatera etortzen laguntzeko”.*

arazoaren baitako arrazoi politikorik onartzen. Zapateroren Gobernuak aldiz, politikaren bidez ekin die arazoei. Zapaterok irtenbidea aurkitzeko bideak bilatu ditu. Hori berez baikorra da. Aldaketa itzela da. Bidea ondo tratatua dago, irtenbidea elkarriketaren bidez etorriko da. Euskal arazoaren konponketa parametro horietan jartzea, ebazpena lortzeko bide bakarra da. Gatazkaren parametroak ondo finkatuta daude, gainera berauek ez ditu Gobernuak ezarri soilik, ezker abertzaleak ere ezarri zituen Anoetako proposamenean. Besterik da, une oso delikatuak bizitzeta eta prozesua bera moteltzea.

**Zer gertatzen da ordea?**

Baldintzetako bat ETAREN su-etena zen. Baina baldintza perfektua ez izatea aurreikusi beharrekoa zen. Nik prozesua gelditua dela baino, geldo doala esango nuke. Bi errailek eboluzionatu behar dute. Batetik, ETAREN eta Gobernuaren arteko elkarriketek desarme prozesuan aurreratzeko eta presoaren arazoa konpontzeko modua aurkitu behar dute. Bestetik, alderdien arteko esparrua finkatu behar da Batasunaren parte-hartze legalarekin.

**Batzuen ustez, Batasunak ez du Anoetako proposamena bete. Zure ustez?**

Anoetako proposamena gakoak da prozesuan, eta ezker abertzaleak bereari eusten diolakoan nago. Nik ere Anoetako gidoiaren alde egiten dut, gidioa garbia dela iruditzen zait. Presoen esparruan aldaketak eman behar dira, baina Gobernuaren pau-



soak ETAK desarmatzeko duen borondatearen arabera izango dira. Baliteke puntu hori oso une delikatuaren egotea. Halaber, prozesua motelduta dago, Batasuna ez dagoelako legalizatuta. Ziur aski, uneon, bakoitzak elkarriketak bere modura interpretatzen ditu eta horregatik aldeek talka egin dute. Prozesuan akordioak eta desakordioak izango dira, inportantea ordea elkarriketak ez etetea da, eta ez dira eten. Horrek mantentzen du prozesua bizirik.

**PSE-EEK prozesua bultzatzen duela dirudi, eta Zapatero defentsiban dagoela.**

Ez dut uste. Zapateroren Gobernuak alderdien arteko elkarriketa bilatzen segitzen du. Horrek baimenduko eta bideratuko du aurrera segitzea. Espe-txe politikan aldaketak eskatzen dira, baina hauek ETA eta Gobernuaren arteko elkarriketatik etorriko dira. Nik horretaz ez dut deus esateko, ez dut esparrua ezagutzen. Nik nahiago dut esparru politikoaz mintzatzea.

**Batasuna legez kanpo egoteak prozesua moteltzen duela diozu. Batasunak**

## legala izateko ETaren biolentzia gaitzetsi behar al du?

Biolentzia kondenatzea behar morala da, ezker abertzaleari betidanik eskatu zaion aurre-baldintza. Alabaina, badago antzeko kategoriako beste betebeharrak bat nik uste: bakearen alde lan egitea. Batasunak hori erakusten badu, eta Anoetan horren alde egin zuen, Batasunak oraingo testuingurua gainditzeko modua bilatu badu, gainerakoek formula bat bilatu behar dugu Batasunak politikan eta legaltasunean joko dezan.

## Non daude legalizatzen oztupoak?

Ziur aski, egoeraren interpretazioan. Batasunak estatutu berriak aurkeztu arren, ez zaiola politikan parte hartzea bermatzen pentsa dezake eta epaileek estatutuak deuseztatu ditzaketela berriz ere. Beste parteak, agian, ez du hori horrela ulertzen eta estatutuen zain dago. Nik egoera kontrajarri honen aurrean legean aldaketak egingo nituzke Batasuna lasaitzeko eta legalitatera etortzen laguntzeko.

“Anoetako proposamena gakoa da, eta ezker abertzaleak bereari eusten diolakoan nago. Anoetako gidoiaren alde egiten dut”

## Prozesuarekin itxaropentsua zara.

Gorabeherak gorabehera, prozesuan ari diren parte guztiek erabakiak hartuta dituztelakoan nago. Espainiako Gobernuak nahiz ezker abertzaleak.

## Baita ETak ere?

Horretaz zailago zait hitz egitea. ETaz oso gutxi dakigu, ezin dut deus iragarri beraz. Nik ezker abertzaleak prozesuarekiko hartu duen erabakia sendoa dela uste dut. Elkarriketaren bidezko politika da irtenbide bakarra, errezeta unibertsal bakarra, beste gauza bat da nola aplikatzen den tokian tokiko arazok konpontzeko. Uneon Espainiako Gobernuak eta ezker abertzaleak hori landu nahi dute, oinarriak

eta eszenategia sendoak dira oso, ibilbide horretatik irtenbidea etorriko dela itxaron dut.

## Alderdien mahaia aipatu dugu. Autodeterminazio eskubidea edo erabakitze eskubidearen planteamendu moduak trabak izango dira.

Autodeterminazio eskubidea euskal gizartearen parte batek aldarrikatzen du eta beste batek ez. Baina gauza bat da eskubide hori –edo erabakitze eskubidea– aldarrikatzea eta beste bat euskaldunon gehiengoaren nahia. Euskaldunon gehiengoak nahi duena printzipio demokratikoen errespetuan oinarritzen bada, hau da, gehiengoak bere eskubideak gainerako espainiarrengandik bereiz garatu nahi baditu, ordenamendu juridikoak gor egingo lioke eskabide horri?

## Zure ustez?

Nire ustez aldarrikapen hori gehiengoak egiten badu, irtenbide juridiko bat eman beharko zaio. Lehenik ordea, euskal herritarrek marko juridikoa aldatu edo mantendu nahi ote duten erabaki behar dugu. Hartara, gatazkaren egungo erradiografia ezagutuko genuke.

## Nola egin daiteke erradiografia hori?

Herritarrei oraingo marko-juridiko politikoak zer pentsatzen duten kontsultatuz, markoa balio zaien edo ez jakiteko. Espainiako Estatuak konplexua da, nik estatu federalista inperfektua deitzen diot. Euskaldunen gehiengoak nahi ez balu beren eskubideak Espainiako gainerakoekin erabakitzea, modu independentean baizik, demokrazia sendo batek formula juridiko politiko bat arbitratu beharko luke hori posible izan dadin.

## Hori eman daiteke normalizazio prozesu honen bidez?

Prozesuaren une honetan ez dakit, baina gatazkei irtenbide politiko-juridikoa eman behar zaie, lehenik bere dimentsioa ezagutzeko eta gero irtenbidea bilatzeko. Betiere legeen markoan, ez legez kanpo. Esaten bada proiektu politiko guztiak defendatu daitezkeela demokrazian, praktikara eraman behar dira, bestela hobe da esatea ez direla denak defendatzen ahal. ■

**gaztelupeko HOTSAK**  
Tel: +34 943 753016  
Fax: +34 943 750139  
gaztelupeko@hotsak.com

**WWW.HOTSAK.COM**



**BIDE ERTZEAN**  
Non dira



**KARIDADEKO BENTA**  
San Quirico



**HAUXE**  
Txuma Rafa Petti



**TXUMA RAFA eta PETTI**  
Hauxe



**CONXITA**  
Amb lletra petita



**ATERKINGS**  
Aterqueens



**LOS REYES DEL KO.**  
Hot tin roof

# Gregorio Biteri Mendieta

Elosuko azken euskara hitzuna

## «Ahaztu ere ez dakit zelan ez zaidan egin»

Irakasle eta ikasle bat baino gehiagok jo izan du Elosura (Araba), euskaraz egingo dion hiztunaren bila. Ez dago aukera handirik; bi ziren artean. Aurten baina bakarra dugu urte bukaeran: Gregorio Biteri Mendieta. Azken hiztunaren abentura.

MIEL A. ELUSTONDO


Argazkiak: Zaldi Ero

**GREGORIO BITERI** eta Segundo Jauregizuria, bi euskaldun Elosun. Adin handikoak biak. Ez bata ez bestea dira Elosu bertakoak. Lehena, Biteri, bertatik hur jaio zen, Nafarraten, eta inguruari dagokion euskararen jabe oso da oraindik. Hori du berezko altxorra. Bigarrena, Jauregizuria, Leioan jaio zen, eta hangoxe erara egiten du berba. Euskara hitzun bakarrak ziren Elosun. Aurten, ordea, alargunduta eta bakarrik, Gasteiza jo behar izan du Jauregizuriak. Engoitik ez dugu, Biteri ezik, euskaraz ondradu hitz egingo digun beste inor Elosun.

### Txikitandik dakizu euskara zuk.

Bai. Nik lehenengo ikasi nuena euskara zen. Nik ama ere giputza neukan. Bedoñakoa, Aretxabaletakoa. Aita hemengoa zen, Elosukoa. Ni Nafarraten jaio nintzen. Gurasoak Elosun bizi izan ziren hainbeste urtetan eta gero Nafarraten erosi zuten baserri bat eta hara joan ziren bizitzen.

**ARGIA** 52 Etxean euskaraz eta eskolan gaztelaniaz?



Biteri 36ko gerra aurreko euskara giroaz: "Galarazita ez, baina ez zen egiten, galarazi gabe ere... Nahiko galarazita hala ere, txarto hartzen zuten eta!".

Etxean euskaraz egiten genuen neba-arrebekin, aitarekin, amarekin eta guztiekin. Euskaraz. Eskolara Urrunagara joaten ginen. Ordu laurden oinez. Mendia zen, baina samurra. Han dena zen erdaraz. Beti erdaraz.

### Eta zuk, bazenekien erdaraz?

Bai, baina euskaraz hobeto. Nafarrateko beste mutiko batzuek erdaraz egiten zuten eta eurekin ikasi nuen. Eskolan erdaraz egiten genuen, eta olgetan ere bai, erdaraz. Urrunagan asko zeuden euskaraz ez zekitenak, nire edadekoak. Eskolan ondo ibili nintzen.

### Kastigurik bazen?

Bai, bazen kastigua. Makilatxo batzuk zeuzkan irakasleak eta makilarekin eskuan jo eta...

### Txarto portatzeagatik, edo euskaraz berba egitearren?

Euskararen gainean ez zigun sekula ezer esan. Bertakoa zen. Ziraungoa. Hortxe da Ziraun, herri txiki-txikia. Eskolan hogeita hamar ume edo izango ginen, denak batera, zazpi urtekoak eta hamalaukoak. Nik hamalau urte neuzkanean gerrak irten zuen eta orduan ia ez zen klaserik egon. Gerra hasi baino lehen genekien guk gerra zetorrela, ze herriko abadea geneukan etxean. Hark periodikoa hartzen zuen egunero. Giputza zen.

### Haren izena gogoan daukazu?

Don Domingo Jakakortexarena.

### Txomin Jakakortexarena?!

Famatua, ezta? Gure etxean egon zen hiru urtean. Liburuak ere egin zituen euskaraz. Erleen gainean eta. Ni izan

## Muga aldeko euskara

Legutiano inguruetako euskararen gaineko azterlana (*Legutiano aldeko euskara*) kaleratu zuten iaz Iñaki Carrerak eta Imanol Garciak. Lanari sarrera egiten dion testuan, honela mintzo dira egileak: "Jende gehienak pentsatzen duenaren kontra, Arabako alderdi honetan [Legutiano-Billerle, Elosu, Nafarrate, Urrunaga, Goiaín eta Urbina] gaur egun ere oso erraz aurki daitezke bertako euskara duten euskaldunak. Hauetako batzuk inguruko herrietan bizi dira, edo Gasteizera etorri dira bizitzera. Beraz, Aramaio ez da Araban daukagun udalerrri euskaldun bakarra, euskaldunena baizik. Aipatzekoa da herri hauek guztiak Gasteiztik oso gertu daudela eta dagoen hizkera Arabako jatorrizko euskararen muga litzatekeela".

Muga aldeko euskararen jabe bakarrenetako da Gregorio Biteri.



**Ilobei buruz:** "Nire seme nagusienak esan zidan: 'Hauei hitz bat ere ez erdaraz, euskaraz dena!'. Eta orain dena euskaraz! EGA daukate laurek".

mutil gazte bat, alkandora beltzarekin eta pistola paparrean ipini eta, "¡Hable usted cristiano!". Ez dakit zer esan zigun gero. Barbaridaderen bat. Esan ere ez liteke eta!

**Borroka latzak izan ziren hemen inguruan...**

Bai. Hemen alde bietara joan zen jendea. Nazionalak esaten zitzairen orduan batzuei eta gorriak besteei. Denek zekiten euskaraz. Egin ere egiten zuten.

**Eta gerra ostean?**

Gerra ostean gure artean bai, egiten genuen euskaraz. Baina, bestela, buf!, euskaraz? Erdaraz dena!

**Gerra aurreko Aberri Eguna Gasteizen... 1934. Euskaraz bazenekiten baina ez zenuten egiten. Galarazita zegoen euskaraz berba egitea?**

Ez, galarazita ez, baina ez zen egiten, galarazi gabe ere... Nahiko galarazita hala ere, txarto hartzen zuten eta! Etxean egiten genuen, bai, eta kalean ere bai, baina geure artean. Gero, hemengo gazteek, apur bat zekite-nek, ahazten utzi zioten euskarari. Guk ez!

**Hemen ondokoa, Ollerrieta auzokoa egin zenuen andrea.**

25 urte egin baino egun batzuk lehenago ezkondu nintzen. Andreak aditu bai, aditzen zuen euskaraz. Haren aitak eta amak euskaraz zekiten, baina ez zuten egiten eta! Guk seme bi dauka-gu eta ez dute euskaraz egiten, ez segidoan egiteko moduan.

**Hortxe galdu da, beraz, hemengo euskara...**

Gure semeen eskola beti erdaraz zen. Eskola hemen bertan geneukan, plazan. Ume asko egon zen han. Berrogeitaka egongo ziren batera. Maisuak Zamorakoak eta, asturianoak eta, ziren. Ez zuten ezer esaten euskararen kontra ez alde.

**Noizkoa da, hortaz, euskararen aldeko giroa Elosu bueltan?**

Legutianon ikastola eta eskola publikoa sortu zirenean hasi zen. Ez dut uste hogeita hamar urte izango denik. Horrenbeste ez. Nire lau ilobak horra hasi ziren, eskola publikora, eta ederto ikasi zuten. Orain, laurek dakite ederto euskaraz. Eskola publikoan eta neurekin ikasi dute. Nire seme nagusienak esan zidan: "Hauei hitz bat ere ez erdaraz, euskaraz dena!". Eta orain dena euskaraz! EGA daukate laurek. Haiek batua egiten dute, baina ondo aditzen diogu bata besteari. Apur bat neurekin ikasi dute eta gauza asko neuk egiten dudana moduan egiten dute eurek ere.

**Herrian inorekin euskaraz egiteko modurik baduzu?**

Nik euskaraz, hemen, Segundorekin egiten nuen. Eta anaia hil arte, anaia-rekin. Baina anaia urte asko da hil zela. Gero, Segundo egon zen hemen, euskaraz zekiena. Baina Segundorekin ere... igoal aste guztian ez ginen batzen eta! Gainera, orain Segundo Gasteizen dago, erresidentzian... Ahaztu ere ez dakit zelan ez zaidan egin euskaraz! ■

Babeslea: Eudel

**udal**e

**EUDEL** EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA  
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

**Udal arteko Euskara Sarea**

EUDEL: Zabalgune Plaza 5 • 48009 Bilbao

Tel.: 94 423 1500 • Faxa: 94 424 3947

e-posta: eudel@eudel.net

**www.eudel.net**

# Bero-beroan

## Korrika 15

**MARTXOAREN 22AN** hasiko da Bizkai-ko Karrantzan eta apirilaren 1ean bukatuko da Iruñean, 2.000 kilometrotik gora eginda. Aurten Korrika 15ek Euskal Emakumea omenduko du euskararen eta euskal kulturaren mantentze, berreskurapen eta etorki-unean izan duen egitekoagatik.

## Sinadura bilketa Zaraitzu eta Erronkarin

**ZARAITZUKO** Xardoki eta Erronkari-ko Kebeneko elkarteek sinadura bilketa abiatu dute, Euskararen Legea aldatzeko eta bailara horietako 24 udal eremu euskalduneari sartzeko eskatzeko. Urtarrilaren amaiera arte luzatuko da kanpaina eta ondoren, bildutako sinadurak Nafarroako Parlamentura igorriko dituzte.

### BAHEA

**Patxi Gaztelumendik** [Gaztelumendi.org](http://Gaztelumendi.org)-en Durangoko Azokaz esanak: “Euskal esaten diogu eta erdarazko liburuak zentzutu dituzue? ‘100 razones para dejar de ser español’ dio Jose Mari Esparzak liburuan, baina oraindik espainolen hizkuntzan mintzo zaigu, Euskal liburu eta disko azokan. Arrazoi bat gehiago beharko du oraindik, euskalduna izateko (...) Euskara gutxiengo izaten ari da, euskal liburu eta disko azokan ere. Eta ez da ezer pasatzen, ez dago krisi berbarik horregatik”.

**Xabier Andonegik** [erabili.com](http://erabili.com)-en esanak: “Zer gertatu behar da euskaraz ‘googleatu’ existitzeko? Euskarak aspaldi sortu zuen aditzak garatzeko sistema (...) Bidea badugu, beraz; iturria da auzia (...) Euskaldunak ‘atzo honako hau googleatu nuen’ esateko, lehenago gure artean gaztelerez zabaldu behar da ‘ayer googleé lo siguiente’. Bai, gaztelerez esan behar dugu hori lehenago, gaztelera baita euskarak duen ia iturri bakarra”.

## UEMAk batzarrik ez

**ABENDUAREN 16AN**, Zestoan (Gipuzkoa) batzar nagusia egitekoa zen UEMA Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Ez zuten batzarrik egin quorumik ez zegoelako -26 lagun baino ez ziren bertaratu-. Ez da lehenengo aldia arrazoi beragatik batzarrera egin gabe geratu dela; Alegian beste hainbeste gertatu zen uztailen. Abenduaren 16ko batzarrean lau gai zituzten hitz egiteko: lehendakari berria aukeratzea, Alegiako Udalak UEMAn sartzeko egindako eskaria aztertzea, urteko balantzea eta 2007ko egitasmoak.

## Zientzia eta Teknologiaren corpusa

**EHUKO IXA TALDEAK** eta Elhuyar Fundazioak osatu dute euskara iker-

tzeko hizkuntza baliabide hori. Euskarazko lehenengo corpus espezializatua da. 1990 eta 2002. urte artean argitaratutako zientziaren eta teknologiaren alorreko lanak hartu dituzte kontuan corpusa osatzeko eta zortzi milioi hitz ditu. Corpusa [www.ztc-corpusa.net](http://www.ztc-corpusa.net) web gunean kontsulta daiteke.

## Azterketa kuantitatibotik kualitatibora

**UNESCO ETXEAK** eta Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin dute hitzarmena. Herritarrei galdetuko diete zein iritzi duten elebakartasunaz, elebitasunaz eta eleaniztasunaz. Ikerketaren ardurara Unesco Etxeko hizkuntzalari talde batek izango du.

## AHTren lanak

Eusko Jaurlaritzako arduradunek, lehendakaria buru dutela, etengabe esaten digute herriaren nahia eta elkarrizketa bermatu behar dela. Eta, hala ere, esatea eta etsenplu ematea bi gauza dira. Orain baino lehen, ikusi ahal izan dugu nola ulertzen duten Ibarretxek zioen “egunsentira arteko elkarrizketa” hura eta herriaren nahia errespetatzea. Lemoiz, Itoitz eta Boroa herriaren nahia eta elkarrizketa kontuan hartu ez izanaren adibide lotsagarriak dira. Orain AHT egingo zela esan zutenetik, bera egiteak sorrarazi duen gatazkaren aurrean gaude, azken asteotan areagotu egin baita lanak hasi direlako. Lanok hasita, Eusko Jaurlaritzak “informazio” prozesua abian jarri du. Berandu, gaizki eta informazioa manipulatu. Bitartean, aspaldidanik AHTren kontra daudenak gero eta gehiago dira eta alde aurretik gizartean eztabaidagai izan dadin eskatzen dute. Dagoeneko hainbat herri jasan dituzte eraginak eta gehiengoaren kontra azaldu da herri kontsultan. Herri manifestazioak astero egiten dira. Gobernuaren erantzun bakarra errepresioa eta informazioaren manipulazioa eta intoxikazioa izan da. AHTren kontra daudenak eskubide osoa dute beren ikuspuntuak azaltzeko eta ekologian, gizartean, nekazaritzan, ekonomian eta lurraldean dituen eraginei eta kostuei buruzko herri eztabaida eskatzeko. Eta horretarako lanak gelditu daitezkeen eskatzen dute. Ibarretxeren Gobernuak, orain arte, ez du aukera hau eman eta bere erabakia inposatu du. Aldez aurretiko inolako eztabaidarik gabe. Hau ez da etsenplu ona ematea.

Juan Mari Arregi

CONCIERTO DE INVIERNO **2006** **HEGUKO KONTZERTUA**

In “Te doy una canción”

Abenduaren **29** diciembre 20:00  
12 € ([www.generaltickets.com](http://www.generaltickets.com), Telekutxa)

CHILLIDA  
[www.museochillida.com](http://www.museochillida.com)

XABIER LETONA

MALTZAGATIK


## Poza eta amorrua

**POZA** da Egunkaria auzian fiskalaren jarrera berria ezagutzeko azaleratutako lehenbiziko sentipena. Eta amorrua bigarren. Hori izan da oro har erreakzioetan ikusi dena. Zorionez, ezpata burutik aldentzean, poza samur gailentzen zaio amorruari, pertsonaren inteligentziaren eremuko erreakzioa da. Egia da oraindik ez dagoela dena

esanda, ezta pentsatu ere, baina asko bai. Balantzak epaiketarantz joko duen ala ez, gainera, di-da batean ezagutuko da.

Ondo da, baina zergatik jarrera aldaketa orain? Justizia ohartu da, ala ohartarazi dute? Eta dagoeneko, bistan da ezin dela inozokeriekin ibili, bultzada politikoaren hipotesia gailentzeko tartea besterik ez da gertatzen. Oraindik, ordea, Auzitegi Nazionaleko lasterketa osoa amaitzea falta da eta, hemen, azken unera arte ez da jakiterik lehia zertan bukatuko den, hori ere ikasitakoen artean dago; PPren mundua ez dago geldi.

**BAINA** fiskaltzaren neurri horrekin ez zaio Egunkaria auziari bakarrik begiratu. Argi gorriak piztuta dituen bake



prozesuari auziari beste begiratu zaio. Ez da dudarik berri ona dela keinu jokoetarako, eta hobe litzatekeela, gisa honetako beste neurri batzuk gabonetako giroan Euskal Herriratuiko balira. Estatuaren aldetik —berdin da bere zein boteretan— mugimendu zentzuzkoren bat egiteko ordua ere bazen. Une garrantzitsuan etorri da gainera, udazkenaren bukaeran, ETAK hitz egindako epeetako baten bukaeran.

Argi da honek bakarrik ez duela argi gorria berde bihurtuko, baina urratsak ikusten diren bakoitzean esperantza pizten da han-hemenka. Orain artekoak ikusita, logikoena litzateke pentsatzea prozesu honek, hasieran iragarri bezala eta Txema Monterok iragarritakoaren aurka, luze joko duela. Egia


da Espainiako Gobernuak ez duela mugimendu handirik egin, aitzitik, irudituko luke elkarrizketa giroaren aurka aritu dela, baina hala ere, euskal gizartean nekez ulertuko litzateke prozesuaren etenik. Arrazoi nagusi bategatik, bakea desio delako eta gatazka bortitzaren itzulerarik ez delako nahi. Hori, nahiz eta jakin, orain arte Espainiako Gobernuak

—behintzat publikoki— ezer gutxi jarri duela prozesua elikatzeko.

**POZA** emango luke jakitea, epaile batek atxilotuen komisaldegiko pasarte osoa bidez hartzeko agindu izanak tortura ezabatzen lagundu duela. Amorrua emango luke jakitea epaile hori bera zela, hostasun handienaren jabe, torturak txikitutako dozenaka lagunei deklarazioa hartzen zien. Eta tortura desagertzeko bidean jarriko balitz, berriz ere poza gailenduko litzaioke amorruari.

Bada bideoaren kontu honetan bake prozesurako seinale onik ikusten duenik, hau torturaren amaieraren hasiera bada, hori gatazka honek bereak eman dituelako dela pentsatzen duenik.

Argitalpen honen edizioan lankide:



# k u t x a

# Net Hurbil

PELLO ZUBIRIA

## Kantzerrean aditu nagusia erosita zeukan industriak

Hona istorio simple eta beldurgarria: 1950ean tabakoak biriketako kantzerra eragiten zuela demonstratu zuen jakintsu britainiarra, geroago Monsanto eta beste multinazional kimikoek erosi zuten. Urte asko beharko dira Sir Richard Dollek bere txostenekin egin kalteak konpontzeko.

**ABENDUAREN 8AN SARA BOSELEY** kazetariak Britainia Handiko *The Guardian* egunkariak plazaratu duena historiako orrietan iltzatuta geratuko da. Hona kronikaren hasiera: “Munduan famatua den zientzialari britainiar batek ez zuen aitortu hogei urte baino gehiagoz korporazio kimiko batek soldata pagatzen ziola, bera kantzer arriskuak ikertzen ari zen garai berean. Sir Richard Doll, tabakoa erretzeak birikako minbizia eragiten duela erakutsi zuen epidemiologo ohoratua, egunean 1.500 dolar ari zen kobratzen 1980ko hamarkada hasieratik, orduan konpainia kimiko nagusia zenaren, eta gaur gehiago Genetikoki Eraldatutako hazien negozioagatik ezaguna den, Monsantoaren eskutik”.

Historian bere txokoa 1950ean erdietsi zuen Richard Doll zientzialariak, demonstratu zuenean –zalantzari zirrikituak oro itxita– tabakoak kantzerra eragiten zuela. Hori gainera milaka inkesten ikerketa estatistiko zorrotza eginez lortu zuen. Garai haientarako aurkikuntza harrigarria zen: zigarretak arrisku gabeak zirela uste zuen jendeak, eta pipatzeko moda mundu osoan ari zen nagusitzen. Britainia Handiko gobernuak 1954an onartu zuen tabakoaren eta kantzeraren arteko lotura, baina urte asko pasa beharko zuten ideia hori zabaldu eta herrialde aberatsenetatik hasita erretearen kontrako kanpainak hasi arte.

1912an Londresen sortua, bere gurasoek –medikua aita, piano jotzailea ama– Richard gaztea mediku egitea nahi omen zuten, baina honek matematikak nahiago; azkenean medikuntza ikasi zuen, baina beti atxiki zuen matematikekiko zaletasuna. Ikasle garaian ezkerreko mugimenduetan ibili zen, eta Moskura bisita egin zuen. 1930eko hamarkadan langabeziaren eta faxismoaren kontrako mobilizazioetan ere parte hartu omen zuen.

Gerra itsasontzi militar batean mediku lanetan eman zuen. Gudu bukatutakoan, matematikak eta sendagiletza uztartzeko aukera iritsi zitzaion: Ingalaterrako Medikuntzako Aholku Batzordea ikertzen ari zen kantzeraren eta ingurumeneko faktoreen arteko lotura, orduan pentsatuz ikatzezko motorrak izan zitezkeela erudun nagusiak. Talde horren buru zen Austin Bradford Hill-ek deitu zion epidemiologia alorreko ikerketarako, eta hari horretatik tiraka lortu zuen tabakoaren kaltegarritasuna demostratzea.

Lehenbiziko eztabaida eta arazoan ondoren, Dollek bere emaitzak inkesta berriekin berretsi zituen, eta harrezkero ohoreak pilatzen joan zen urteekin batera. *The Guardian* egunkariak berak hala zioen 2002. urtean laudoriozko kronika batean: “Richard Doll erretiratu zen, teoriarik bederen, duela

hogei urte, baina jarraitzen du ikerketa gose ase ezinez. Baditu 400 lan baino gehiago argitaratuak eta 20 sari baino gehiago irabazi ditu, azkena joan den astean Norvegiako Olaf Va erregeak kantzeraren inguruko lan nabarmenagatik eman diona. Oraindik egunero egiten du lan, Oxfordeko Kantzer Ikasketen Unitatean, eta bere buruari opa dion opari bakarra da goizeko 10:00etan hasia lanean, horregatik dauka eskubidea gosaria ohean jasotzeko”.

Ohore horiekin guztiekin urrezko hizkiz geratu zen markatua Sir Richard Doll historiaren orrietan... baldin eta kasualitate batengatik urte luzetako bere sekretu bat haizatu ez balitz. Moral tatxagabeko gizon hau diruz erosita zeukaten.

### Eguneko 1.500 kobratu eta santu

Hona zer zioen Monsanto multinazionalako medikuntza eta ingurumenaren osasun sailaren zuzendari zen George Roush Jr.-k Sir Richard Dolli 1986ko apirilaren 29an: “Dear Sir Richard. Gutun honen bidez proposatu nahi dizut 1979ko maiatzaren 10etik Monsanto Company-rekin daukazun Aholkularitza Hitzarmena zabaltzea. Aholkularitza Hitzarmen hau, agiri honen bidez, urtebete gehiagoz luzatzen dugu, 1986ko ekainaren 1etik 1987ko maiatzaren 31ra. Urte horretan zehar zure aholkulari-ordainsaria egunean 1.500







Ezkerreko erretratu txikian ageri dena da Sir Richard Doll. Ez zen izan tabakoa eta kantzerra lotzen lehena –nazien osasun sistema ondorio berera iritsi zen 1930ean, baina ikerketa ez zen zabaldu–, bai ordea zientzialarien artean egiaztat ezarri zuena. Medikuntzan sinesgarritasunik handiena lortu zuen, eta Ingalaterrako koroak ohorerik handienak eskaini zizkion. Azken urteotan zenbait ikertzailek eta ekologistak salatzen zuten, Dollek sistematikoki ematen zituela ontzat industriaren interesei zegozkien analisiak, kutsadura kimikoaren alorrean batez ere. Vietnamgo gerran erabili zen *agent orange* pozoiak –ikus ondorio batzuk argazkietan– kantzerrik ez zekarrela defendatu zuen Dollek, eta beste gai kimiko askoren produkzioak ere ez, binilo-kloruroarenak barne. Iaz hil zen Doll, eta hilabeteotan bere paperetan arakaturik aurkitu dute Monsanto multinazionalarekin zeukan kontratua.

tral nuklearren erradiaktibitate apalak, autoen erregaiak, nekazaritzakoak, plastikoen fabrikazioak eta abar, giza osasunean zeukaten eragina. Baina banan-banan denetan azaldu zen Doll kontrako iritzia ematen, industria handiaren interesak defendatzen. *The Ecologist* hilabetekariari orduan falta zitzaion guk daukagun datua: sosa. Hain zuzen, 1979an sinatu zuen Monsantoarekin kontratu ezkutua.

1985ean Australiako Gobernuak agindu zuen ikertzea ea Vietnamen amerikarrek jaurtitako *agent orange* pozoiak –Monsantok ekoiztua, oiha-na ihartzen duena– kantzerra eragin ahal izan zien soldadu australiarrei. Inork eskatu gabe, Richard Doll famatuak bere txostena bidali zien, horrelakorik ez zela demostratu, eta hori zioten zientzialariak funtsik gabe ari zirela argudiatuz.

1988an beste ikerlan bat plazaratu zuen, PVC plastikoa egiteko erabiltzen den binilo-kloratoak kantzerrik eragiten ez duela erakusteko. Paper hau gainera, espreski ordaindu zion –soldataz gain– industria kimikoaren elkarteak. Doktoreak ez zuen aitortu inon, noski. Eta hori bezala, behin eta berriro errepikatu zituen erradiazioa, ongarririk kimikoak, kutsadura edo industria kimikoa kantzerrarekin lotzen zituzten informazioak.

Historian lekua badu engoitik Sir Richard Dollek: bere produktuen arriskuak salatzen dituzten ikerketa berriak zikintzeko, multinazionalak erosi zuten aditua. ■

<http://www.argia.com/nethurbil> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.

dolarrekoa izango da. Gainerakoan, 1979ko maiatzaren 10eko Aholkularitza Hitzarmenaren baldintzak bere horretan atxikiko ditugu...".

Agiri horretaz gain, *The Guardianek* jakinarazi du 15.000 dolar gehiago ordaindu zizkietela Industria Kimikoaren Elkarteak eta Dow Chemical korporazioak binilo-kloratoaren –plastikoetan asko erabiltzen da– eta kantzerraren arteko balizko loturei buruz idatzitako txosten batengatik. Gero, gainera, gertatu zen Munduko Osasun Erakundeak ez zituela onartu Dollen txostenaren ondorioak.

"Albiste hauek –idatzi du Sara Boseley kazetariak– ezinegon ekarri dute zientzialarien eta Richard Dollen miresleen artera; eta zatiketa handiagotu dute kantzer kopuruen igoera bizimodu modernoaren ondorio dela

uste dutenen eta produktu kimikoen eta kutsaduraren ondorio dela uste duten ekologisten artean".

Baina Sir Richard Dollen lanaren inguruko eztabaida lehendik zetorren. 1998an *The Ecologist* aldizkariak plazaratu zuen Martin Walker-en artikulua, titulu honekin: "Sir Richard Doll, kantzerraren 'stablishment'aren zutoin eztabaidagarria". Artikulu luze hau hasten zen alderatuz zer nolako oihartzuna eman zitzaion komunikabideetan 1979an Dollek erretzaile pasiboek ere kantzer arriskua zutelata publikatutako informazioei, eta aldi berean, zein oharkabean pasatu zen nekazaritzako ongarririk kimikoek osasunean duten eragin kaltegarriaz egin ziren aurkikuntzak.

Ordurako, aditu batzuk aspalditik ari ziren beste kutsadura askok, zen-



K A L I T A T E A

Produkturik onenak,  
Zinkunegi Optikan

Aukerarik zabalena  
betaurreko graduatu,  
ukipen-lente,  
audiofono eta eguzkitako betaurrekoetan.

ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani, 4 - 20004 DONOSTIA  
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net  
TEL.: 943 420 624

Nekane San Miguel

## Aurrera bolie!

S

arritan esaten zuen gure aita zenak esamolde hori. Arrasaten ohikoa non-bait, eta gerora hemen jaiotako etakide ospetsu bati maiz entzunda edo, Euskal Herri osora hedatu zen duela urte batzuk. Ez dakit nik umetatik jaso nuen zentzu berean ulertu edo barneratuta den, ez baitzait hala iruditzen askotan.

Gauzak oker zetozenean erabili ohi zen “aurrera bolie!”. Ez dakit goiari eusteko modu bat zen, bizitzan aurrera jarraitzeko kemen punttu bat atera beharrak erakarritako jarrera agian. Baina gogoia dudanetik, hor dago bolie eta aurrera jarraitu beharra.

Oraingo honetan nire berbatxo hauek, 2006. urtea amaitzearekin bateratsu irakurriko ote ditu norbaitek, eta halakotan, datorren –hala betor– horrek ekarriko duena hobeia izango delakoan, asmo onez horniturik hurbiltzen gara –beno, denbora, berez dator eta berez doa– guk geuk jarritako denbora-muga horretara.

Eta urteko azken egunotan, makina bat irribarre inozo izango da nonahi, datorrenak bakea eta zoriona ekarriko digula bete-betean sinetsirik. Hala balitz, hemengo askorentzat, derrigor onerako izango lirakeke denbora-mugaren aldaketak: euskal gatazka konponbidean, atzera buelta ezinik eta guztiontzat eragin eta emankor izango den garaia letorke. Beste askorentzat, AEBetako soldaduek Iraketik, Afganistanetik eta beste hainbat lekutatik alde egingo dute. Asmo onak, eta lege zuzenak, urte berriarekin batera: emakume gehiago bere bikotekideak, amoranteak edo “ustezko jabeak” erailda ez dela gehiago joango erakutsiko ote? Eta estatu laiko batean, erlijioen presiorik gabe, bizi ahal izango dugu. Eta etorkinei leku duina egingo diegu hemen. Eta estatuek giza-eskubideak errespetu bidean jartzeko asmoz, *mea culpa* ozen bat kantatuko digute. Eta laguntzak zentzuz banatuko dira, iruzurra, guztia, agerian uzten den bitartean. Eta umeen jokoetatik biolentzia



DANI BILANCO

desagertuko da, maisu-maistrak arnasa hartuz, gurasoek ardura eta erantzukizuna bere egiten dutela. Eta gosez diren umeek asetu arteko elikagaiak izango dituzte, euren amek negar eta samina ahaztuz, eta zenbat desastre datozkidan burura, egunero, urte berriaren ustezko magia inozoak ezabatu beharko litzuzkeenak. Lerro hauek baino, aldizkari osoan sartzen diren lerro guztiek ere, ez lidakete utziko, eremu nahikorik –garatu gabe, noski– aldarrikatzeko.

Baina neguaren iluntasunari aurre egiteko pizten ditugun “bromazko” argi guzti horiek itzaliz, urtarrileko aldapan gora lehen urratsak eman beharrak, oinak lurtean asentatu, eta berriz ere, “gatazkaren soluziobidea” lurrunduta ikusi arren, bere beharraz, behin eta berriz arituko gara. Eta AEBen politikaren kontra zein neurri hartu beharko litzatekeen esan, sikiera. Ahalik eta emakume gutxien

“euren jabeek” erail dezaten, berdintasuna aldarrikatuko dugu berriz ere, eta etorkina zergatik eta nola datorren ere gogoraraziko. Eta estatuen gehiegikerien aurrean, eta aurre egin nahian, eskolako tontoa moduan, esan eta esan, segi eta berriz ere. Eta “Hirugarren” mundukoentzat limosnatxo bat bidaltzen dugun bitartean, estatuek gure zergetatik gutxieneko solidaritatea erakuts dezaten eskatu –exijitu?–. Eta gurasoei, umeekin hitz egin, jolas egin eta balore zentzuzkoak erakuts diezazkien iradoki. Eta abar, eta abar.

Eguna joan eta eguna etorri ikusi, jasan eta guztion artean eragiten dugun desastre hau ez da ezerezean eraikitzen. Gauetik goizera, Eguberriko argien beroak ere ez du urtuko. Egunero irun eta astalkatzen dugu, bidegabekeria guztiak eusteko eta estaltzeko ehuna, eta boliek aurrera jarraitzen duen bitartean, orain arteko oihal hori kenduz, beste kolore, textura eta sendoerako hariak behar, pentsatu eta ezin asmatu modukoa eraiki guran. *Gira il mondo.* ■

Neguaren iluntasunari aurre egiteko pizten ditugun ‘bromazko’ argi guzti horiek itzaliz, urtarrileko aldapan gora lehen urratsak eman beharrak, oinak lurtean asentatu, eta berriz ere, ‘gatazkaren soluziobidea’ lurrunduta ikusi arren, bere beharraz, behin eta berriz arituko gara

ASTE HONETAKO

# zozketak



## Uxarte Landetxea

Asteburu pasa  
2 lagunentzat

Uxarte baserria  
Untzilla auzoa  
Aramaio ARABA

[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)

1



## Txiki Polit Jatetxea

Afaria 2 lagunentzat

Musika plaza, z/g  
Zarautz GIPUZKOA

[www.txikipolit.com](http://www.txikipolit.com)

2



## Su ta Gar

Urtarrilaren 5ean  
Eibarko Ipurua Kiroldegian  
"Jainko Hilien Uhartean"  
diskoaren aurkezpen kontzerturako  
5 harpidedunentzat bina sarrera

[www.sutagar.com](http://www.sutagar.com)  
[sutagar@sutagar.com](mailto:sutagar@sutagar.com)

3




## Chillida-Leku Museoa

Abenduaren 29an

IÑAKI SALVADORen kontzerturako  
harpidedun batentzat bi sarrera  
Jauregi auzoa, 66  
Hernani GIPUZKOA  
[www.museochillidaleku.com](http://www.museochillidaleku.com)

4



## Ardibidez

2 mahai jolas opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)



5

## AURREKO ASTEKO IRABAZLEAK

### MARIA CRISTINA HOTELA

- Jon Andoni Axpe Axpe (Aramaio)

### AKELARRE JATETXEA

- Jose Manuel Labayen Leizeaga (Hondarribia)

### CHILLIDA-LEKU MUSEOA

- Kontxi Iturbe Aranburu (Zarautz)
- Iñigo Eriz Unzueta (Aramaio)
- Imanol Irigoien Aranberri (Ojartzun)

### DONOSTIAKO AQUARIUMA

- Esteban Etxeberria Urreaga (Hernani)
- Xabier Goienetxe Bereziartua (Lezama)
- Maider Mendizabal Escalante (Donostia)
- Juanjo Usabiaga Urkola (Ordizia)
- Nerea Aranzeta (Eibar)

### ARDIBIDEZ

- Iñaki Sagasta Arana (Arrasate)
- Juanma Uribarrena Fernandez (Donostia)

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera **GOIZEZ** 09:00-13:00 **ARRATSALDEZ** 15:00-18:00

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)



# **GURE IRRATIAK**

**jarraitu behar du zure**  
**sustenguarekin**

**Zure laguntza:**

**3035 00 5987 0590 05 2623 Euskadiko Kutxa**

**gureirratiaelkartasuna@euskalirratia.info**

**Tel.: (0033) 616237224**

